


Xabier Amuriza

OINAK

ikaslegin izenaz argitaratuak



1. maila

Kazetaritza saila

OINAK

ikaslegin izenaz argitaratuak

EUSKALTZAINDIAREN
OINARRIZKO
EUSKARARAKO
BATZORDEA



Liburuxkaren egile: XABIER AMURIZA

Irudiaren egile: JOSE LUIS IRIONDO

Prestatzaile: OINARRIZKO EUSKARARAKO
BATZORDEA

Argitarazle: EUSKALTZAINDIA
IBERDUEROKO
EUSKAL KULTUR MINTEGIAREN LAGUNTZAZ

1981

© Euskaltzaindia

1. argitalpena, 1981



Imprimatzaile: Imprenta Industrial S. A. Bilbao

ISBN: 84-85479-16-5

D. L. BI-1.821 - 1981

HITZAURREA

Zer dira oinak? Zer egiten da oinekin? Oinekin ibili egiten da. Oinekin hor han hemen ibiltzen gara. Zutik ibiltzen gara. Gure gorputza oinen gainean jartzen da. Eta ez da jausten. Ez da erortzen.

Euskarak ere oinak dauzka. Euskarak ere zutik ibili nahi du. Geldi geldika, baina sendo ibili gura du. Hortarako, oinak behar ditu. Oin sendoak. Horrela, errez ibiliko da, eta ez da eroriko.

Euskaldunek euskaraz hitz egin nahi dute. Euskaraz berba egiten ibili gura dute. Hortarako, hizkuntzaren oinak behar dituzte. Oin sendoak, lasterrak. Horrela, geldi geldika hasiko dira hitz egiten, eta euskara gero eta errezago egingo zaie.

Liburuxka hontan euskararen oinak ematen zaizkio irakurleari. Esaldi laburrak, errezak, lehen mailakoak. Aditz arruntak, egunerokoak. Hoixek dira euskararen oinak. Orain ba dakizue.

Eta zer da berriketaria? Nor da berriketaria? Berriketaria gizon bat da. Berriketaria emakume bat da. Berriketaria berrien bila ibiltzen da. Hortik eta hemendik ibiltzen da. Eta gero jendeari kontatzen dizkio berriak. Berriketariaren berriak laburrak izaten dira, gehienetan. Laburrak bai, baina interesgarriak. Berri batzu egiazkoak izaten dira. Beste batzu, berriz, gezurrezkoak, alegiazkoak. Baina beti dauzkate gatza eta bipperra. Berriketariaren berriak, sarritan egunkarietan agertzen dira. Berriketaria, orduan, kazetaria izaten da. Kazetari berezia. Jendeak pozik irakurtzen ditu haren idazlanak. Irakurlea, batzutan, harrituta geratzen da. Beste batzutan, ostera, barreka hasten da. Horixe egiten du berriketariak.

Xabier Amuriza bertsolari famatua da. Baina berriketari on ona ere bai. Xabier Amurizak holako berri asko argitaratu ditu *Egin* egunkarian, IKASLEGIN izenaz. Jendeak pozik irakurri ditu haren lantxoak. Euskaldun berriek batez ere.

Xabier Amurizaren euskara guztiz erreza da, baina jatorra. Erdal usainezko berba asko erabiltzen ditu. Baina hortik ez dator haren euskararen erreztasuna. Xabier Amurizak esaldi laburrak erabiltzen ditu. Argi argi idazten du. Euskararen egitura zailak baztertzen ditu. Xabier Amuriza irakurlearen mailara jaisten da. Berak ondo ezagutzen du euskaldun jendea. Jakintsuekin jakintsu egiten da, ezjakintsuekin ezjakintsu, euskaldun berriekin haien mailako.

Liburuxka hontan Xabier Amurizaren holako 210 lantxo argitaratzen ditugu. Jendeak eskatu digu. Lantxo hauk Euskaltzaindiaren *Hitz Egin* metodoko lehen mailan jarri ditugu. Gure arazoa guztiz erreza izan da: Xabier Amurizari ez diogu ia ia ezer ere aldatu.

Hemen daukazue liburuxka. Har eta irakur!

Oinarrizko Euskararako Batzordea

1

KUKU BIRPIZTUA

Kuku birpiztua zara zu? Zer da kukua? Zer da birpiztua? Zer zara zu? Barka! Zu ez zara zer. Zu nor zara. Nor zara zu? Kuku birpiztua zara zu. Kukua txori bat da. Hori ba dakizu. Txori famatua mundu guztian. Euskal Herrian ere bai. Zergatik da kukua? Zergatik dauka izen hori? Beti kantatzen du ku-ku ku-ku, eta horregatik deitzen da kukua.

Eta zergatik ez du ka-ka kantatzen? Edo ke-ke edo ki-ki edo ko-ko? Gure kukuak asko daki. Kuku birpiztua da, eta asko ikasi du. Azken bokalean dabil. Ka-ka, ke-ke, ki-ki eta ko-ko pasatu ditu. Ku-ku ere ikasi du, eta horregatik da kukua. Horregatik da kuku birpiztua.

Udaberria da. Udaberrian gaude. Kukua laster dator. Kuku berria, kuku birpiztua. Kuku zaharra hil da. Beti berria etorzen da udaberrian. Horregatik da kuku birpiztua. Aurten ere ku-ku esango ote du? Ku-ku esan eta kukua izan.

Nor zara zu? Kuku birpiztua zara zu. Kuku ikaslea. Ikasle berria. Kuku euskalduna, euskaldun berria, kuku birpiztua. Kukuak euskaraz daki. Ez da asko, baina apur hori euskaraz kantatzen du. Nahi duzu euskaraz jakin? Hemen daukazu kuku birpiztuaren habia. Udaberria. Ba dator kuku berria. Ongi etorria, eta bihar arte.

arte: hasta; **aurten:** este año; **birpiz** (birpiztu, birpizte): resucitar; **habia:** nido.

2

OVNIEN DETEKTOREA

Ovniak non daude? Ez dakit, baina ba daude. Ama, ikusi duzu ovnirik? Ez, seme. Ez dut ikusi, eta ez dut ikusiko. Ama, ovniak ba daude. Neuk ikusi dut bat. Non ikusi duzu hori, seme? Hori gezurra da, seme. Ama eta semea ez eta bai ari dira. Ama-semeak ez dira ados jartzen.

Sinesten duzu ovnietan? Orain arte ovnien argazkiak difuminatuak dira. Argazki definitiboa falta da. Non dago hori?

Entzun! Orain tresna edo aparailu berri bat egin dute. Zer egiten du tresna horrek? Ovnia pasatzen da, eta atmosfera perturbatu egiten da. Tresna berri horrek perturbazio magnetiko hori detektatzen du. Tresnak tak egiten du, eta orduan badakizu zer egin. Irten arin, eta ovniari argazkia atera.

Detektorea txikia da. Bultu gutxi dauka. Zigarreta pakete bat bezalakoa da. Ez da garestia. Bi mila ta hirurehun pezeta bakarrik balio du. Amerikan salgai omen dago.

ados: de acuerdo; **arte:** hasta; **balio izan:** valer; **bezalako:** como; **falta izan:** faltar; **garesti:** caro; **gezur:** mentira; **omen:** según dicen; **salgai:** en venta; **sinets** (sinestu, sineste): creer; **tresna:** aparato, instrumento.

3 GALAXIEN ENBAXADOREA

Ovnirik ba dago ala ez dago? Ba ote dago ovnirik? Ez ote dago ovnirik? Zer uste duzu? Ez ala bai? Nik ez dakit. Baina gizon batek ba daki. Gizon hori italiarra da, eta Franchetto dauka izena. Liburuak idatzi ditu, eta extraterrestreen enbaxadorea da. Berak behintzat hori esaten du. Beste galaxietan daude beraren lagunak. Haiek diktatu egiten dute, eta Franchettok entzun. Horregatik bera transmisorea da, transmisore hutsa. Galaxien enbaxadorea.

Zuzendari izpiritual bat dauka. Hau extraterrestrea da, eta boskarren dimentsioan dabil. Honek *Fratellanza Cosmica* izeneko taldearen eskuan utzi du lana. Talde hori Eugenio Siragusa sortu du Italian. Baina Siragusa hau preso sartu dute. Zergatik? Aita batek bere alaba hil du, eta akusazioa Siragusaren burura dator. Nola hori? Siragusaren influentziagatik hil omen da neskatila. Hori akusatzen diote. Jesukristorekin ere hori egin dute, edo Franchettok hori uste du.

«Nire lana lurrean amaitu da», esaten du berak. «Ordenak hartu ditut. Baina beste mezulari batzu daude, eta hoik lanean ari dira. Gure artean lanean ari dira. Extraterrestreek gure

lurra bigilatzen dute. Atomo bonbak hor daude. Baina txikiak dira. Handiak ez dira botako. Handirik ez da egingo. Zergatik? Extraterrestreek gure armategia, gure arsenalala apurtuko dute.»

Hori esaten du Franchettok. Kontuz badaezpada ere!

behintzat: por lo menos; **bota** (botatze): echar, lanzar; **esku:** mano; **hil** (hiltze): matar; **huts:** puro, mero; **mezulari:** mensajero; **zor** (sortu, sortze): crear; **talde:** grupo; **uste izan:** opinar, creer; **zuzendari:** director.

4

ZER DA BINGOA?

Bingoa. Zer da bingoa? Ba dakizu? Ez dakizu? Nik ba dakit. Bingoa joko bat da. Dirua jokutzen da. Hori ba dakigu. Nork ez daki hori?

Baina nola funtzionatzen du? Zenbat sala daude? Bingoan arautegi berria egin da. Estatuaren Boletin Ofizialean agertu da. Eta fruituak ematen ari da. Zer fruitu? Jokoa kontzentratzen ari da. Mafia aurrera doa. Jokoetxe handiak hobeto daude orain.

Zenbat bingoetxe daude? Zazpiehundik gora Espainia guztian. Madrilen laurogei daude. Adibidez, hotel bat dago Madrilen. Nola deitzen da? *Meliá Castilla* deitzen da. Zenbat diru dabil hemen? Egunean zortzi milioi pezeta. Ederki dago, ezta?

Eta zenbat irabazten du etxeak? Begira! Hilabete guztietan hirurehun eta hogeita hamar milioi pezeta batzen dira. Hortik zati handi bat sariak, premioak dira. Ehuneko hirurogei ta hamabost (75%) sariak dira. Gero ehuneko hamabost (15%) haziendak hartzen du. Eta azkenez ehuneko hamar (10%) negozioa da. Hilabetean hogeita hamahiru milioi. Hortik gastuak bederatzi milioi dira. Zenbat gelditzen da? Hilabetean hogeita lau milioi pezeta. Eta noren eskuan dago kontrola? Pertsonaia publiko handien eskuan dago kontrola. Ederki gaude!

adibide: ejemplo; **arautegi:** reglamento; **azken:** último; **bat** (batu, batze): reunir, recoger; **begira:** mira!; **esku:** mano; **ezta:** no es así? **fruitu:** fruto; **geldi** (gelditu, gelditze): quedar; **hilabete:** mes; **hobeto:** mejor; **personaia:** personaje.

Amerikako ekonomian ere ez dago perspektiba onik. Inflazioa gora doa berriro. Hori esaten dute ekonomista pribatuek. Administrazioaren prebisiioetan, prezioak aurten 7,4% (ehuneko zazpi koma lau) igongo dira. Hori esaten dute ekonomista ofizialek. Baina pribatuen ustez, 9% (ehuneko bederatzi) igongo dira. Paroa gaur 6%an (ehuneko seian) dago. Baina gehitu egingo ei da laster. Beraz, Estatu Batuetan ere ez dabilta hain lasai. Edo denak ez behintzat.

Estatu Batuetan beste arazo bat sortu da. Amerikar misilei ez zaie euria gustatzen. Eguraldi onez misil hoiek ederki funtzionatzen dute. Baina euriaz apur bat desbidetu egiten dira. Hori da komedia. Zer egin? Euria kantzela? Ala misilak aterkiekin bidal? Orduan euritakogileak beharko dira berriro. Eta eslogana: Euritakogileak ilargira!

arazo: asunto, problema; **aterki:** paraguas; **aurten:** este año; **behintzat:** por lo menos; **beraz:** por consiguiente; **berriro:** nuevamente, de nuevo; **den:** todo; **desbide** (desbidetu, desbidetze): desviar; **ei:** según dicen; **Estatu Batuak:** Estados Unidos; **euritakogile:** fabricante de paraguas; **gehi** (gehitu, gehitze): aumentar; **hain:** tan; **ilargi:** luna; **lasai:** anchamente, tranquilamente; **orduan:** entonces.

Ahoan musua ematea ona omen da osasunarentzat. Hori esaten du Austriako mediku batek. Doktore honek Wilhelm Leiner dauka izena, eta teoria oso bat presentatu du. Gaia, musua eta beraren efektuak.

Musu klase hori aintzinakoan artean ere ezaguna da. Baina ez horregatik. Orain mediku honek beste arrazoi bat ematen du. Zer esaten du? Ahoko musuak odolaren zirkulazioa azelelatzen du. (Hori kukuak ere ba daki.) Doblera ekartzen du. (Horrenbeste?) Musu horren emozioak glandula suprarrenalak

estutzen ditu. Orduan hormona bat liberatzen da, eta hori guztiz ona ei da.

Hori ikasleei kontatu diet, eta gero bati galdetu: «Zuk zer uste duzu?» Eta ikasleak erantzun: «Niretzat behinik behin ona da.» Eta beste batek: «Gaur arte ona izan da niretzat. Orain medikuak ere sartu dira, eta dudan jarri naiz.» Zertan gelditzen gara? Aproba egin behar.

aintzinako: antiguo; **aproba egin:** probar; **arte:** hasta; **behinik behin:** por lo menos; **ei:** según dicen; **erantzun** (erantzute): contestar; **estu** (estutu, estutze): apretar; **ezagun:** conocido; **gai:** materia, asunto; **galde** (galdetu, galdetze): preguntar; **geldi** (gelditu, gelditze): quedar; **horrenbeste:** tanto; **musu:** beso; **omen:** según dicen; **orduan:** entonces; **osasun:** salud; **uste izan:** opinar.

7 JUPITERREN MISTERIOAK

Amerikarrek untzi bat bidali dute espaziora. Untzi hori Jupiterren ondotik pasatu da. Eta handik datu batzu bidali ditu, orain arte ezezagunak. Jupiterrek hamahiru edo hamalau ilargi dauzka bere inguruan. Eguzki sistema txiki baten antza dauka. Lurretik laurehun milioi miliaren distantziara dago. Pisu guztiz haundia dauka. Beste planeta guztiek batera pisu gutxiago daukate.

Baina hemen dator sorpresa nagusia. Jupiterren inguruan eraztun bat deskubritu dute. Lurretik ez da ikusten eraztun hori. Eraztunak hogeit hamar mila zabalera dauka. Harkaitzen tamainuko blokez eginda dago. Bloke hoik Jupiterrenak ote dira, ala ilargi desintegratu batenak? Es dakite.

Puntu gorri bat ikusten da Jupiterren. Puntu horren tamainua guztiz haundia da. Gure lurraren tamainua hiru bider txikiagoa da. Puntu hori, seguraski, harkaitz permanente bat da. Haizeak orduko 350 (hirurehun eta berrogei ta hamar) kilometrotan dabilta. Erdialdea, zona zentrala, bare dago, eta

urakan baten begiaren antza dauka. Laster kukuak hantxe utzi-ko du arraultzea.

antz: semejanza, parecido; **arte:** hasta; **bare:** en calma; **batera:** a una, a la vez; **begi:** ojo; **eraztun:** anillo; **ezezagun:** desconocido; **harkaitz:** peñasco, roca grande; **ilargi:** luna; **inguru:** contorno, alrededor; **lur:** tierra; **milia:** milla; **nagusi:** superior, mayor; **pisu:** peso; **seguraski:** seguramente; **zabale-
ra:** anchura.

8 ARMA SALTZAILEAK NEGARREZ

Salerosketa edo komertzioa modu askotakoa da. Batzuk armamentua saltzen dute. Armak saltzen dituzte. Gerra denboran arma gehiago behar da. Gaur toki askotan dabil gerra. Orduan, armen merkatariak ederki dabilta nonbait. Ez, ez da horrela. Edo ez omen da horrela. Samuel Cummings jauna armen merkatari handi bat da. Montecarlon bizi da, eta deklarazio batzu egin ditu.

Tentsio garaian —esaten du berak— ez da hainbeste arma saltzen. Hortarako, bakea eta estabilitate pixka bat behar da. Gerra bat urte bete aurretik prestatzen da. Orain, ordea, gauzak arin doaz. Materialea ikusi behar dut eta baimenak eskatu. Baina ez daukat hortarako astirik. Estatuek ez dute saltzaile partikularrik behar. Tramite gutxi nahi dute, eta orduan ni eta nire bezalakoak sobra gaude.

Gobernuek —esaten du Cummings jaunak— ez dute ofizialki agertu gura. Orduan datoz guregana. Beraiek baimena ematen dute, eta guk beste gutzia. Baina oraingo ertitmoa azkarra da, eta gu ez gabilta hain ondo.

asti: ocio, tiempo libre; **azkar:** rápido; **baimen:** permiso; **bake:** paz; **bezalako:** como; **denbora:** tiempo; **eska** (eskatu, eskatze): pedir; **garai:** tiempo; **gehiago:** más; **hain:** tan; **hainbeste:** tanto; **horrela:** así, de esa manera.; **hortarako:** para eso; **merkatari:** mercader, comerciante; **negar:** lloro, llanto; **nonbait:** seguramente; **ordea:** en cambio; **orduan:** entonces; **presta** (prestatu, prestatze): preparar; **toki:** lugar, sitio.

Zer edo nor da Gioconda? Entzun duzu inoiz Leonardo da Vinciren izena? Leonardo da Vinci XVI. mendeko pintore famatu bat da. Historia gutzian gutxi bezalako pintorea. Eta ez pintorea bakarrik. Zientzizigon geniala ere bai. Pintore bezala koadro famatu bat dauka. Koadro hori *La Gioconda* deitzen da. Gioconda hau emakume bat da.

Japoniako mediku batek, Nakamura jaunak, Leonardoren erretratua estudiatu du. Giocondak irribarre enigmatikoa dauka. Begietan kolore horiska dauka. Aurpegian eta eskuetan ere bai. Gioconda emakume potxolo bat da. Halaxe agertzen da erretratu famatuan ere. Nakamuraren ustez, Giocondak kolesterol gehiegi dauka. Urdai eta pastel asko jan du. Eta horregatik gazterik hil da.

Erretratu hori Pariseko Louvre museoan dago. Hango arduradunen ustez, ordea, Giocondaren kolore horiska hori denborarena edo desgastearena da. Beraz, Gioconda emakume ederra da. Baina bai jatuna ere.

arduradun: encargado; **begi:** ojo; **beraz:** por consiguiente; **bezala:** como; **bezalako:** como; **denbora:** tiempo; **esku:** mano; **gehiegi:** demasiado; **hil** (hiltze): morir; **irribarre:** sonrisa; **jatun:** comilón; **mende:** siglo; **ordea:** en cambio; **potxolo:** regordete; **urdai:** tocino; **uste:** opinión.

Nahi duzu luzaro bizi? Gura duzu urte askotan bizi? Ba, ikas erlaxatzen.

Estatu Batuetan esperimentu bat egin dute ikertzaile batzuk. Arratoiekin egin dute esperimentua. Arratoiei tentsioa ematen diete. Nola? Arratoia fonografo baten gainean ipintzen dute, eta platera bueltaka hasten da. Orduan arratoia ere bueltaka dabil. Eta zer gertatzen da? Odoleko gorpuzkulu zuriak ehun-

dik berrogei ta hamar galtzen dira. Tentsio horrek kortikostero-
na ugaritzen du animalietan. Kortikosteroa hormona bat da,
eta tentsioa egiten du.

Arratoi batzuri kantzer zelula batzu sartzen zaizkie. Arratoia
trankil dago, eta orduan kantzer zelulak gutxiago hazten dira.
Arratoia tentsioan ipintzen dute, eta orduan kantzer zelulak
askoz gehiago hazten dira. Hori gertatzen da arratoiekin. Zuri
ere antzera gertatuko zaizu. Beraz, ikas erlaxatzen.

antzera: parecidamente, de manera parecida; **askoz:** por mu-
cho; **beraz:** por consiguiente; **erlaxa** (erlaxatu, erlaxatze):
relajar; **Estatu Batuak:** Estados Unidos; **gehiago:** más; **haz**
(hazi, hazte): crecer; **ikertzaile:** investigador; **luzaro:** larga-
mente, por largo tiempo; **odol:** sangre; **orduan:** entonces;
ugari (ugaritu, ugaritze): aumentar, multiplicar; **urte:** año.

11 SORGINEN INDEMNIZAZIOA

Ba ote dago sorginik muduan? Estatu Batuetan ez daude
gutxi. Hiru milioi sorgin omen daude. Eta ez daude geldi.
Sorgin aktiboak dira. Klan edo talde askotan organizaturik dau-
de. Baina aspaldion haserre dira. Eliza katolikoak sorginen
kontra propaganda txarra egiten du. Horregatik dira haserre.

1976.ean, nazioko sorgin eta sazerdotesa nagusiak karta bat
bidali die New Yorkeko katedraleko arduradunei. Karta hortan,
eta bere lagunen izenean, milioi bat dolarren indemnizazioa
eskatzen dio Eliza katolikoari.

Arrazoi hau jartzen du. Sorginen gremioak kalte moral eta
material asko sufritu du azken mendeetan. Horregatik eskatzen
du indemnizazioa. Karta horren kopia bat Vatikanora bidali
dute. Sorginek bizi nahi dute. Bakean bizi gura dute. Horixe
eskatzen dute batez ere.

arduradun: encargado; **aspaldi:** tiempo pasado; **azken:** últi-
mo; **bake:** paz; **batez ere:** sobre todo; **eska** (eskatu, eskatzen):
pedir; **Estatu Batuak:** Estados Unidos; **geldi:** quieto; **haserre**
izan: estar enfadado; **kalte:** perjuicio, daño; **mende:** siglo;
omen: según dicen; **sorgin:** brujo, bruja; **talde:** grupo.

12 LAMIAK IBAI ETA ITURRIETAN

Euskal Herrian ibai eta iturri asko daude. Famatuak, baina beldurgarriak. Osinak ere bai. Hauetatik hodeiak irteten omen dira. Tximistak eta trumoiak ugari. Eta gero harria eta kazkabarra botatzen dute herrira.

Beste osin batzu lamien bizileku ei dira. Hor daude Jutsiko Laminosin, Berako Lamiosin, Oñatiko Lamiategi, Motrikuko Laminategi, Zeanuriko Laminapozu, eta abar. Denak lamien bizilekuak dira. Leku hoik misteriosoak dira haurrentzat. Hoiertara sartzea egitada handia da umeentzat.

Iturriak ere laminlekuak dira. Famatua da Bizkaian Dimako Lamindaoko Petralanda. Iturri bat dago han, eta Arratiako lamiek batzarre jeneralak egiten dituzte. Hor dago Arbuluko Mariturri ere. Horko belarra zapaltzen duzu, eta memoria galtzen zaizu. Beste iturri batzu, ordea, osasungarriak dira: Behorburuko Saniturri, Beteluko Damaiturri, Anozibarko Aingeruiturri, eta abar.

batzarre: junta, reunión; **belar:** hierba; **beldurgarri:** temible; **bizileku:** vivienda, domicilio; **egitada:** hazaña; **ei:** según dicen; **eta abar:** etcétera; **iturri:** fuente; **kazkabar:** granizo; **lamia:** lamia, sirena; **leku:** lugar; **omen:** según dicen; **osasungarri:** saludable; **osin:** pozo natural profundo; **trumoi:** trueno; **tximist:** rayo; **ugari:** abundante; **zapal** (zapaldu, zapaltze): pisar.

13 ONDO BAI, BAINA BILBORA EZ

Bizkaiko Markinan gaude. Jazoera hau zaharra da. Gerra aurrekoa. Gizon hura ez da bizi gaur. Baina haren ondorengoak bai. Gizon hura baserritarra da, nekazaria da.

Zertan ari da? Zer egiten du? Segá pikatzen ari da. Zer da sega? Erreminta bat. Erreminta horrekin belarra ebakitzen da. Belarra segatzen da. Beraz, erdal hitza da. Eta zer da pikatzea? Hori ere erdaratik dator. Eta zer da hori? Segá zorroztea. Mailuaz tak-tak-tak jotzea eta zorrotz zorrotz ipintzea.

Markinarra sega pikatzen ari da. Bere etxearen aurrean dago. Lan hori jezarrita egiten da. Eserita egiten da. Kamino ondoan dago etxea. Kotxe eder bat dator. Oso kotxe ederra da, luzea eta handia. Bolantean gizon bat dator. Ondoan emakume eder bat.

Kotxea gelditzen da, txoferra irteten da, eta galdetzen du: «Zu, gizon! Ondo noa Bilbora?» Eta markinarrak erantzun: «Ondo bai, baina Bilbora ez».

baserritar: aldeano; **belar:** hierba; **beraz:** por consiguiente; **ebaki** (ebakitze): cortar; **erantzun** (erantzute): contestar; **galde** (galdetu, galdetze): preguntar; **jazoera:** suceso; **jo** (jotze): pegar, golpear; **nekazari:** agricultor; **ondorengo:** descendiente.

14 EHUNA ETA ONGARRIA

Gizon bat Baztango baserri batetara joan da. Ostatua eskatzen du. «Gure etxean ez dago lekurik», esaten diote baserrikoek.

Gizona hurrengo etxera doa, eta ostatua eskatzen du. Etxekoek baietz esaten diote. Biharamun goizean gosaria ere ematen diote. Gizonak agur egiten die etxekoei: «Eskerrik asko, lagun onak. Goizean has lan bat, eta arratsean buka. Hori eskatzen diot Jainkoari. Agur!»

Gizona joan da. Gizona Jesukristo da. «Lan bat? Atzoko ehuna neurtu behar dugu», esaten dute etxekoek. Neurtzen hasten dira, eta ehuna ez da bukatzen. Arratsean etxea ehunez beterik dago. Hura bai aberastasuna!

Beste etxekoak harriturik daude. Gizonari ez diote ostaturik eman, eta damaturik daude. «Beharbada berriro etorriko da gizona, eta orduan gure etxean geldituko da», esaten dute esperantzaz beterik.

Urte bete igaro da, eta berriro etortzen zaie gizon hura, eta ostatua eskatzen die. «Gaur bai», esaten diote etxekoek. «Gaur ba daukagu lekua. Sar, mesedez, barrura».

Afari ederra eta ohe ederra ematen diote, eta biharamunean gosari ederra ere bai. Gizonak agur egiten die etxekoei: «Eskerrik asko. Goizean has lan bat, eta arratsean buka. Agur!»

Etxekoak pozik daude. Gizona joan da. «Zer lan hasiko dugu», esaten diote haiek batak besteari. «Ogia neurtuko dugu», dio batek. «Abereak kontatuko ditugu», dio beste batek. «Ez!» esaten du etxekandreak. «Hor kutxan urrezko txanpon zahar batzu dauzkat. Hoik kontatuko ditugu.»

Denok daude ados. Baina etxeko gizonak zera esaten du: «Lehenbizi geure beharrak egingo ditugu, eta gero hasiko gara lanean. Bestela, gero denbora galduko dugu.»

Etxeko guztiak ikuilura doaz, prakak eranzten dituzte, eta kaka egiten hasten dira. Baina ezin buka. Lan harek egun osoan irauten du. Etxea ongarri ederrez betetzen da.

ados: de acuerdo; **aberastasun:** riqueza; **abere:** ganado; **afari:** cena; **atzo:** ayer; **baserri:** aldea; **behar:** necesidad; **berriro:** de nuevo; **bestela:** de otro modo, si no; **biharamun:** día siguiente; **buka** (bukatu, bukatze): acabar, terminar; **damu** (damutu, damutze): arrepentirse; **ehun:** lienzo; **eska** (eskatu, eskatze): pedir; **gal** (galdu, galtze): perder; **geldi** (gelditu, gelditze): quedar; **gosari:** desayuno; **harri** (harritu, harritze): asombrarse, maravillarse; **has** (hasi, haste): empezar; **hurrengo:** siguiente; **igaro** (igarotze): pasar; **ikuilu:** cuadra, establo; **iraun** (iraute): durar; **lehenbizi:** primeramente; **leku:** lugar; **neur** (neurtu, neurtze): medir; **ongarri:** abono; **ostatu:** albergue; **pozik:** alegremente, contento; **txanpon:** moneda; **urre:** oro.

15 PIX EGIN ETA ALARMA JO

Txakurrak nola pix egiten du? Hanka bat gora, eta ba daki-zu. Arbola bat, kotxe bat, semaforo bat, edozer. Edozer? Ez. Kontuz kaleko farolekin! Bilboko Santutxun gertatu da. Kalean bi farol erorita daude. Eta kableak biluzik. Ondoan haurreskola bat dago. Baina ez da ezer txarrik jazo. Txakur bati eskerrak.

Ba doa txakurra. Hanka bat gora, eta bere lanean hasten da. Hasi da, baina ez du amaitu. Txakur gaixoa uluka hasten

da. Zergatik? Kableak biluzik daude. Eta deskarga elektrikoa dator. Txakur gaixoa uluka doa. Jendea harrিতuta dago.

Zer gertatzen da? Ba doaz, eta han aurkitzen dute gaitza. Farola jausita dago, eta kableak biluzik daude. Txakurtxo batek jo du alarma. Berak ez daki. Berak negar egiten du. Baina txakurtxoari eskerrak, arrisku bat aurkitu dute. Kontuz kaleko farolekin!

amai (amaitu, amaitze): acabar, terminar; **arrisku**: peligro; **biluzik**: desnudamente; **edozer**: cualquier cosa; **eror** (erori, erortze): caer; **gaitz**: mal; **gaixo**: pobre, infeliz; **harri** (harritu, harritze): asombrarse; **has** (hasi, haste): empezar; **haureskola**: parvulario, escuela de niños; **jaus** (jausi, jauste): caer; **jazo** (jazotze): suceder; **jo** (jotze): pegar, golpear; **pix egin**: hacer orina, orinar; **ulu**: aullido.

16 SAINDUAK DANTZAN

Nongoa da Aita Saindua? Poloniakoa da. Poloniarra da. Joan Paulo Bigarrenak Poloniara joan nahi du. Vatikanook eta Poloniak tratu bat egin dute. Varsoviako Gobernuak hau eskatu du: Aita Saindua San Estanislaoen jaian ez etortzea. Zergatik? San Estanislao saindu «kontestatarioa» da, eta horregatik ez da komeni Aita Saindua haren jaian Poloniara etortzea.

«Ederki!» erantzun du Joan Paulo Bigarrenak. Baina zer egin du Varsoviako kardinale artzapezpikuak? San Estanislaoen eguna aldatu. Eta nora aldatu du? Aita Sainduaren etorreraren egunera. Hori da jai dantzaria! Orain bakarrik falta da San Estanislao ez presentatzea. Edo saindu guztiak Varsoviara joatea eta hango ogi guztiak jatea. Edo San Pedrok zera esatea: «Hemen Aita Saindu bakarra neu naiz.»

alda (aldatu, aldatze): cambiar, trasladar; **bakar**: único; **dantzari**: danzante; **erantzun** (erantzute): responder; **eska** (eskatu, eskatze): pedir; **etorrera**: venida; **falta izan**: faltar; **jai**: fiesta; **komeni izan**: convenir.

Bizitza itsasotik dator. Bizitza uretik dator. Bizitza itsasoan hasi da. Itsasotik lurrera pasatu da. Arrainak uretik irten dira, eta narraz ibiltzen hasi dira. Hortik datoz narraztiak. Eta gero txoriak eta beste animalia guztiak.

Itsasoa gazia da. Itsasoko urak gatza dauka. Eta geure gorputzean gatza daukagu. Daukagu eta behar dugu. Itsasotik gatz. Baina gatz askok hipertentsioa dakar. Hipertentsioa ez dakar bizitza trepidanteak, ez dakar urduritasunak, ez dakar nerbiosismoak. Pobreak eta aberatsak berdin dira hipertentsoak. Baserritarrak ere bai. Baina kaletarrak gehiago.

Zer da hipertentsioa? Tentsio gehiegi edukitzea. Orduan odolak presio gehiegi egiten du, indar larregi egiten du. Hortik datoz bihotzeko eritasunak, infartuak, hemorragia zerebralak, eta abar. Hau ba dakizu. Baina beste gauza bat ez dakizu beharbada.

Gure gorputzean zelula asko daude. Milioika eta milioika. Zelulak plasma baten barruan daude. Plasmaz bainaturik daude. Zeluletan eta plasman gatz gehiegi edukitzea, horixe da hipertentsioa. Horixe pentsatu da behinik behin orain arte.

Orain Parisen Meyer eta Garay doktoreek hipotesi berri bat bota dute. Hipertentsioaren errua ez dago zeluletan eta plasman. Non dago, ba? Zelulen mintzean. Mintz honek gatza filtratzen du. Nondik nora? Plasmatik zeluletara. Operazio hori ongi edo gaizki egiten da. Gaizki egitea hipertentsioa da.

Hegoaldeko japoniarrak hipertentsoak dira. Gauza gazi larregi jaten dute. Eskimaleak dira azkenak hortan. Beltzek joera handia daukate hipertentsiora. Frantzian heriotzarik gehien hipertentsioak dakar. Beraz, kontuz gatzarekin!

aberats: rico; **arrain:** pez; **arte:** hasta; **azken:** último; **baserritar:** aldeano; **behinik behin:** por lo menos; **bihotz:** corazón; **bizitza:** vida; **bota** (botatze): echar, lanzar; **eritasun:** enfermedad; **erru:** culpa; **eta abar:** etcétera; **gaizki:** malamente; **gatz:** sal; **gazi:** salado; **gehiegi:** demasiado; **gehiago:** más; **gorputz:** cuerpo; **has** (hasi, haste): empezar; **heriotza:** muerte; **indar:** fuerza; **joera:** tendencia, inclinación; **kaletar:** habitante de la calle; **larregi:** demasiado; **lur:** tierra; **mintz:** membrana; **narra:** arrastramiento; **narrazti:** reptil; **odol:** sangre; **urduritasun:** inquietud.

18 INDEPENDENTZIA NAHI DUGU

Non dago Australia? Australia oso urrun dago. Zer da Australia? Australia irla haundi bat da. Irla haundi honen inguruan beste irla txiki asko daude. Eta batzu guttiz txikiak dira. Txiki txikiak dira. Irlatxo batek Magnetic dauka izena. Entzun duzu inoiz izen hori? Ez, seguraski.

Magnetic irla txiki txikia da. Eta, hala ere, independentzia nahi du. Luzean hemeretzi kilometro dauzka, eta zabalean bost. Mila eta zortziehun bizilagun dira. Eta, hala ere, independentzia gura dute. Australiatik separatu nahi dute. Zergatik? Gobernu zentralak ahanztu egiten ditu. Horregatik Estatu independentea izan nahi dute. Beren legeak promulgatu gura dituzte. Beren dirua atera nahi dute. Beren posta seiluak eduki gura dituzte. Eta zergetatik libre izan nahi dute.

Urtero ehun mila turista joaten dira irlara. Denen artean bost milioi dolar uzten dituzte. Irlatarrentzat nahikoa da hori. Hori diote beraiek. Eta independentzia eskatzen dute. Lortuko ote dute? Orduan independentzia magnetikoa izango da.

ahantz (ahanztu, ahanzte): olvidar; **bizilagun**: habitante; **eska** (eskatu, eskatze): pedir; **hala ere**: sin embargo; **inguru**: entorno, alrededor; **inoiz**: alguna vez; **irla**: isla; **lege**: ley; **lor** (lortu, lortze): lograr, conseguir; **posta**: correo; **seguraski**: seguramente; **urrun**: lejos; **urtero**: anualmente, todos los años; **zabal**: ancho; **zerga**: contribución, impuesto.

19 NONDIK JOATEN DA BEASAINERA?

Hor Azpeitian eta Errezilen gauza politik gertatzen dira. Hurrengo hau alderdi hortan jazo da.

Gizon bat kotxean doa. Beasainera heldu nahi du. Gaua da eta oso berandu. Goizaldea da ia. Gizonak ez du ezagutzen bidea, eta galdu egiten da. Auzune batetako bidea hartzen du. Joan eta joan, dudatzen hasten da. Baina aurrera segitzen du.

Heldu da auzunera, eta oraindik bidea aurrera doa. Bera ere aurrera doa. Joan eta joan, baserri batetara heltzen da. Bidea bertan amaitzen da, antza.

Orduan kotxedunak baserriko atea jotzea pentsatzen du. Dan-dan-dan jotzen du atea. Berriro ere dan-dan-dan. Norbait ohetik jaikitzen da, eta tirrin-tarran dator eskaileretan behera. Etxeko aitona da. Agurea da bera.

«Zu, gizon, hemendik joaten da Beasainera?» galdetzen dio kotxedunak. Eta agureak erantzun: «Gu behintzat hemendik joaten gara.»

agure: anciano; **aitona:** abuelo; **alderdi:** paraje; **amai** (amaitu, amaitze): acabar, terminar; **antza:** al parecer; **auzune:** barriada; **baserri:** caserío; **behintzat:** por lo menos; **berriro:** de nuevo; **bide:** camino; **erantzun** (erantzute): responder; **ezagut** (ezagutu, ezagutze): conocer; **gal** (galdu, galtze): perder; **galde** (galdetu, galdetze): preguntar; **goizalde:** madrugada; **hel** (heldu, heltze): llegar; **hurrengo:** siguiente; **jazo** (jazotze): suceder; **norbait:** alguien, alguno; **oraindik:** todavía.

20

ALEMAN LISTOAK

Alemanak listoak omen dira. Alemanek buru handia ei daukate. Baina bai tranpa asko ere.

Egon zara inoiz Alemanian? Zer da Rhin? Rhin Alemaniako ibai bat da. Ibai haundia eta mundu guztian famatua. Ibai horren inguruan industria asko dago. Rhinaldea guztiz aberatsa da. Baina zer egiten du industriak? Ibaia zikindu, ura kutsatu.

Alemaniko agintariek ibaiko urak garbitu nahi dituzte. Hortarako, neurri batzu hartu dituzte. Eta egunkarietan anuntzioak atera dituzte. «Rhin ibaia berriro garbi. Edonor bainatu ahal da bertan.» Hori diote anuntzioek. Eta arrainen argazkiak datoz.

Baina profesore batek Rhin ibaiko ura analizatu du. Eta konklusio hau atera du: Rhingo urak lehengo sustantzia

toxikoak dauzka. Zer gertatu da? Lehengo udan euri asko egin du, eta toxikoen kontzentrazioa gutxitu egin da. Hori da listoa izatea!

aberats: rico; **agintari:** autoridad, gobernante; **arrai:** pez; **berriro:** de nuevo; **edonor:** cualquiera; **ei:** según dicen; **hortarako:** para eso; **inguru:** contorno, alrededor; **kutsa** (kutsatu, kutsatze): contaminar; **lehen:** antes; **neurri:** medida; **zikin** (zikindu, zikintze): ensuciar.

21 NOLA KEN ZURRUNGAK?

Gizon horrek zurrunga egiten du. Gizon hori zurrungaria da. Eta zer da zurrunga? Entzun: zurrun-zurrun-zurrun. Zer da zarata edo hots hori? Zurrunga berba onomatopeikoa da. Berba hori zaratatik dator. Zurrun-zurrun-zurrun. Nork egiten du zarata hori? Entzun! Laguna lo dago. Ahoa irekitzen du, eta ahotik arnasa hartzen du. Eta zarataka hasten da: zurrun-zurrun-zurrun. Ulertzen duzu orain?

Zuk zurrunga egiten duzu? Zurrungaria ote zara? Nola ken zurrungak. Ez dago erremedio errezik.

Boulwar jaunaren ustez, erremedio bat autosugestioa da. Nola? Zurrungariak zera pentsatu behar du: «Ez dut zurrungarik egingo. Ez gaur, ez inoiz.»

Lagun bat behar da ondoan. Zurrungaria zurrungaka hasten da. Lagunak momentu hortan iratzarri egin behar du. Zurrungariak orduan pentsamendua kontzentratu behar du, eta berriro lo egin. Zurrungaka hasten da, eta lagunak berriz ere irartzartzen du. Eta horrela sarritan. Erremedio honek gauza bat dauka txarra: laguna eta pazientzia behar.

arnasa: aliento; **berriro:** de nuevo; **berriz:** de nuevo; **errez:** fácil; **inoiz:** nunca; **iratzar** (iratzarri, iratzartze): despertar; **ireki** (irekitze): abrir; **has** (hasi, haste): empezar; **horrela:** así, de ese modo; **hots:** ruido; **uste:** opinión; **zurrunga:** ronquido.

William Kain langile bat da. Baina orain ez dauka lanik. Lana falta zaio, eta lanik gabe dena falta zaio. Cincinnatikoa da bera. Cincinnati Ipar Amerikako Ohion dago. Kainek ez dauka lanik, eta lana nahi du.

Eta zer egin? Lan bila irteten da. Baina ez dauka dirurik. Diru barik ezin da inora joan lan bila. Ezin du bidaia pagatu. Eta oinez irteten da. Oinez doa lan bila. Hogeitahamabost milia egin ditu oinez, eta nekatuta dago. Izotza eta hotza. Ia hotzak hil du gizona.

Kamionari bat gelditzen da. «Zer egiten duzu hor, gizona?» galdetzen dio. Eta Kainek erantzun: «Jota nago. Ez daukat indarririk.» Kamionariak berriro: «Nora zoaz, gizona?» Eta Kainek: «Lan bila noa. Lan egin nahi dut.»

Kamionariak hartzen du, eta bere autoan eramaten du. Kasua egunkarrietan agertzen da. Eta lan oferta asko hartzen ditu Kainek. Paratuek lana aurkitu gura dute. Zer egin behar dute hortarako? Bidean erori eta ia hilda gelditu.

barik: sin; **bidaia:** viaje; **bide:** camino; **bila:** en busca; **erantzun** (erantzute): responder; **eror** (erori, erortze): caer; **falta izan:** faltar; **gabe:** sin; **galde** (galdetu, galdetze): preguntar; **geldi** (gelditu, gelditze): quedar, parar; **hil** (hiltze): morir, matar; **hortarako:** para eso; **indar:** fuerza; **inora:** a ninguna parte; **izotz:** hielo; **jo** (jotze): pegar, golpear; **langile:** trabajador, obrero; **milia:** milla; **neka** (nekatu, nekatze): cansarse; **oin:** pie.

Parisen hotel eder bat dago. Jauregi baten antza dauka. Hotel famatua. Famatua bakarrik ez. Famatuena da. Ritz dauka izena, eta saldu egin dute.

Nahi duzu erosi? Nork gura du Ritz hotela? Ez du inork nahi? «Neuk nahi dut», dio arabiar batek.

Nor da arabiar hau? Mohammed Mefdi Al-Tajir. Lehen, Dubai emiratuko enbaxadorea izan da Parisen. Eta, orain, Emiratu Federazioko enbaxadorea da Britainia Haundian.

Zenbat balio du hotel horrek? Milioi bat eta seiehun mila (1.600.000) petrolio upel. Zenbat petrolio da hori? Ba, ipin erreskadan zortzi mila (8.000) petrolio kamioi, eta zurea da hotela. Kamioiak Bilbotik Donostiaraino.

Baina hori ez da ezer. Arabiar munduan egunero ateratzen da petrolio. Eta hori ehuneko bost (5%) bakarrik da. Egunero. Beraz, egunean hogeitaz Ritz erosi ahal dira. Eta urtean zazpi mila ta hirurehun (7.300) Ritz.

antz: semejanza, parecido; **beraz:** por consiguiente; **egunero:** diariamente, todos los días; **erreskada:** fila, hilera; **jauregi:** palacio; **upel:** barril; **urte:** año.

24 BA OTE DAGO BIZITZARIK JUPITERREN?

Eguzkiaren inguruan planeta asko dabil. Bat lurra da. Lurra gure planeta da. Eta beste bat Jupiter da. Jupiter planeta haundia da. Haundia bakarrik ez. Haundiena da bera. Lurretik zortziehun milioi kilometrotara dago. Jupiterrek kolore biziak eta ederrak dauzka.

Eta orain dator sorpresa. Jupiter guztiz likidoa ote da? Hango ozeanoetan bizitza apur bat ote dago? Zergatik galde hauk? Planeta horren atmosferan amoniakoa, metanoa, helioa, hidrogenoa eta ura dago. Elementu hoiek gure lurtean bizitza ekarri dute. Gure lurra horrela egon da aintzina, eta bizitza agertu da. Lurreko bizitza uretik hasi da, itsasoan hasi da. Eta gero, apurka apurka, bizitza intelijentea etorri da.

Jupiterren ere berdin gertatuko ote da? Beharbada bai. Baina hori hemendik urte askotara jazoko da. Zenbat urte pasatuko dira? Milioi urte asko. Lurreko bizitza ere orain milioi urte asko hasi da. Hemen mila urte begien itx-ireki bat bezala da.

aintzina: antiguamente; **bizi:** vivo; **bizitza:** vida; **has** (hasi, haste): empezar; **horrela:** así, de ese modo; **inguru:** alrededor, contorno; **itx-ireki:** cerrar y abrir; **jazo** (jazotze): suceder; **lur:** tierra.

25 DIGANTEAK EGIAZKOAK IZAN DIRA

Aintzinako zibilizazioetan, mitologia primitiboetan, diganteak agertzen dira. Biblian ere sarritan agertzen dira. Zer dira digante hauk? Egiazkoak dira ala gizonaren fantasiak?

Animalietan diganteak egiazkoak izan dira. Dinosaurioak animalia izugarriak izan dira. Elefanteak haien ondoan nanoak dira. Animalia hoién existentzia egia da, eta ba dakigu. Eskeletoak aurkitu dira.

Eta gizona? Egon ote da gizon diganterik? Bai, antza. Gizon digante hoik orain berrogei ta hamar mila urte bizi izan dira lurrean. Txinako paleontologo batek eskeleto haundi bat aurkitu du Filipinetan. Eskeleto horrek bost metro dauzka. Beste batzu Txinan bertan aurkitu ditu. Hauek hiru metro ta erdi dauzkate.

Frantses jakintsu batek, bere aldetik, eskabazioak egin ditu Marrokon. Zer aurkitu du? Tresna eta arma haundiak. Ezpata batek zortzi kilo dauzka. Haren girtena gizon arrunt batek ezin du hartu. Hortarako, lau metrotako gizona behar da. Gizonen eskeleto diganteak agertu dira. Lurrean gizon diganteak bizi izan dira.

aintzinako: antiguo; **alde:** lado; **antza:** según parece; **arrunt:** ordinario, corriente; **digante:** gigante; **ezpata:** espada; **girten:** mango; **hortarako:** para eso; **izugarri:** terrible, enorme; **jakintsu:** sabio; **lur:** tierra; **Marroko:** Marruecos; **nano:** enano; **tresna:** instrumento.

Bearbada, sarritan joaten zara elizara. Orduan, ba dakizu ohitura hau. Beharbada, ez zara inoiz joaten. Orduan, oraintxe jakingo duzu.

Elizan monagiloak ibiltzen dira dirua batzen. Jende nagusia ere bai. Hortarako, plater batzu erabiltzen dira. Batzutan txilin eta guzti. Horrela, txilin-txilin entzuten da. Arimen izenean, San Antonioren izenean eta beste saildu batzuren izenean biltzen da dirua.

Monagiloa dirua biltzen ari da. Eta txilin-txilin-txilin entzuten da elizan. «San Martinen argiarentzat, San Martinen argiarentzat», esaten du monagiloak.

Errezildar bat koru azpian dago jende artean. Entzuten du, eta galdetzen du: «Zer esaten du horrek?» Eta lagun batek erantzun: «San Martinen argiarentzat.»

Orduan errezildarrak monagiloa deitzen du eta zera esaten dio: «Mutiko! Esan San Martini hauze: “Egunez eguzkiarekin ez da behar argirik. Eta gauez lo egiten da argirik gabe.”»

arima: alma; **bat** (batu, batze): reunir, recoger; **bil** (bildu, biltze): recoger; **eliza:** iglesia; **gabe:** sin; **horrela:** así, de ese modo; **hortarako:** para eso; **inoiz:** nunca; **lagun:** individuo; **mutiko:** muchacho; **nagusi:** mayor, adulto; **ohitura:** costumbre; **txilin:** campanilla.

BARAUA OSO ONA GORPUTZARENTZAT

Barau egitea oso ona da gorputzarentzat. Ura bakarrik edan. Barau egunetan organismoak opor egiten du. Opor fisiologikoa. Eta hori oso ona da.

Barauak gosea dakar. Gosea eta argaltasuna. Gosea ez da ona. Baina baraualdian gaitasun intelektuala gehitu egiten da. Burua argitu egiten da. Hori esaten dute barautzaileek. Haseran

depresio bat dago. Organismoko toxinak geldi geldika kanpora doaz. Buruko minak etortzen dira. Horrek ekartzen du depresioa. Baina gero burua asko argitzen da.

Barauak odola asko hobetzen du. Globulu gorriak asko gehitzen dira. Bihotzak ere atsedena hartzen du. Taupaden erritmoa gutxitzen da. Odolaren presio altua jaisten da, eta horrela bihotza asko deskargatzen da. Giltzurrunak, gibela, nerbioak eta organo guztiak berritzen dira. Zergatik hori? Toxinak eliminatzen dira. Gorputzeko sustantzia pozointsuak kentzen dira. Horrexegatik da.

Barau egitea ona da. Baina zenbat denbora? Denbora gehiegi ez behintzat. Egon trankil. Aste bategatik ez da ezer gertatzen.

argaltasun: delgadez; **argi** (argitu, argitze): esclarecer; **atse-den:** descanso; **barau:** ayuno; **baraualdi:** tiempo de ayuno; **barautzaile:** ayunador; **berri** (berritu, berritze): renovar; **gaitasun:** capacidad; **gehi** (gehitu, gehitze): aumentar; **gehiegi:** demasiado; **geldika:** poco a poco; **gibel:** hígado; **giltzurrun:** riñón; **gorputz:** cuerpo; **gose:** hambre; **gutxi** (gutxitu, gutxitze): disminuir; **hasera:** comienzo; **hobre** (hobetu, hobetze): mejorar; **jaits** (jaitsi, jaiste): bajar; **opor egin:** vacar, cesar temporalmente en su trabajo habitual; **pozointsu:** venenoso; **taupada:** latido.

28

HAU DA ZIBILIZAZIOA!

Albert Einstein zientzigizon harrigarria izan da. Berari eskerrak, aurrerakuntza handiak egin dira arma nuklearretan.

«Zer armamentu erabiliko da hirugarren gerra mundialean?» galdetzen da sarritan. «Hirugarren gerran ez dakit», erantzuten du Einsteinek. «Baina laugarrenean gizonen arma bakarra porra izango da.»

Gaur arma nuklearrak asko ugaritu dira. Potentzia ikaragarria daukate. Mundu osoa apurtu ahal dute. Gaurko arma nuklearren indarra berrogei ta hamar mila Hiroshima dira. Ez berrogei ta hamar. Berrogei ta hamar mila. Gaur submarino

nuklear batek nazio oso bat desegin ahal du. Espainia edo Frantzia gutzia desegin ahal du. Baina txarrena ez da hori.

Zenbat diru kostatzen dira armamentuak? Hori da txarrena. Zenbat? Zifra astronomikoak. Zeroak eta zeroak eta zeroak ipini behar. Zenbaki hotzak dira. Ez ditugu imaginatzen. Baina entzun hau: Ipar Amerikako Trident submarinoak zenbat balio du? Marrokoren presupostua bi bider. Hori submarino batek bakarrik. Hau da zibilizazioa!

apur (apurtu, apurtze): destrozar; **aurrerakuntza**: adelanto, progreso; **bakar**: único; **balio izan**: valer; **bider**: vez; **desegin** (desegite): deshacer; **harrigarri**: asombroso; **ikaragarri**: temible, enorme; **ugari** (ugaritu, ugaritze): aumentar, multiplicar.

29

BEGIEN BAINUA

Begien bainua? Bai, jauna. Begientzat ere bainua dago. Eta begien bainua ona da. Gehienetan gu bainatzen gara. Begiak ez dira bainatzen. Begiak itxi egiten ditugu. Baina begiek ere bainua behar dute. Nola? Entzun!

Ontzi batetan ur hotza edo epela daukazu. Bekokia eta aurpegia sartzan dituzu. Begiak zabalik eduki behar dituzu. Ezin duzu? Bai, gizon! Segundu batzutan egon barruan, eta kanpora. Har arnasa, kliska begiak, eta berriro barrura. Egin zenbait aldiz prozesu hori, eta gero lehor begiak.

Begien bainu horrek zer egiten du? Odolaren zirkulazioa gehitu, arindu. Bainu hori lasaigarri eta tonifikante ederra da begientzat. Bista indartzen du, nekea arintzen du, begien makaltasuna kentzen du, eta abar. Egin aproba, eta orduan berba egingo dugu.

aldi: vez; **aproba egin**: probar, ensayar; **arin** (arindu, arintze): aligerar; **bekoki**: frente; **eta abar**: etcétera; **gehi** (gehitu, gehitze): aumentar; **gehien**: lo más; **indar** (indartu, indartze): fortificar; **kanpo**: fuera; **kliska** (kliskatu, kliskatze): parpadear, pestañear; **lasaigarri**: relajante, sedante; **lehor** (lehortu, lehortze): secar; **makaltasun**: debilidad; **neke**: fatiga, cansancio; **odol**: sangre; **zenbait**: alguno.

30 KASUALITATEA ALA DEABRUA?

Filme batek *The Exorcist* dauka izena. Erdaraz *El Exorcista*. Fama eduki du behintzat. Deabrurik ba dago ala ez dago? Filme honen inguruan gauza arraroak gertatu dira.

Filmea Hollywoodeko estudio batzutan egin da. Estudioak suak hartu ditu, eta dekorazio guztiak erre. Filmeko protagonista femeninoak, Linda Blair andreak, gaitz psikiko handiak sufritu ditu. Sabeleko umea galdu du. Gero istripu gogor batzu sufritu ditu, eta azkenean ospitalera eraman dute.

Talde tekniko eta artistikoko pertsona batzu hil egin dira. Oraindik ez dakigu zergatik. Filmean jesuita batzu ibili dira, eta hauei ere zoritxarrak etorri zaizkie.

Filmea teatroan ere eman da. Antzerkia Londresen estreinatu da. Eta protagonista femeninoa estreinaldian hil da. Entseuetan ere gauza harrigarriak jazo dira.

Zer da hau guztiau? Kasualitatea? Arrazionalki horrela pentsatu behar da. Baina batzuk ez dute uste horrela, eta deabruaren existentzian pentsatzen hasi dira. Motiboak ez zaizkie falta.

antzerki: teatro; **arrazionalki:** racionalmente; **azken:** último; **behintzat;** por lo menos; **deabru:** diablo; **entseiu:** ensayo; **erre** (erretze): quemar; **estreinaldi:** estreno; **falta izan:** faltar; **gaitz:** mal, dolencia; **gal:** (galdu, galtze): perder; **gogor:** duro; **harrigarri:** asombroso; **hil** (hiltze): morir; **inguru:** contorno, alrededor; **istripu:** accidente; **jazo** (jazotze): suceder; **oraindik:** todavía; **sabel:** vientre; **su:** fuego; **talde:** grupo; **uste izan:** opinar, creer; **zoritxar:** desgracia.

31 ZAHARRA IZATEA TRAGEDIA OTE DA?

Espanian hirugarren adina miseriaz beterik dago. Gizarte industrialak produkzioa nahi du. Zaharrek gutxi produzi-

tzen dute. Gaur zaharra izatea tragedia da Espainian. Zaharrek bizi nahi dute, baina ez daukate hortarako gogo handirik.

Hirurogei ta bost urtetatik gora, milioi bat eta erdi zaharrek ez dute ezer kobratzen kutxa publikotik. Hala ere, bizi gura dute. Baina, hortarako, lan egin behar miserableen moduan. Edo kalean dirua eskatzen hasi behar. Eskale asko daude Espainian. Zenbat? Hirurogei milatetik gora. Hori Osasun Ministraritzaren ustez. Hortik gora zenbat? Milioi erdi pentsionista bakarrik daude. Eta hauek miseria bat kobratzen dute.

Beste aldetik, sexua ez da zahartzen. Urteekin aldatu egiten da, baina zahartu ez. Baina zaharren sexualitatea pertsegiturik dago. Baztertu egiten da. Edo barre egiten zaio. Zaharren artean, emakumeak asko masturbatzen dira: ehuneko hirurogei (60%). Eta ehuneko sei (6%) homosexual egiten dira. Gizonak pornografiara, liburu erotikoetara eta exhibizionismora pasatzen dira. Hortik «agure berdea».

adin: edad; **agure:** viejo, anciano; **alda** (aldatu, aldatze): cambiar; **alde:** lado; **barre egin:** reir, burlar; **bazter** (baztertu, baztertze): marginar; **eskale:** mendigo, pedidor; **gizarte:** sociedad; **gogo:** gana, deseo; **hala ere:** sin embargo; **ministraritza:** ministerio; **osasun:** salud; **urte:** año; **uste:** opinión; **zahar** (zahartu, zahartze): envejecer.

32

ABERTZALE IZAN ETA KARLISTA HIL

Bi gizon oso lagunak dira. Gerran batera ibili dira. Eta gero ere beti batera dabilta. Biak abertzale beroak dira. Tabernazaleak ere bai. Beti gauza berdinak esaten ari dira, eta ez dira inoiz aspertzen.

—Noiz hilko ote da Franco?

—Gu lehenago hilko gara.

Eta horrela egunero. Egun batetan bietatik bat ez dator tabernara. Gaixorik dago. Laguna egunero joaten da beraren etxera. Baina gaixoa ez da osatzen.

—Nire pena bakarra Francoren aurretik hiltzea da —esaten dio gaixoak lagunari.

—Ez, gizon! Zu ez zara hilko. Zer egingo dut nik zu gabe? —erantzuten dio lagunak. Baina gizona hurrengo egunean hilko da.

—Karlista egin naiz —esaten dio gaixoak bezperan.

—Nola karlista? —erantzuten dio lagunak—. Bizitza guztian abertzale izan, eta karlista hil?

—Horrexegatik hain zuzen. Hobe da karlista bat hiltzea eta ez abertzale bat.

abertzale: patriota; **asper** (aspertu, aspertze): aburrir; **bakar:** único; **batera:** a una, a la vez; **bizitza:** vida; **egunero:** diariamente, todos los días; **gabe:** sin; **hain zuzen:** precisamente; **hil** (hiltze): morir; **hobe:** mejor; **horrela:** así, de ese modo; **hurrengo:** siguiente; **inoiz:** nunca; **osa** (osatu, osatze): curar; **zale:** aficionado.

33

ARRANTXOAGATIK HIL

Mariano Martínez soldadu bat da. Hamazortzi urte dauzka, eta Guadalajarakoa da. Nekazaria eta nekazarien semea da. Cáceresera destinatu dute, eta orduan hemeretzi urte dauzka. Mariano ez dago pozik. Arrantxo txarra ematen dute koartelean. Mariano ez dago gose da. Eskutitz bat idazten du. Nori? Bere lehengusu bati.

Eskutitzak zentsuratu egiten dira koartelean. Marianok ez daki hori. Eta hemen hasten dira Marianoren kalamitateak. Komandante zentsoreak gobernadore militarri, honek juezari, eta horrela. Prozesua irekitzen da. Deklarazioak hartu dira, herrira informeak eskatu dira, eta prozesua aurrera doa. Mutila gartzela probintzialera pasatzen dute.

Prozesua erdi geldi dago urte betean. Halako batetan, juez

instruktoare berriak kasua hartzen du, eta judizioa egingo da. Fiskaleak heriotza eskatzen du. Marianori komunikatu nahi diote. Ba doaz gartzelara. Baina Mariano hilda dago. Lau hilabete lehenago hil da. Urte bete ta erdi egon da preso. Historia triste hau 1941.ean gertatu da. Mariano tristuraz eta penaz hil da.

gartzela: cárcel; **geldi:** quieto; **gose izan:** estar hambriento, tener hambre; **halako batetan:** en una de éstas; **heriotza:** muerte; **hil (hiltze):** morir; **hilabete:** mes; **ireki:** abrir; **lehengusu:** primo; **nekazari:** agricultor; **pozik:** alegremente, contento; **urte:** año.

34 GIZON JAIKO ETA EMAKUME HIL

Frantzian ere gauza arraroak gertatzen dira. Poliziak mutil gazte bat detenitzen du. Mutila Pierre deitzen da. Hogeita bost urte dauzka. Eta ezkondua dago. Norekin? Marie bere emaztearekin. Honek hogeita hamabost urte dauzka. Hau ere detenitzen du poliziak.

Pierre eta Marie legez ezkondua daude. Marie gizon jaio da. Baina sexua operatu du. Eta Frantziako autoritateek eme bezala aitortu dute. Zergatik detentitu ditu poliziak? Pierre eta Mariek haur bat adoptatu nahi izan dute. Horregatik detentitu ditu poliziak.

Pierre eta Mariek ezin dute adoptatu umerik. Hortarako Frantziako legean, batek ar jaio behar du, eta besteak eme. Baina Marie gizon jaio da. Biak gizon jaio dira. Horregatik, legearen aurrean sekuestro bat egin gura izan dute. Eta barrura. Hauek ezin dute inoiz haurrik adoptatu. Eta horrela heriotzararte. Edo beste lege berri batetararte.

aitor (aitortu, aitortze): declarar, reconocer; **ar:** macho; **beziala:** como; **eme:** hembra; **ezkon** (ezkondu, ezkontze): casar; **heriotza:** muerte; **jaio** (jaiotze): nacer; **lege:** ley.

MIN GABÉ ERDITZEA TXARRA OMEN DA

Zer da erditzea? Erditzea ume egitea da. Emakume batek nahiz animalia batek ume egitea. Erditzea mingarria da. Min horrek izen polit bat dauka euskaraz: erdimina. Min hori kentzea ona ote da? Amarentzat bai. Baina haurrentzat?

Hortarako, anestesia erabiltzen da. Injekzioak ematen dira. Eta hau da nobedadea. Anestesiak ondorio txarrak dauzka haurrentzat. Erditze naturala hobea da. Erditze mingabeak anomalia gehiago dakartza. Anomalia hoik non agertzen dira? Haurraren portaeran, hizkeran, ikaskuntzan eta beste zenbait gauzatan.

Ipar Amerikako mediku akademia batek estatistikak egin ditu, eta konklusio hori atera du. Espainian hamarretatik zazpi emakume anestesiaz erditzen dira. Eta Espainian subnormalen indizea, subnormalen proportzioa munduko handiena da. Arrazoa ote daukate amerikarrek?

arrazoi: razón; **gehiago:** más; **hizkera:** manera de hablar; **hobe:** mejor; **ikaskuntza:** estudio; **mingabe:** indoloro; **mingarri:** doloroso; **ondorio:** consecuencia, efecto; **portaera:** comportamiento, conducta; **zenbait:** alguno.

HAURREN EGOERA NEGARGARRIA

Napolin ume askok lan egin behar dute. Haur asko barmanak eta kontrabandistak dira. Gaztetxo asko prostituitu egiten dira. Hori da Napoliko tragedia. Eta ez Napolin bakarrik. Italia osoan milioi bat haur ez doa eskolara. Ehuneko hogeita hamar (30%).

Kalifornia aberatsean, ume beltzek kaleak garbitzen dituzte, eta ume zuriek fotomodelu bezala lan egiten dute, cowboy

jantziekin. Haur beltzek oporraldietan lan egiten dute. Lan apala eta gogorra. Haur zuriak beren karrerak egiten ari dira.

Bolivian, hiru edo lau urtetako haurrek ganadua zaintzen dute. Edo lurra eramaten dute, eta eguzkitan adreiluak egiten dituzte. Kolombian taldeetan dabilta. Hamar edo hamabost ume, talde bakoitzean. Zer egiten dute? Ohostu edo kalean kantatu edo limosna eskatu.

Mauritanian oraindik esklabutza aurrera doa. Emakume esklabuak baimena behar du ezkontzarako. Umeak ere ugazabarenak dira. Ugazabaren haurra eskolara, eta esklabuarena lanera. Negargarria da benetan ume askoren egoera!

aberats: rico; **adreilu:** ladrillo; **apal:** bajo, humilde; **baimen:** permiso; **bezala:** como; **egoera:** situación; **esklabutza:** esclavitud; **ezkontza:** casamiento, matrimonio; **gogor:** duro; **Napoli:** Nápoles; **negargarri:** deplorable, lamentable; **ohos** (ohostu, ohoste): robar; **oporraldi:** tiempo de vacación; **oraindik:** todavía; **zain** (zaindu, zaintze): cuidar, vigilar.

37 LAN GABE DIBORTZIORIK EZ

Ez daukazu lanik? Orduan ezin zara dibortziatu. Savonako tribunalak sententzia hori eman du. Nori? Zer gertatu da?

Mauro Rossi eta Silvia Dalmasso ezkondu daude. Senar-emazteak dira. Maurok hogeitasei urte dauzka, eta Silviak hogeitasei ta bi. Biak gazteak dira oraindio. Hirurogei ta hamaseigarreneko (1976.eko) martxoan ezkondu dira.

Urte bete aparte bizi dira. Biak daude geldi, eta ez daukate lanik. Horregatik, ez bata ez besteak ezin dio jatekoa pagatu elkarri. Horregatik ezin dira dibortziatu. Arrazoi hori eman du juezak, eta ukatu egin die separazioa. Sententziaren arrazoa harrigarria da.

«Zer izango da emakume gazte horren geroa?» esan du juezak. «Zer egingo du diru barik eta senar barik? Prostituzioan sartu behar.»

Horregatik ez dago dibortziorik. Juezarentzat ez dago beste alternatibarik. Lan gabe ezin da dibortziatu. Dibortzioak Italian ere ba dauka nahiko lan oraindik.

barik: sin; **ezkon** (ezkondu, ezkontze): casar; **gabe:** sin; **geldi:** quieto, parado; **harrigarri:** asombroso; **oraindik:** todavía; **oraindio:** todavía; **uka** (ukatu, ukatze): negar.

38 SENDAGILE MIRAGARRIA

Sendagileak sendatu egiten du. Eta zer da sendatzea? Osasuna ekartzea. Nork egiten du hori? Medikiak eta sendagileak. Medikua bat da, eta sendagilea beste bat. Sendagilea «curandero» deitzen da gaztelaniaz.

Italiako Bari hirian, holako sendagile batek lan egiten du ospitalean. Ospitaleko zuzendariaren baimena dauka. Zer egiten du? Gaixo asko osatu, gaixo askori osasuna eman. Baina mediku askoren protestak sortu ere bai. Mediku batek bere bata zuria utzi du, eta ospitaletik joan da.

Nola sendatzen ditu gaixoak? Pronoterapia egiten du. Zer da izen arraro hori? Eskuzabala edo ahurra gaixoaren gorputzetik pasatzea: horixe da pronoterapia.

Baina ez du gorputza ukitzen. Bere fluxu misterioa irradiatzen du. Horixe bakarrik egiten du. Kasu batzutan erresultatu onak eman ditu. Beste batzutan ez hainbeste. Eta zenbat irabazten du? Ezer ere ez. Ez du lira bat ere kobratu. Sendagile miragarria benetan!

ahur: palma de la mano; **baimen:** permiso; **gaztelania:** lengua castellana; **gorputz:** cuerpo; **hainbeste:** tanto; **hiri:** ciudad; **holako:** como ése; **miragarri:** admirable, maravilloso; **osa** (osatu, osatze): curar; **osasan:** salud; **senda** (sendatu, sendatze): curar; **sor** (sortu, sortze): crear, originar, **uki** (ukitu, ukitze): tocar; **zuzendari:** director.

Jauregi batetako sala bikain bat. Roseberyko kondea da jauregiaren jabea. Orain arte, sala hortan, bilarrera jokatu du kondeak. Orain bilar mahaiaren lekuan hogeita bost koltxone-ta ipini ditu. Berrogei ta hamar gazterekin sekta bat egin du. Sekta hau *Argi aroa* deitzen da.

Sektaren sesio bakoitzean, bi bider lebitatzen dira. Lurretik oin bat eta erdi goratzen dira, eta pausoak aurrerantz ematen dituzte. Gero koltxoneten gainera jaisten dira, eta horrela ez dute minik hartzen.

Sekta hau Ingalaterratik Europara etorri da. Beste talde asko bezala, ondo finantziaturik etorri da. Gazte asko arrastatzen du. Nondik edo handik, jendeak irteera bat nahi du.

Talde hauk Frantzian eta Alemanian batez ere gehitu dira. Alemaniako herri batetan, bederatzehun (900) sektakide suizidatu dira. Baina jendea ez da atzeratzen.

Ingeles inbestigadore batek hau dio: «Supermerkatu izpiritual bat dago orain. Negozio izpiritual haundi bat. Jendeak segurtasun fisikoa lortu gura du. Baina hortarako, lehenbizi, segurtasun izpirituala bilatu nahi du.»

aro: era, época; **atzera** (atzeratu, atzeratze): retroceder; **bakoitz:** cada uno; **batez ere:** sobre todo; **bezala:** como; **bider:** vez; **bikain:** excelente, magnífico; **bila** (bilatu, bilatze): buscar; **gehi:** (gehitu, gehitze): aumentar; **gora** (goratu, goratze): elevar; **irteera:** salida; **jabe:** dueño; **jaits** (jaitsi, jaiste): bajar; **jauregi:** palacio; **lehenbizi:** primeramente; **leku:** lugar, sitio; **lor** (lortu, lortze): lograr, conseguir; **lur:** tierra; **nondik edo handik:** de alguna parte; **oin:** pie; **pauso:** paso; **segurtasun:** seguridad; **sektakide:** correligionario, compañero de secta; **talde:** grupo.

Txilen seihun mila haur kalean dabilta. Gosea, eta eskolarik ez. Zerbait egin behar, eta kalean hara eta hona. Haurren mortalitatea milatatik hirurogei ta hamazazpi koma sei (77,6)

da. Beraz, hamahiru bizirik jaio, eta bat hil. Hori zifra ofiziala. Desnutrizio edo elikadura txarrak ehuneko berrogei ta hiru (43%) harrapatzen ditu.

Organismo internazionalen ustez, bi mila ta bostehun lagun galdu dira. Noiztik? Pinocheten kolpetik. Eta barregerria da gero! Zortzi urtetako haur bat ezin da Txilera etorri «segurtasunezko arrazoiengatik».

Kultura lurpean dago, sator zuloan. Itzalita dago. Víctor Jara kantariaren kaxeteak, adibidez, debekaturik daude. Pablo Nerudaren azken liburua ere (*Confieso que he vivido*) debekatu dago. Baina txisteak, karikaturak, parodiak eta abar ugaritu egin dira diktatorearen kontra. Kontrakultura hortan emakumeek parte handia daukate. Presoen eta desagertuen emazteek folklore talde bat egin dute. Horrela bizi da Txileko herria. Noiz arte, Pinochet?

adibide: ejemplo; **azken:** último; **barregerri:** ridículo, risible; **bizirik:** en estado vivo; **debeka** (debekatu, debekatzte): prohibir; **desager** (desagertu, desagertze): desaparecer; **elikadura:** alimentación; **eta abar:** etcétera; **gal** (galdu, galtze): perder; **gose:** hambre; **harrapa** (harrapatu, harrapatze): coger, atrapar; **jaio** (jaiotze): nacer; **lagun:** individuo; **lurpe:** lugar subterráneo, bajo tierra; **sator:** topo; **segurtasun:** seguridad; **ugarri** (ugaritu, ugaritze): aumentar, multiplicar; **uste:** opinión. **zerbait:** algo; **zulo:** agujero.

41 LOKATZA ETA OSASUNA

Lurra guztiz ona da osasunerako. Lurrak energia guztiak hartzen edo absorbitzen ditu. Lurra energia naturalen kutxa edo buzoia da. Lurra urarekin nahasten da, eta lokatza egiten da. Lokatza horixe da: lurra eta ura batera. Basa, lupe-tza, lohia eta abar ere esaten da. Lurra oso ona da. Ura ere bai. Beraz, lokatza bi bider ona izan behar.

Zauri, erretura eta kolpeentzat lokatza onena omen da. Desinflamatu egiten du, garbitu, zikatrizatu, konplikazioak moztu eta mina kendu.

Larruan lokatza ematea eta lehortzen uztea oso ona da. Azala barrutik garbitzen du, zikinak edo gauza txarrak txupatzen ditu. Aurpegian ematen da, eta azala garbi, fresko eta gazte mantentzen du. Lokatza irenstea ere guztiz ona ei da. Hesteak eta digestio sistema osoa garbitzen omen du.

azal: superficie exterior; **batera:** a una, a la vez; **bider:** vez; **erretura:** quemadura; **eta abar:** etcétera; **heste:** intestino; **irents** (irentsi, irenste): tragar; **larru:** piel; **lehor** (lehortu, lehortze): secar; **manten** (mantendu, mantentze): mantener; **motz** (moztu, moztze): cortar; **nahas** (nahastu, nahaste): mezclar; **osasun:** salud; **zauri:** hērida, llaga; **zikin:** suciedad.

42 GORPUTZAK ERE ARNASA HARTZEN DU

Gizonaren biologia airezkoa da. Gizonak azala dauka. Azala dauka gorputz guztian. Azal honek milioika eta milioika dauzka poroak edo zulotxoak. Zulotxo hoiien bidez kanpoko materialak eta energiak hartzen ditu. Azalak absorbitu egiten du, oxigenoa hartzen du. Bigarren birika bezala da. Horregatik azala edo larrua ondo bentilatu behar da.

Azalak bota ere egiten du. Izerdia eta organismoaren zikinak botatzen ditu. Hortarako, odolak ondo zirkulatu behar du. Eta, hortarako, atmosfera behar da. Airea behar da. Azalaren bentilazioa oso inportantea da. Aireak mesede handia egiten du azalean.

Gainera, azalaren bentilazioak katarro eta horrelakoen kontra prebenitzen du. Gorputza beti estalita edukitzea edo arropa askorekin ibiltzea ez da ona. Gorputzak ere arnasa hartzen du. Utzi egin behar zaio gorputzari arnasa hartzen. Bestela, ez ditugu katarroak prebenituko. Katarro gehiago harrapatuko ditugu.

arnasa: aliento; **azal:** superficie exterior; **bestela:** de otro modo, si no; **bezala:** como; **bide:** camino, medio; **birika:** pulmón; **bota** (botatze): echar, arrojar; **estal** (estali, estaltze): cubrir, tapar; **gainera:** además; **gorputz:** cuerpo; **harrapa** (harrapatu, harrapatze): coger, atrapar; **kanpo:** fuera; **larru:** piel; **odol:** sangre; **zikin:** suciedad; **zulo:** agujero.

Lehen eta orain, Espainiako nekazaritzaz estudio ofizialak egin dira. Hitz ederrak. Orduan eta gaur, gauzak berdin berdin daude. Ez da ezer egin. Baina gaur agrabante bat dago. Gaur nekazariak gutxiago dira, baina lur landua ere gutxiago da. Lur gutxiago eta proportzioz nekazari gehiago. Sei milioi lagun, eta denek jan behar dute.

Egoera hau guztiz grabea da. Lur asko desertu bihurtu dira. Lur disponiblea oraindik planifikaziorik gabe dago. Inbertsio publikoak geroko uzten dira beti. Francoren garaia bukatu da, eta beste etapa batetan bizi omen gara. Baina nekazaritzan ez da oraindio ezer ikusi. Dena dago lehen bezala.

Hau guztiau ez dugu guk asmatu. Hau guztiau Banco de Bilbaoko estudioek esaten dute.

asma (asmatu, asmatze): inventar; **bihur** (bihurtu, bihurtze): volver, convertir; **buka** (bukatu, bukatze): acabar, terminar; **egoera**: situación; **gabe**: sin; **garai**: tiempo, época; **lagun**: individuo; **lan** (landu, lantze): cultivar, elaborar; **lehen**: antes; **oraindik**: todavía; **oraindio**: todavía; **nekazari**: agricultor; **nekazaritza**: agricultura.

Erlojuak denbora neurtzen du. Segunduak, minutuak, orduak eta egunak neurtzen ditu. Gaur erlojuak asko eboluzionatu dira. Kalkulu erlojuak eta irrati erlojuak agertu dira. Eta orain dator handiena: gezurren erlojua. New Yorken asmatu dute erloju berri hau. Erloju honek gezurrak harrapatzen ditu. Piezatxo bat dauka erlojuak, eta piezatxo horrek gezurra detektatzen du. Nola?

Gure ahotsak tentsio bat dauka. Tentsio honek maila oso desberdinak dauzka. Bariazio handiak. Gezurrak bariazio bat dauka. Egiak beste bat. Gure belarriek ez dute igartzen bariazio

bien arteko diferentzia. Gainera, pertsona batzuk oso ondo dakite disimulatzen. Baina tresnatxo horrek dena harrapatzen ei du. Eta gero aurpegi elektronikoa batetan indikatzen omen du. Erloju hau laster egongo ei da prest.

ahots: voz; **asma** (asmatu, asmatze): inventar; **den:** todo; **desberdin:** desigual, diferente; **ei:** según dicen; **gezur:** mentira; **harrapa** (harrapatu, harrapatze): coger, atrapar; **igar** (igarri, igartze): acertar, percibir; **maila:** grado; **neur** (neurtu, neurtze): medir; **prest:** presto, a punto; **tresna:** aparato, instrumento.

45 BERRIATUARRA AMERIKETAN

Berriatu Bizkaiko herri bat da. Markinatik Ondarroara birtartean dago. Inguru hortatik jende asko joaten dira Ameriketara. Gehienak artzain joaten dira. Berriatuarra ere Ameriketara doa.

Ameriketean urte batzu egin ditu, eta etxera etortzea pentsatzen du. Etxera bihurtu behar du, eta erregaluak erosten ditu. Gauza asko erosten ditu: erlojuak, eraztunak, kateak eta abar. Etxera eta herrira erregalu asko eramatea pentsatzen du.

—Zergatik ez duzu irrati bat ere eramaten? —galdetzen dio lagun batek.

—Zertarako irrati? Han ez daki inork ingelesez —erantzuten dio berriatuarrak.

Beste bizkaitar bat ere Ameriketatik dator. Etxeen izenak, lagunaren izenak eta beste gauza asko ahanztu zaizkio.

—Burua galdurik etorri ote zara? —galdetzen dio lagun batek.

—Bai. Izenak eta holakoak buruan utzi ditut.

—Eta hankak nola ekarri dituzu?

—Hankak, berak etorri dira.

—Eta zu?

— Ni Ameriketara noa berriro.

ahantz (ahanztu, ahanzte): olvidar; **artzain**: pastor de ovejas; **bihur** (bihurtu, bihurtze): volver; **bitarte**: intermedio; **eraz-tun**: anillo; **eta abar**: etcétera; **gal** (galdu, galtze): perder; **galde** (galdetu, galdetze): preguntar; **gehien**: lo más; **hanka**: pierna; **holako**: como eso; **kate**: cadena.

46

ZARATEN KALTEAK

Frantzian estudioak egiten dituzte. Zaraten kalteak inbestigatu dituzte. Eta konklusioak atera dituzte. Zarata edo hots handiaz, zaila da lo egitea. Hori ba dakigu. Baina ohitura hartzen da, eta lo egiten da. Gorputza, ordea, ez da inoiz ohitzen. Tentsio arteriala igoten da. Bihotzaren eta arnasaren erritmoa azeleratzen da. Eta odolean hormonon sekrezioa gehitzen da.

Zaratak edo hotsak efektu txarrak dauzka psikismoan. Zarata inpultsiboak daude. Adibidez, untzigintzan. Untzigintzako langileek huts edo errore gehiago daukate. Istripuak ere gehiago dira. Zaraten eta gortasunaren korrelazioa ezaguna da. Zaratak gortasuna dakar. Hori argi dago. Baina zaraten efektu hormonalak oraindik ez daude hain argi. Zaraten kalte haundia bai, hori argi dago. Hori diote Frantziako zientziz gizon batzuk.

adibide: ejemplo; **arnasa**: aliento; **bihotz**: corazón; **ezagun**: conocido; **gehi** (gehitu, gehitze): aumentar; **gorputz**: cuerpo; **gortasun**: sordera; **hain**: tan; **hots**: ruido; **inoiz**: nunca; **istripu**: accidente; **kalte**: perjuicio, daño; **langile**: trabajador, obrero; **odol**: sangre; **ohi** (ohitu, ohitze): acostumar; **ohitura**: costumbre; **untzigintza**: construcción naval; **zail**: difícil.

47

HAURRAK PUNTUALKI MUNDURA

Silvia Pertini emakume bat da. Italiako Toscanakoa da, eta hogei ta hamabost urte dauzka. Eta berriro ere berea egin du.

Laugarren umea urtarrilaren hamahiruan jaio da. Beste hirurak ere urtarrilaren hamahiruan jaio izan dira. Nola eduki du zorte hori? Ez da, ez, kasualitatea izan. Programazio zorrotzaren fruitua izan da.

Programazio hortan senarrak ere bere parte eduki du. Hori esan beharrik ez dago. Zer sistema erabili dute hortarako?

«Oso sinplea da sistema», dio andreak. «Lehenbizi jaiotz eguna hautatu dugu. Eta, gero, berrehun eta laurogei ta hamar egun lehenago egin dugu bestea. Eta honelaxe jazo da.»

Eta programazio horren arrazoia?

«Toscanarren puntualitate eta organizazioak —dio andreak— estimazio handia daukate mundu guztian. Guk demostratu gura dugu kualitate horren indarra.»

Hortarako, puntuala izan behar du gogoak. Baina organismoak ere bai.

fruitu: fruto; **gogo:** mente; **hauta** (hautatu, hautatze): elegir; **honela:** así, de este modo; **indar:** fuerza; **jaio** (jaiotze): nacer; **jaiotza:** nacimiento; **jazo** (jazotze): suceder; **lehen:** antes; **lehenbizi:** primeramente; **zorrotz:** agudo, severo, estricto; **zorte:** suerte.

48

HILEZKORRAK ERE HIL

Iraneko goardia inperialak famatuak dira. «Hilezkorrak» deitzen dira. Egunean zenbait aldiz «gora Sha!» esaten dute. Manifestazio baten aurka tiroka hasi dira. Sha Marrokon dago, eta beraren goardiak dira orain legalitatea.

Soldadu inperialak errenditu egin dira. Baina berandu da. Orain beranduegi da. Herritarrak kalerik kale dabiltza. Armak militarrei konfiskatu dizkiete, eta elkarri ematen ari dira. Soldaduok beren uniformeak botatzen dituzte. Estoldetan behera

botatzen dituzte. Eta herritar janzten dira. Krabelin bat daramate eskuan edo fusilean.

Non daude soldadu inperialak? Teheraneko ospitale batetan berrogei ta hamar soldaduren gorpuak aurkitu dituzte. Nortzu dira? «Hilezkorrak» dira. Gizon hauek jende asko hil dute. Hortarako lizentzia eduki dute. Baina herritarrek ezagutu egin dituzte, eta hil ere bai. «Hilezkorrak» hil!

Baina, zuok «hilezkorrok», egon lasai! Khomeinik errezatu-ko du zuon alde.

alde: a favor; **aldi:** vez; **aurka:** contra; **bota** (botatze): echar, arrojar; **erreza** (errezatu, errezatze): rezar; **esku:** mano; **estolda:** alcantarilla; **ezagut** (ezagutu, ezagutze): conocer, reconocer; **gorpu:** cadáver; **herritar:** ciudadano; **hil** (hiltze): matar, morir; **hilezkor:** inmortal; **krabelin:** clavel; **lasai:** tranquilamente, anchamente; **Marroko:** Marruecos; **zenbait:** alguno.

49

GIZONAK BILUZIK

Pintore onak bizi izan dira eta bizi dira munduan. Askok biluzik pintatu dute emakumea. Koadro famatu asko daude emakume biluziekin. Baina gizonik ez dute biluzik pintatu. Edo oso gutxi. Hori normala da. Pintore gehienak gizonezkoak dira. Horrexegatik ez dute gizonik biluzik pintatu.

Orain emakume batek tradizio hori hautsi du Parisen. Cristina Rubalcaba deitzen da, eta mexikarra da bera. Zer egin du? Emakume biluzien koadro famatuak birpintatu ditu, baina gizon biluziekin.

Honela, Rubens pintorearen *Hiru graziak* hiru zirkulazio agente dira Cristinaren koadroan. Manet pintorearen *Olympia* enpresa batetako zuzendari nagusia da. Eta Goyaren *Emakume biluzia* harakin bat da.

Koadro hauetan gizona nahiko lotsagarri gelditzen da. Zer nahi du pintoresa horrek? Beharbada, adarra jo. Eta hori eder-

ki lortu du. Pintura bezala, ongi ote dago hori egitea? Hori beste gauza bat da. Emakumeen antzera gizona pintatzea barre-garria da, bai. Horregatik Parisen eskandalua izan da.

adar: cuerno; **antzera:** parecidamente, de manera parecida; **barregarri:** ridículo, risible; **biluzi:** desnudo; **biluzik:** desnudamente, en cueros; **gehien:** lo más; **geldi** (gelditu, gelditze): quedar; **gizonezko:** varón; **hauts** (hautsi, hauste): pulverizar, romper; **honela:** así, de este modo; **jo adarra:** pegar el cuerno, hacer sonar el cuerno, tomar el pelo; **lor** (lortu, lortze): lograr, conseguir; **lotsagarri:** vergonzoso; **nagusi:** superior, mayor, jefe; **zuzendari:** director.

50

HILEN BOTUAK

Hilen botuak agertu dira hemen. Aspaldion hainbat hauteskunde ikusi ditugu Espainian. Eta hilek ere parte hartu dute. Baina Ipar Irlandan kasu grabegoa gertatu da. Herri batzutan ehunetatik laurogei ta hamar (90%) botu ohostu dira.

Inbestigazioak egin dira, eta gauza bat agertu da. Zentsuko bulegoek ezin lortu izan dute hilen eta ospitalizatuen listarik. Nork egiten du hori? Anbulantzietako txoferrek. Txoferrak agintarien alde daude. Eta horrela hilek parra-parra ematen dute botua. Nortzu dabilta anbulantzietan? Postu hoietakoak Gobernuaren aldekoak dira.

Ba dakizue. Kolonietan hilek ere ez daukate bakerik. Ehortzaileek, gauez, defentuen urrezko hagin postizuak hartzen dituzte. Beste munduan zertarako dira haginak? Baina heriotza ostean ere Gobernuari eman behar botua? Hori larregi da. Hori gehiegi da. Ez duzu uste, lagun?

agintari: autoridad, gobernante; **alde:** a favor; **aspaldi:** tiempo pasado; **gehiegi:** demasiado; **hainbat:** mucho; **hauteskunde:** elección; **heriotza:** muerte; **larregi:** demasiado; **lor** (lortu, lortze): lograr, conseguir; **ohos** (ohostu, ohoste): robar; **oste:** parte posterior, después; **postu:** puesto; **urre:** oro; **uste izan:** opinar, creer.

Herriak aintzinatik daki gauza bat. Ur desizoztua eta ur normala ez dira berdinak. Izotza urtu egiten da, ur egiten da, desizoztu egiten da. Baina ur urtu hori, zenbait egunetan, ur diferentea da. Ur desizoztua eragile biologikoa da.

Ur horrekin hobeto eta lehenago ernetzen dira haziak. Ernamuinak ere gogorragoak dira. Oilaskoak ere ur horrekin gehiago hazten dira. Ur hori kimikariek estudiatu dute. Eta alterazioak aurkitu dituzte biskositatean. Egun batzu geroago, normaldu egiten da ura.

Zergatik jazotzen da hori? Oraindio ez dakite. Baina ba dauka izena: Uraren memoria estrukturala. Ur desizoztuaren misterioa, seguraski, hontan dago: molekulen estrukturan alterazioak daude.

Hipotesiak hortik doaz. Horregatik ba dakizu. Ur desizoztuak indar gehiago dauka. Beraz, gehiago loditzen du.

aintzina: antiguamente; **desizotz** (desizoztu, desizozte): deshelar; **eragile:** agente, estimulante; **ernamuin:** brote; **erne** (ernetze): brotar, germinar; **gogor:** duro; **haz** (hazi, hazte): crecer; **hazi:** semilla; **hobeto:** de modo mejor; **indar:** fuerza; **izotz:** hielo; **kimikari:** químico; **lehen:** antes; **lodi** (loditu, loditze): engordar; **oilasko:** pollo; **oraindio:** todavía; **seguraski:** seguramente; **ur** (urtu, urtze): derretir; **zenbait:** alguno.

Iparraldeko apez bat predikatzen ari da. Sermoia edo predikua gogorra da. Apeza bera ere gogorra eta handia da. Lau kintal inguru dauzka.

Mañañi izeneko atso bat negar eta negar ari da. Apezak ikusten du, eta pozik dago. «Sermoia ondo doa», pentsatzen du.

Irten da jendea elizatik, eta apezak apeztxera eramaten du Mañañi.

—Zergatik egin duzu, Maññi, hainbeste negar? —galdezen dio apezak.

—Jauna, lehengo egunean, erori egin da gure astoa. Ez dakizu?

—Bai, ba dakit, bai.

—Eta lepoko hezurra hautsi du.

—Ba dakit hori ere. Penagarria da.

—Eta hil egin da. Gure astoa hil egin da.

—Penagarria da hori, Maññi. Penagarria benetan.

—Eta gaur zure sermoia entzun dut, eta gure astoa arrantza-ka ikusi dut. Eta negarrari ezin eutsi izan diot, jauna.

Apezari ez zaizkio gustatu Maññiren azken berbak, eta laster bidali du atsoa bere etxera.

apez: cura; **arrantza:** rebuzno; **asto:** asno; **atso:** anciana, vieja; **eliza:** iglesia; **eror** (erori, erortze): caer; **euts** (eutsi, euste): aguantar, agarrar, sujetar; **gogor:** duro; **hainbeste:** tanto; **hauts** (hautsi, hauste): romper; **lehen:** antes; **lepo:** cuello; **penagarri:** penoso, lastimoso; **pozik:** alegrementemente, contento.

53 KONTUZ GAUZA BERRIEKIN!

Frantziako herri txiki batetan gizon bat hil da. Gizonak hogeita hamazazpi urte dauzka. Nola izan da haren heriotza? Entzun!

Gizona enplegu barik dago. Ez dauka lanik, eta larri dago. Herri hartan erresidentzia bat dago. Bertan psikoterapia egiten dute.

Psikoterapi sesioa taldeka egiten da. Gure gizona ere holako talde batetan sartu da. Dozena bat lagunek gizona bi mantaz biltzen eta bolteatzen dute. Teknika horrekin larritasuna kentzen ei da. Gizonak bere energia dauka. Baina energia hori

blokeaturik dago. Gizonak manta hoietan dantzaten du, eta energiak askatu egiten omen zaizkio.

Baina gure gizona bertan hil da. Zer jazo da? Zer gertatu da? Bihotzeko atakea? Inbestigazioak hasi dira. Gizon bat hil da. Lagunak libre utzi dituzte. Baina sistema terapeutiko horrek kolpe ederra hartu du. Kontuz nobedadeekin!

aska (askatu, askatze): soltar, liberar; **bihotz**: corazón; **bil** (bildu, biltze): envolver, recoger; **enplegu**: empleo; **heriotza**: muerte; **holako**: como ése; **larri**: apurado; **larritasun**: apuro, ansiedad; **talde**: grupo.

54

TANZANIA GIZONAREN SEHASKA

Noiz eta non hasi da bizitzen gizona? Ez dakigu. Baina gauzak argitzen ari dira. Gizona? Zer da gizona? Gizona zutik ibiltzen da, bi hankatan ibiltzen da. Horixe da gizona. «Homo erectus» deitzen zaio latinez. Gizona zutik.

Noiz hasi da gizona zutik ibiltzen? Noiz hasi da bi hankatan ibiltzen? Eta non? Inbestigatzaile askoren ustez, Tanzanian hasi da gizona bizitzen.

Tanzanian fosil asko aurkitu dira. Orain beste izaki bi agertu dira. Hautsezko zelai batetan agertu dira. Hauts hori bolkan batetatik etorri da. Izaki hoik kasualitate meteorologikoz kontserbatu dira. Zenbat urte dauzkate? Hiru milioi ta seiehun mila urte inguru.

Izaki hauk sakonki estudiatu dira. Izaki hauk aintzina zutik ibili dira. Orain arte «australopitekoa» izan da zaharrena. Orain zaharragoak agertu dira. Hiru milioi ta erdi urtetakoak. Nola kalkulatzeko da denbora? Hori beste gauza bat da. Baina kalkulatzeko da. Eta zuzen eta seguru gainera. Gizonok ez gara atzokoak.

aintzina: antiguamente; **argi** (argitu, argitze): aclarar; **atzo**: ayer; **denbora**: tiempo; **gainera**: además; **hanka**: pierna; **izaki**: ser; **sakonki**: profundamente; **sehaska**: cuna; **uste**: opinión; **zelai**: planicie; **zutik**: erectamente, de pie; **zuzen**: recto, rectamente.

Mairuak eta kristauak gerran dabilta Arabako Zaukulandan. Mairuak hiltzen dira, eta hurrengo goizean birpizturik agertzen dira. Zer egin? «Alferrik gabilitza», esaten dute kristauak.

Gau batez, kristauen mutil gazte bat bigilantzian gelditzen da. Gau erdian, atso ilezuri bat agertzen da lapiko handi batekin. Lapikoan bi hatz sartzen ditu, eta mairu hil bat birpizten du. Eta hala beste guztiak ere.

Mutila atzetik ixil ixilik doa. Eta zazt! bere lantza sartzen dio eta atsoa hiltzen du. Lapikoa hartzen du, zauria koipez igorzen du, eta atsoa birpiztu egiten da.

«Ez, mesedez!» esaten du atso birpiztuak. «Ez ni hil. Koipea zuretzat izango da.»

Mutilak beste zatzada bat ematen dio, eta han uzten du atsoa arnasa eta arima gabe. Kristauak gero mutilarekin berarekin aproba egiten dute. Hil, koipea eman, eta berriro bizirik. Hau da harrigarria! Zaukulandara doaz, eta kristau hil guztiak birpizten dituzte.

alferrik: inútilmente, en vano; **aproba egin:** probar, ensayar; **arima:** alma; **arnasa:** aliento; **atso:** anciana; **birpitz** (birpiztu, birpizte): resucitar; **bizi:** vivo; **harrigarri:** asombroso; **hatz:** dedo; **hil** (hiltze): morir, matar; **hurrengo:** siguiente; **igortz** (igortzi, igorzte): frotar, ungir; **ile:** pelo; **ixilik:** silenciosamente, en silencio; **koipe:** grasa; **kristau:** cristiano; **lapiko:** puchero, olla; **mairu:** moro; **miragarri:** maravilloso; **zauri:** herida; **zatzada:** punzada.

Amerikarrek unti bat bidali dute espaziora. Untzi hori Jupiterren ondotik pasatu da. Gero Saturnoraino helduko da. Astrountzi honek zortziehun eta hogeita hamar kilo dauzka. Jupiterren esplorazio harrigarria egin du. Eta Jupiterren ondoko ilargi baten argazkiak bidali ditu. Argazkiak argi argiak dira.

Nolakoa da ilargia? Ilargiak kaskete polarrak dauzka. Eta bolkanak martxan daude. Bolkanek laba botatzen dute. Ilargian labazko ibaiak daude. Ehun metrotako zabalera daukate ibaiek. Laba edo salda hori harri eginda dago. Gogortuta dago. Baina laba gaztea da. Ilargian bolkanak daude. Bolkanezko mendiak daude. Beraz, ilargia ere gorputz aktiboa da. Gure lurra bezala.

Astrountzi hori zenbat kostatu da? Laurehun milioi dolar. Hogei ta hamar mila milioi pezeta. Egunean ia milioi bat kilometro egiten du. Hamazortzi hilabete dabil martxan. Txori bizkorra. Baina ez merkea.

bota (botatze): echar, arrojjar; **gogor** (gogortu, gogortze): endurecer; **gorputz**: cuerpo; **harri**: piedra; **harrigarri**: asombroso; **hel** (heldu, heltze): llegar; **ilargi**: luna; **salda**: caldo; **zabalera**: anchura.

57

GIZONENTZAKO PILULA AURKITU DA

Emakumeentzako pilulak hor daude. Batzu onak, beste batzu ez hain onak. Denek daukate bigarren efekturen bat.

Eta gizonentzako pilula? Txinako medikuek pauso handi bat eman dute. Gizonentzako pilula bat atera dute. Ehuneko ehun efikaza. Eta, gainera, ez dauka efektu sekundariorik.

Antisorgarri hau nondik atera dute txinatarrek? Kotoitik atera dute. Landare honek hazia ematen du. Eta hazitik ateratzen da sustantzia hori. Txinako medikuek aprobak egin dituzte. Hiru mila gizonekin egin dituzte aprobak. Eta guztiz efikaza da.

Baina ez dute aurkikundeia dibulgatu gura. Beldur dira. Zeren beldur? Natalitatearen beldur dira. Gizonentzako antisorgarriekin guztik asko jaitsiko ei da natalitatea. Horren beldur dira Txinako medikuak.

Soluzio bat hau da: gizonentzako pipula dibulгатzea, eta emakumeentzako erretiratzea. Edo txandaka dibulгатzea.

antisorgarri: anticonceptivo; **aproba:** prueba, ensayo; **aurkikunde:** descubrimiento; **beldur izan:** ser temeroso, temer; **gainera:** además; **hain:** tan; **hazi:** semilla; **kotoi:** algodón; **jaits (jaitsi, jaiste):** bajar, descender; **landare:** planta; **pauso:** paso; **pilula:** píldora; **txanda:** turno.

58

HIPNOTISMOA INTERROGATORIOETAN

Hipnotismoa arma handia da. Gaixoen sendaketan erabilzen da, eta polizien inestigazioan ere bai.

New Yorken pauso handi bat eman dute. Hango poliziek hipnotismo zerbitzu bat jarri dute. Ekipo hori hipnotizadore ofizial batek zuzentzen du. Gizon horrek esperientzia aberatsak egin ditu.

Hipnotismoaren balio nagusia hau da: testiguen memoria argitu egiten du, testiguen oroimena indartu egiten du. Testigu batek, adibidez, dena dauka ahanztuta. Ezin du ezer gogoratu. Hipnotizatu egiten dute, eta haren memoria argitu egiten da. Orduan, izenak, matrikulak eta xehetasun guztiak esaten ditu.

Sistema honen efikazia argi dago. Eta denbora eta dirua aurreratzen dira. Baina sistema hau noren eskuan dago? Hor dago koska. Non gelditzen da askatasun indibiduala? Gauza argi dago. Testigu askok ez dute nahi tratu hori. Beraz, ezin zaie sistema hori aplikatu. Baina, zoritxarrez, munduan gauza asko eta asko egiten dira pertsonen nahiaren kontra.

aberats: rico; **adibide:** ejemplo; **ahantz (ahanztu, ahanzte):** olvidar; **argi (argitu, argitze):** aclarar, iluminar; **askatasun:** libertad; **aurrera (aurreratu, aurreratze):** adelantar, ahorrar; **balio:** valor; **den:** todo; **denbora:** tiempo; **esku:** mano; **gogora (gogoratu, gogoratze):** traer a la mente, recordar; **indar (indartu, indartze):** fortificar; **koska:** mella, dificultad; **nagusi:** superior, mayor; **oroimen:** memoria; **pauso:** paso; **sendaketa:** curación; **xehetasun:** detalle; **zerbitzu:** servicio; **zoritxar:** desgracia; **zuzen (zuzendu, zuzentze):** dirigir.

Peru eta Maria Bizkaiko Aulestin bizi dira, Solaun baserrian. Ume bat daukate, eta bera gaixorik. Handitu bat dauka, eta gaizki dago umea.

Mariak senarrari: «Peru, joan herriko dendara, eta ekar orratz handi bat.» Eta Peruk: «Alferrik, Maria Bidean ahanztuko zait.» Eta Mariak: «Ez, ez zaizu ahanztuko. Zuk esan “Mari Orratz, Mari Orratz”, eta ez zaizu ahanztuko.»

Peru ba doa, eta bidean txori bat txioka hasten da. Eta Peruri mandatua ahanzten zaio. Etxera itzultzen da, eta esaten dio Mariak: «Ai Peru tentela! Zuk esan beti “Mari Orratz, Mari Orratz”, eta ez zaizu ahanztuko.»

Peru ba doa berriro, eta erbi bat ikusten du sasi artean. Eta berriro ere ahanzten zaio mandatua. Etxera bihurtzen da, eta esaten dio Mariak: «Neu joango naiz. Zu egon hemen, eta jagon umea.»

Maria orratz bila joan da, eta Peru umea zaintzen gelditu da. Umeak negar eta negar egiten du. Ez du lo egin. Peruk handitua kentzea pentsatzen du. Horrela lo egingo du. Abarka eztena hartzen du, eta handituan sartzen du. Baina gehiegi sartu du, eta umea hil egin da.

Ba dator Maria, eta esaten dio senarrari: «Ai Peru, zer egin duzu?»

Eta Peruk: «Lo dago, Maria.»

Eta Mariak: «Ez, Peru. Hilda dago.»

Peruk eta Mariak negar eta negar egiten dute. Baina umea hilda dago, eta lurra eman behar zaio. Gauetz lurperatuko dute.

Gaua da. «Itx atea», esaten du Mariak. Peruk atea bizkarrean hartzen du. Eta Mariak: «Zer egiten duzu, Peru?» Eta Peruk: «Ez didazu hori esan, ba?» Mariak: «Ez, Peru. Nik “itx atea” esan dizut.» Eta Peruk: «Berdin da.»

Gaua iluna da. Joan eta joan, lapurren hotsa entzuten dute. Senar-emazteak tantai batetara igoten dira, ume eta guzti. Lapurrak, azpian, dirua kontatzen hasten dira.

Peruk Mariari: «Larri nago, Maria. Kaka egin behar dut.

Ezin dut agoantatu.» Eta hala egiten du Peruk. «Jainkoaren dohaina!» esaten dute azpian lapurrek.

Peru larri dago, eta zirina hasten da. «Jainkoaren olioia!» diote azpian lapurrek.

Azkenean atea ere erortzen da. «Jainkoaren zigorra!» esaten dute lapurrek. Dirua bertan uzten dute, eta ihes egiten dute arrapaladan.

ahantz (ahanztu, ahanzte): olvidar; **alferrik**: en vano; **arrapalada**: velocidad; **bide**: camino; **bihur** (bihurtu, bihurtze): volver, regresar; **bizkar**: espalda; **dohain**: don, regalo; **erbi**: liebre; **eror** (erori, erortze): caer; **ezten**: lezna; **gaizki**: malamente; **gehiegi**: demasiado; **handitu**: tumor; **hots**: ruido; **ihes egin**: huir; **itzul** (itzuli, itzultze): volver, regresar; **jagon** (jagote): cuidar, vigilar; **lapur**: ladrón; **larri**: apurado; **lurpera** (lurperatu, lurperatze): enterrar; **mandatu**: recado; **olio**: aceite; **orratz**: aguja; **sasi**: zarza; **tantai**: árbol alto; **tentel**: fatuo, tonto; **zain** (zaindu, zaintze): cuidar, vigilar; **zigor**: vara, palo, castigo; **zirin**: excremento líquido.

60

JIRAFEN ZORIONAK ETA ZORITXARRAK

Zorionaren beste aurpegia zoritxarra omen da. Ikus jirafak. Lepo luzeak gosea kentzen die. Jirafen janaria landareak eta orriak dira. Eta nor hel jirafen parera? Hor ez daukate konkurrentziarik. Hiru metrotatik gora, dena da haiena. Eta goiko adarrak eta hostoak onak dira. Jirafak ez dira inoiz gose. Gainera, goiko hostoak freskoak dira. Horregatik, jirafak ez dira inoiz egarri.

Lepo luzeak beste alderdi on bat dauka. Alturatik askoz gehiago ikusten da. Begiek panorama handia hartzen dute. Jirafen burua talaia bat bezala da. Animalia hauek bista luzea daukate, eta errez ikusten dituzte etsaiak. Hauk dira jirafen zorionak.

Baina ba daukate zoritxar handi bat. Ura edatea zail egiten zaie. Hortarako, jarrera bortxatua hartu behar dute. Jarrera hortan mobilitate guztia galtzen dute. Momentu hortan, jirafak

makalak dira arerioen aurrean. Orduan etortzen da lehoien eraso. Bestela, jirafak ondo defenditzen dira lehoien kontra. Momentu hortan, ordea, guztiz ahulak dira.

adar: cuerno de árbol, rama; **alderdi:** parte; **arerio:** enemigo; **askoz:** por mucho; **bestela:** de otro modo; **bortxa** (bortxatu, bortxatze): forzar; **den:** todo; **egarri izan:** estar sediento, tener sed; **eraso:** ataque; **errez:** fácil, fácilmente; **etsai:** enemigo; **gose:** hambre; **gose izan:** estar hambriento, tener hambre; **hel** (heldu, heltze): llegar; **hosto:** hoja; **janari:** alimento; **jarrera:** postura; **landare:** planta; **lehoi:** león; **lepo:** cuello; **makal:** débil; **ordea:** en cambio; **orri:** hoja; **talaia:** atalaya; **zail:** difícil; **zorion:** felicidad, dicha; **zoritxar:** desdicha.

61 IRLA BERRIA LAPIKOTIK

Lurra lapiko haundi bat da. Eta irakiten ari da. Bol-bol ari da barrutik. Lapikoa lehertzen da, eta mendiak agertzen dira. Irla bat ere bai.

Islandia oso hotza da. Dena da izotza eta lainoa. Baina lapikoa irakiten ari da Islandian.

Mila bederatziehun eta hirurogei ta hirugarrenean (1963.ean) gaude. Lapikoa lehertu egin da. Itsasoa ireki egin da. Erupzio harrigarria hasi da. Baporezko lainoak eta txorro beltzak. Mila ta ehun gradutako temperatura. Temperatura makala! Txorroa gelditu da. Eta, bat batean, haitzak irteten hasi dira. Haitzak gorantz eta gorantz. Eta, horrela, irla berri bat sortu da. Seiehun metro luze eta hirurogei altu. Irla berria Surtsey deitzen da.

Gero ere irla hortan erupzioak egon dira. Surtsey bizi da. Bai, bizi da. Eta dena lapikotik irten da. Hori ez da gertatu aintzina. Hori orain urte batzu jazo da. Hauxe da gure lurra. Lapiko haundi bat bol-bol. Lurraren sabela sua da.

aintzina: antiguamente; **bat batean:** repentinamente; **den:** todío; **haitz:** roca; **ireki** (irekitze): abrir; **irla:** isla; **izotz:** hielo; **laino:** niebla; **lapiko:** puchero, olla; **leher** (lehertu, lehertze): reventar; **makal:** débil, menudo; **sabel:** vientre; **sor** (sortu, sortze): crear, surgir; **su:** fuego.

Munduan lurralde harrigarriak daude. Brasil haundia da, oso haundia. Brasilgo Mato Grosso Estatuan lurralde haundi eta harrigarri bat dago. Udan, euria eta euria egiten du. Baina nola egin euria! Hura ez da euria egitea. Hura ura baldeka egitea da. Hura uholdea da.

Hirurehun mila kilometro koadratu urpean gelditzen dira. Zenbat da hori? Euskal Herri osoa hemeretzi bider. Eta dena urpean. Zingira izugarria. Animaliek, artzainek, pertsonak, denek gorantz igon behar. Eta gero berriro behera. Urak animalia asko eta asko harrapatzen ditu.

Lurralde hau garbia da. Euria joan da, eta lurra berri berri dago. Ura ez da usteltzen. Ura urtero aldatzen da. Horregatik lurraldea garbia eta indartsua da. Baina problema asko dauzka. Animalientzat oso zaila da han bizitzea. Oso gaitza han ibiltzea. Asko itotzen dira. Artzainek kontuz ibili behar dute. Baina, hala eta guztiz ere, lurraldea ikusgarria da benetan.

alda (aldatu, aldatze): cambiar; **artzain**: pastor; **bider**: vez; **hala eta guztiz ere**: así y todo, sin embargo; **harrapa** (harrapatu, harrapatze): coger, atrapar; **ikusgarri**: digno de verse, espectacular; **indartsu**: lleno de fuerza; **ito** (itotze): ahogar; **gaitz**: difícil; **izugarri**: terrible, enorme; **lurralde**: territorio; **uholde**: diluvio; **urpe**: bajo agua; **urtero**: anualmente, todos los años; **ustel** (usteldu, usteltze): pudrirse, corromperse; **zail**: difícil; **zingira**: pantano, aguazal.

Imaginatzen ditugu zifra txikiak. Ba dakigu bost edo hamar edo hogei milioi kilometro kalkulatzeko. Baina mila milioi eta hortik gora nola imajina?

Begira! Hauteskundeak izan dira martxoan. Zenbat diru gastatu da? Estatuak eta UCD alderdiak mila ta bostehun milioi gastatu dituzte. Zenbat denboratan? Hogeita bost egunetan. Eta beste alderdiek zenbat gastatu dute? Beste alderdiek, denek batera, zortziehun milioi gastatu dituzte.

Orain beste zifra batzu. Igaz Estatuak musikarako hirurehun eta hirurogei ta bederatzi milioi gastatu ditu. Egunean, beraz, milioi bat eta apur bat gehiago. Asko ote da hori? Eñtatu guztirako hori ez da ezer. Barregarria da. Eta alderdiek zenbat gastatu dute igaz musika sailean? Ezer ere ez. Zero. Hori barre-garriagoa da.

Estatuan ehuneko hamazortzik bakarrik irakurtzen dute zerbait. Ehuneko hirurogei ta hiruk ez dute inoiz irakurtzen, edo ia inoiz ere ez. Zifra hauekin kultura ez dabil batere fanfarroi.

alderdi: partido; **barregarri:** ridículo, digno de risa; **batere:** a una, a la vez; **batere:** en absoluto; **begira:** mirad!; **hautes-kunde:** elección; **igaz:** el año pasado; **sail:** sección, ramo; **zerbait:** algo.

64 HERRI BAT MINBIZI GABE

Minbizia! Zer da minbizia? Minbizia kantzerra da. Minbizia min handia da. Eritasun txarra da. Txarrena beharbada. Eta erremediorik ez dauka. Minbizia zientziaren obsesioa da.

Asian Himalaya mendiak daude. Mendi famatuak. Mendi hauen inguruan herri bat bizi da. Herritarrak Huntzak deitzen dira. Eta hau da harrigarria. Huntzek ez dute ezagutzen minbizia. Ez daukate inoiz kantzerrik. Eta ez da herri modernoa. Zergatik ez dute ezagutzen kantzerra?

Herri oso moderatua da. Bizitzako gauza guztietan modera-tua. Gainera, haien janaria begetarianoa da, bitaminatan aberatsa. Eta inguru oso garbian bizi dira. Airean ez dago batere kutsadurarik. Haien bizitza baketsua da, eta ez dago haien artean bizi-lehiaketarik. Zientzizigizonen ustez, horrexegatik ez dago han minbizirik. Herri zorionsua benetan!

aberats: rico; **baketsu:** pacífico; **batere:** en absoluto; **bizi-lehiaketa:** lucha por la vida; **bizitza:** vida; **eritasun:** enfermedad; **ezagut** (ezagutu, ezagutze): conocer; **gainera:** además; **herritar:** ciudadano, habitante; **janari:** alimento, comida; **kutsadura:** contaminación; **lehiaketa:** competición, porfía; **zorionsu:** feliz, dichoso.

Bokassa jauna Ertafrikako enperadorea da. Gizon honek uniforme militarra maite du eskoletan. Bokassa jaunak dekretu bat eman du: aurrerantzean ikasle guztiak uniforme militarrez jantzita ibiliko dira.

Protesta handiak sortzen dira. Jantzi hori garestia da, eta jendea pobrea. Manifestazioak eta nahasteak hasten dira. Orduan zer egiten du Bokassak? Bengantza izugarria. Enperadorearen goardiek ehun bat mutiko inguratzen dituzte. Irten kale-
ra, mutikoak harrapa eta preso eraman. Berrogei ta hamar kolpeka hiltzen dituzte. Hogei ta hamar kalabozo txiki batetan sartzen dituzte, eta hoge ta zortzi asfixiaz hiltzen dira.

Hori bai. Hilak uniforme eta guzti daude. Eta hilketan enperadorea ere presente. Hori da justizia! Eta hori gure gizaldi hontan jazo da. Esku onetan dago Afrika!

Zorionez, Bokassa ez da orain enperadore. Destronatu egin dute. Gartzelan sartu dute asto beltza.

asto: asno; **aurrerantzean:** en adelante; **Ertafrika:** Africa Central; **garesti:** caro; **gartzela:** cárcel; **gizaldi:** generación; **hilketa:** matanza; **ingura** (inguratu, inguratze): rodear, cercar; **izugarri:** terrible, enorme; **maite izan:** amar. **mutiko:** muchacho; **nahaste:** mescolanza, revuelta; **zor** (sortu, sortze): crear, surgir; **zorion:** felicidad, dicha.

Gizon batek behi bat ohostu du. Judizioa egin dute, eta Ceutara bidali dute gizona. Han hoge ta bost urte egingo ditu preso. Etxean emaztea eta mutiltxo bat uzten ditu.

Hogei ta bost urte ez dira laburrak. Baina noizbait pasatzen dira. Eta gizona bueltan etxera dator. Lehenbizi artalde bat ikusten du etxe inguruan, eta gizon gazte bat artzain. «Gure etxeko ardiak ote dira?» pentsatzen du gizonak. Hurbiltzen da, eta gaztearekin berba egiten hasten da.

—Norenak dira ardi hoik?

—Joxepa Goñirenak —erantzuten dio artzainak.

—Joxepa horren semea zara?

—Bai. Ez da nire errua. Beraren errua ere ez. Baina hala da.

Gizona ardiei begira gelditzen da. Eta gero etxeari begira. Artzain gaztea txakurraren ondoan dago. Eta esaten dio gizonak:

—Beraz, Joxeparen semea zara.

—Bat eta bera.

—Non daukazu aita?

—Gartzelan.

—Zergatik?

—Behi bat ohostu du larretik.

—Orain pagatuko du larrutik.

—Ez dut lorik galduko horregatik.

Mutilari hau entzun dio, eta etxera doa gizona. Han dago Joxepa, eta honek bere senarrari galdetzen dio:

—Zertan ari izan zara hor?

—Semearekin bertsotan ari izan naiz.

—Hogei ta bost urte hain urrun, eta semearekin bertsotan? Hori da gibela. Etor etxera! Gaztainak eta taloa daukat. Elkarrekin jango ditugu aspaldiko partez.

ardi: oveja; **artalde:** rebaño de ovejas; **artzain:** pastor de ovejas; **aspaldi:** tiempo pasado; **behi:** vaca; **erru:** culpa; **gartzela:** cárcel; **gibel:** hígado, cachaza, calma; **hain:** tan; **hurbil** (hurbildu, hurbiltze): acercarse; **lapur:** ladrón; **larre:** pastizal, prado; **larru:** piel; **lehenbizi:** primeramente; **noizbait:** alguna vez; **ohos** (ohostu, ohoste): robar; **urrun:** lejos.

Luzaro bizi gura duzu? Hortarako gauza printzipala janaria da. Hona hemen dieta integral bat. Animalia janariak kendu edo gutxitu behar dira: haragia, arraina eta deribatuak, urdaiazpikoak, hestebeteak eta abar. Haragirik onena hegaztien da, eta arrain zuria ere bai. Zitu integralak gehitu behar dira. Arroz integrala da onena. Fruitak eta berdurak ere gehitu behar dira. Baina zitua beti nagusi.

Itsas algak ere oso onak dira. Oraindik gutxi ezagutzen dira. Baina gatz mineral eta bitamina asko daukate. Azukre zuria guztiz kendu behar da. Estudio sakonak egin dira, eta azukre zuria guztiz txarra ei da. Gatza ere gutxitu behar da. Zazpi urtetatik aurrera, animalien esnea ere kendu behar da.

Fruitetan sagarra da nagusi. Eta egosita hobeto. Ogi zuria-
ren ordeztu ogi integrala jan behar da. Eta, azkenez, kimikagai guztiak kendu behar dira.

Hau guztiau egin duzu. Eta gero zer? Heriotzararte biziko zara, mozoloen antzera.

antzera: a semejanza; **arrain:** pescado; **egos** (egosi, egoste): cocer; **eta abar:** etcétera; **ezagut** (ezagutu, ezagutze): conocer; **gatz:** sal; **gehi** (gehitu, gehitze): aumentar; **gutxi** (gutxitu, gutxitze): disminuir; **hegazti:** ave; **hestebete:** embutido; **hobeto:** mejor; **janari:** alimento; **kimikagai:** producto químico; **luzaro:** largamente, por largo tiempo; **mozolo:** mochuelo; **ordez:** en vez, en lugar; **sakon:** profundo; **urdaiazpiko:** jamón; **zitu:** cereal.

Indian behiak sakratuak dira. Hindu debotuek behien gerna (pixa) edaten dute, eta horrela gorputza eta izpiritua garbitzen omen dituzte. Baina denek ez dute indu erligioa segitzen. Denek ez dute berdin pentsatzen. Hoiek lege hori kendu nahi

dute. Behien haragia jan gura dute. Eta eztabaida handiak sortu dira.

Indu agure batek gose greba egiten hasi da. Bhave deitzen da. Laurogei ta lau urte dauzka. Gizon saindua eta prestigio handikoa da. Bhavek zin egin du: «Parlamentuak lege bat atera behar du disidenteen kontra. Egun hortararte ez dut ezer jango.»

Gauzak asko berotzen dira. Mitin erligiosoak hasten dira. Gubernuko lehen ministruak Bhave agurea biguntzen du. Legislazio berria prometitzen du. Eta Bhavek gose grebari uzten dio. Ministruak hitza betetzen du, eta dekretu bat aprobatu da behien alde. Dekretu hori kongresura joango da.

Baina eztabaida bero bero dabil. Indian behi sakratuen eztabaida aintzinatik dator. Harakin batzuk apropos zauritzen edo mutilatzen dituzte behiak. Horrela, behiak hiltegiara eramanez ahal izaten dituzte. India beste mundu bat da.

agure: anciano; **aintzina:** antiguamente; **alde:** a favor; **apropos:** entencionadamente; **behi:** vaca; **bigun** (bigundu, biguntze): ablandar, aplacar; **eztabaida:** disputa, discusión; **gernu:** orina; **gose:** hambre; **greba:** huelga; **hiltegi:** matadero; **lege:** ley; **pix:** orina; **zor** (sortu, sortze): originar, crear, surgir; **zauri** (zauritu, zauritze): herir; **zin egin:** hacer juramento, jurar.

69

USAINEN ERAKUSKETA

Madrilen erakusketa edo esposizio arraro bat egin dute. Usainen erakusketa, edo hobeto usnaketa. Usain egitea edo usnatzea artearen barruan omen dago. Usaina ere espresio era bat ei da. Hori pentsatzen dute. Eta zer erakusten da erakusketa hortan?

Gauzarik, landararik, janaririk ez dago han. Han usainak bakarrik daude. Gauza bakoitzaren, landare bakoitzaren eta janari bakoitzaren usaina dago han. Platerean, edanontzian, zapietan eta abarretan.

Ikusleak mahai batetik bestera doaz. Gelditzen dira, makurtzen dira, eta usaina hartzen dute. Eta begiak ixten dituzte.

Horrela, usaina hobeki hartzen dute. Zergatik hobeki? Hori beste gai bat da. Orain, gutxienez, hauxe dakigu: Usaina ere artea omen da.

bakoitz: cada uno; **begi:** ojo; **edanontzi:** vaso; **era:** modo; **eta abar:** etcétera; **gai:** materia, asunto; **gutxi:** lo menos; **hobeki:** de un modo mejor; **janari:** alimento; **landare:** planta; **makur** (makurtu, makurtze): inclinar; **usain:** olor; **usna** (usnatu, usnatze): olfatear; **usnaketa:** olfacción; **zapi:** lienzo, paño, trapo.

70 BASAJAUNAREN ARGIMUTILA

Nafarroa Beherean, basajaun bat bizi da haizulo batetan, Salbatoreko ermita inguruan. Basajaunak argimutil eder bat dauka. Eguzkia egiten du, eta kanpora ateratzen du argimutila. Argimutilak dizdiz egiten du.

Behin basajauna ez dago. Mendian dabil. Eta artzain batek hartzen du argimutila eta eramaten du. Ba dator basajauna, eta artzainaren atzetik doa. Artzaina beldurtzen da, eta oihuka hasten da: «Nire Jainkoa, salba arren ni!»

Orduan ermitako ezkila tilin-tilin hasten da. Eta basajauna bertan gelditzen da. Ezin du pausorik gehiago eman. Artzainak ermitan uzten du argimutila.

Handik laster, Mendibekoek beren elizara eramane nahi dute argimutila. Gizon batek hartzen du eta eramaten du. Gizona Harizkurutzetara heltzen da. Baina handik aurrera ezin du gehiago mugitu argimutila, eta bertan uzten du. Gizona etxera doa, eta idiekin dator. Baina idiek ere ezin dute eramane. Orduan berriro Salbatoreko ermitara eramane du argimutila. Handik urte batzutara, ermita erre egiten da, eta argimutila belztu.

argimutil: candelero; **arren:** por favor; **artzain:** pastor de ovejas; **basajaun:** señor del bosque, personaje mitológico vasco; **behin:** una vez; **beldur** (beldurtu, beldurtze): asustar, amedrentar; **belztu** (belztu, belzte): ennegrecer; **eliza:** iglesia; **haizulo:** cueva, caverna; **hel** (heldu, heltze): llegar; **idi:** buey; **inguru:** contorno, alrededor; **Nafarroa Beherea:** Baja Navarra; **oihu:** grito; **pauso:** paso.

Orain, atomoak fotografiatu egiten dira. Hortarako, teknika berria asmatu dute zientzigizonek. Argazkiekin hobeto estudiatzen dira atomoak. Baina atomoak txiki txikiak dira, eta nola argazkiak atera? Atomorik lodiena uranioa da. Ikertzaileek, teknika berriarekin, atomoen argazki politak atera dituzte.

Orain 2.500 urte, grekoentzat unitaterik txikiena atomoa da. Mendeleiev jakintsuak, 1865.ean, atomo posible guztiak klasifikatzen ditu: burdina, altzairua, urrea, eta abar. Gure mende hontan, 1910.ean, atomoen errealitate fisikoa demostratzen da. Baina inork ez du atomorik ikusi. Noiz ikusten dute?

Japonian, 1971.ean, Kyotoko Unibertsitateko fisikariek ikusten dute. Torio eta uranio atomoak fotografiatzen dituzte. Orain, Chicagoko Unibertsitatean, gauza harrigarria egin dute: mikroskopia elektronikoa batekin kolorezko filme bat egin dute. Atomoa nukleo bat da, eta beraren inguruan elektroiak dabil-tza. Baina nukleotik oso urrun. Proporzio txikian, planetak eguzkiaren inguruan bezala. Laster, hori guztiori argazkietan ikusi ahal izango dugu.

altzairu: acero; **asma** (asmatu, asmatze): inventar; **burdina:** hierro; **fisikari:** fisico; **greko:** griego; **hobeto:** de un modo mejor; **ikertzaile:** investigador; **inor:** nadie; **jakintsu:** sabio; **mende:** siglo; **urre:** oro; **urrun:** lejos.

Aintzinako Euskal Herrian bizi gara. Garai hontan, egurrak berez etortzen dira etxera. Beren kontura etortzen dira. Ez ditu inork ekartzen. Behin, haritz baten adarrek elkarrekin berba egiten dute: «Urliaren sukaldera joango gara.»

Eta ba doaz mendirik mendi gora eta behera. Eta ba datoz errekaldean behera eta errekaldean gora. Halako batez, etxe batetara heltzen dira. Egur-sorta atarira heltzen da, eta eskaile-

retan gora igoten hasten da. Orduantxe hain zuzen, atso mutur-zorrotz bat dator eskaileretan behera. Aurrez aurre daude, eta egur mehe batek atsoaren gona harrapatzen du. Tarrat!

Garai hontan, oraindio ez du inork barkapena ezagutzen. Eta egurrak ez dio atsoari barkazioa eskatzen. Eskatzea ere alferrik da. Atsoa haserretzen da, eta biraoka hasten da: «Geldi egurrak betiko! Zirkinik ere ez!»

Ordutik aurrera, egurrak ez datoz berez etxera. Ekarri egin behar dira.

adar: cuerno de árbol, rama; **alferrik:** en vano; **atari:** portal; **atso:** anciana; **aurrez aurre:** frente a frente; **barkapen:** perdón; **behin:** una vez; **berez:** de por sí, espontáneamente; **birao:** maldición, blasfemia; **egur:** leña; **errekalde:** paraje junto al arroyo; **ezagut** (ezagutu, ezagutze): conocer; **garai:** tiempo; **hain zuzen:** precisamente; **halako batez:** en una de éstas; **haritz:** roble; **haserre** (haserretu, haserretze): enfadarse; **hel** (heldu, heltze): llegar; **inor:** nadie; **kontu:** cuenta; **mehe:** delgado; **mutur:** morro; **orduantxe:** entonces mismo; **sorta:** haz, fajo; **urlia:** fulano; **zirkin:** movimiento pequeño; **zorrotz:** agudo, afilado.

73

BA OTE DAKIZU?

Zer gertatzen da zure gorputzean? Zer egiten du zure gorputzak? Ba dakizu? Oraintxe esango dizut. Entzun!

Egunak hogeitau ta lau ordu dauzka. Zure bihotzak egunean ehun eta hiru mila taupada ematen ditu. Hogeitau ta hiru mila bider arnasa hartzen duzu. Eta berrogeitau metro kubiko aire hartzen eta botatzen duzu.

Eta odolak zenbat korritzen du? Egunean berrehun eta hiru rogeitau ta zortzi milioi kilometro. Harrigarria da, baina holaxe da. Gorputzak mila eta mila zain dauzka. Denen artean milioi asko dira.

Egunean bost mila hitz inguru esaten dituzu. Zure zerebroak zazpi milioi zelula erabiltzen ditu. Zure sabelak kilo bat eta

hirurehun gramo jaten du, eta hiru litro edaten. Hori Euskal Herrian gehiago da nonbait. Horregatik, sarritan nekatu egiten zara. Horregatik, atsedena behar beharrezkoa da.

atseden: descanso; **beharrezko:** necesario; **bihotz:** corazón; **inguru:** alrededor; **neka** (nekatu, nekatze): cansar; **nonbait:** seguramente; **sabel:** vientre; **taupada:** latido; **zain:** vena.

74

BULEGO PAPERGABEA

Asmoa aspaldikoa da. Bulego papergabea nahi dute. Bulego hortarako tresnak guztiz sofistikutuak izango dira. Ipar Amerikako etxe batek holako bulego bat jarri du. Bulego hortan ez dago paperik batere. Dena da automatikoa. Nola moldatzen dira orduan?

Begira! Eskutitz bat bidali gura dute beste konpainia batetara. Hortarako, telefono baten botoia jotzen da. Telefono hori diktagailu bati loturik dago. Makina honek eskutitza diktatzen du eta beste batek transkribatzen du. Eskutitza zintan konputaturik eta artxibaturik gelditzen da.

Hurrengo pausoa eskutitza elektronikaren bidez bidaltzea da. Eta postaria telefonoa bera da. Eta paperik batere ez. Tresna honek urtean milioi asko aurreratzen omen du. Promotoreek hori diote behintzat. Ikusi egin behar.

asmo: idea, propósito, intención; **aspaldi:** tiempo pasado; **aurrera** (aurreratu, aurreratze): adelantar, ahorrar; **batere:** en absoluto; **begira:** mira!; **behintzat:** por lo menos; **bide:** camino, medio; **diktagailu:** dictadora; **holako:** como ése; **hurrengo:** siguiente; **lot** (lotu, lotze): atar; **molda** (moldatu, moldatze): arreglar; **papergabe:** desprovisto de papel, sin papel; **tresna:** aparato.

75

POSTARIAK ETA TXAKURRAK

Frantzian txakur gaiztoak edo postari tentelak daude. Igaz mila ta bostehun postarik hartu dituzte txakurren haginkadak.

Aspaldion gehitu egin dira holako kasuak. Postariak beldur dira. Zer egin? Postarik ez entrega? Ala txakurrak hil? Ala zer?

Posta zerbitzua kanpaina nazional bat egiten hasi da postarien segurtasunaren alde. Postetxe eta udaletxeetan hirurogei ta hamar mila kartel jarri dira. Txakur jabeentzat bi milioi inpreso egin dira, eta beren erantzunkizuna adierazi zaie.

Azkenez, postarientzat berrehun mila liburuxka argitaratu dira. Horrela, postariak hobeto jagon ahalko dute beren burua txakurren kontra. Hona hemen Frantzia handiko problema bat. Ez ote da onena izango txakurrak berak postari ipintzea?

adieraz (adierazi, adierazte): expresar, hacer saber; **argitara** (argitaratu, argitaratze): poner a la luz, publicar; **aspaldi**: tiempo pasado; **beldur izan**: estar temeroso, temer; **erantzunkizun**: responsabilidad; **gaizto**: malo, malvado; **haginkada**: mordedura; **hil** (hiltze): matar; **hobeto**: de un modo mejor; **holako**: como ése, semejante; **igaz**: el año pasado; **jabe**: dueño; **jagon** (jagoite): cuidar, proteger; **liburuxka**: librito, folleto; **posta**: correo; **segurtasun**: seguridad; **tentel**: fatuo, tonto; **udaletxe**: casa consistorial, ayuntamiento; **zerbitzu**: servicio.

76 ZERGATIK GORPUTZA PINTA?

Gorputza pintatzea kultura guztietan gertatu da. Zergatik? Zertarako? Herri primitiboek gerrarako pintatzen dute gorputza. Ameriketako indioak zuhaitz baten sustantziak pintatzen dira. Zuhaitz horren haziak pintura gorri gorri bat egiten dute, eta harekin pintatzen dute beren gorputza.

Pintura horrekin beldurtu gura ote dituzte beren etsaiak? Askok hori pentsatzen dute, baina ez da horrela. Indioek gerrarako pintatzen dute beren gorputza. Pintura hori gerraren seinalea da.

Ez hori bakarrik. Gorputzaren pintaketak adina, sexua eta jatorria ere adierazten ditu. Ofizioak eta karguak ere bai. Emakumeetan pintaketa horrek helburu sexuala ere ba dauka. Pintaketa horrekin bizitu egiten dute gizonen guraria.

Herri primitiboetan gorputza asko pintatzen da. Eta gure kulturari? Zergatik pintatzen dira atzazalak, ezpainak, begiak, aurpegia eta besoak? Zergatik pintatzen dira gizonezkoak ere?

adieraz (adierazi, adierazte): expresar, dar a conocer; **adin**: edad; **atzazal**: uña; **begi**: ojo; **beldur** (beldurtu, beldurtze): atemorizar; **beso**: brazo; **bizi** (bizitu, bizitze): avivar; **etsai**: enemigo; **ezpain**: labio; **gizonezko**: varón; **gurari**: deseo; **hazi**: semilla; **helburu**: objetivo, finalidad; **jatorri**: origen; **zuhaitz**: árbol.

77 KITARRA JOTZAILE HANDI BAT

Artistak oso bereziak dira. Oso bereziak izan behar dute. Bestela ez dira artistak. Narciso Yepes kitarra jotzaile handi bat da. Musikari handi guztien obrak interpretatzen ditu.

«Nik nekazari arima daukat, eta zerura begiratzen dut», esaten du berak. «Zerua barruan daukat. Eskenategira igoten naiz, eta musikan bakarrik pentsatzen dut.»

Kontzertuen haseran Yepes ez da urduri egoten. Hainbat lasterren hasi nahi izaten du. Honela esaten du: «Kontzertuaren haseran, orduantxe naiz zoriontsuen, orduantxe sentitzen dut zorionik gehien. Bukaeran, berriz, apur bat tristetu egiten naiz.»

Musika ez da hitza. Musika hizkuntza unibertsala da. Horixe da Yepesen poz handia. Horregatik esaten du: «Nire zoriona mundu guztiarekin komunikatzea da. Berba gabeko hizkuntza orokor bat: hori bai gauza ederra!»

Eta Yepesek benetan sentitzen du gauza eder hori. Ez dauka zorte txikia!

arima: alma; **berezi**: especial; **bestela**: de otro modo, si no; **bukaera**: final, término; **eskenategi**: escenario; **gabeko**: desprovisto; **hainbat lasterren**: lo más pronto posible, cuanto antes; **hasera**: comienzo; **hizkuntza**: lenguaje; **jotzaile**: pegador, tocador; **nekazari**: agricultor, campesino; **orduantxe**: entonces mismo; **orokor**: universal; **poz**: alegría, gozo; **urduri**: inquieto, nervioso; **zorion**: felicidad, dicha; **zoriontsu**: feliz; **zorte**: suerte.

Zer da polena? Polena loreak dauka, eta loretik erleak biltzen du. Polena erlearen janaria da. Eztia baliotsua da. Baina polena baliotsuagoa. Polena oso elikagarria da. Eta sendagarria ere bai. Munduan lore, belar eta landare klase asko dago. Beraz, polena ere bariazio handikoa da.

Polenak oso gai aberatsak dauzka gizonaren gorputzarentzat. Baina nola lortu ahal izango dugu hain gauza ona? Erleek lan gehiago egingo dute, eta guk ohostu egingo diegu polena.

Erleak ez du kantitate handirik biltzen. Beharrezkoa bakarrik batzen du, beretzat eta erlakumeentzat. Zer egin orduan? Luzatu egingo dugu erleen lanaldia. Nola? Begira!

Erlauntzako sarreran dispositibo bat esekitzen da. Dispositibo horrek goia edo sabaia oso behean dauka. Erleak barrura sartu nahi du. Baina, hortarako, makurtu egin behar du bere gorputza. Orduan erleari okertu egiten zaio polen gordailua, eta zati bat azpiko bilgailura erortzen da. Honelako erlauntza batek urtean hiru kilo polen edo gehiago bildu ahal du.

Erlea fina da, baina pixka bat tontotxoia ere bai.

baliotsu: valioso; **bat** (batu, batze): reunir, recoger; **begira:** mira!; **beharrezko:** necesario; **bil** (bildu, biltze): recoger, reunir; **bilgailu:** recolector; **elikagarri:** nutritivo; **erlakume:** cría de abeja; **erlauntza:** colmena; **erle:** abeja; **eror** (erori, erortze): caer; **eseki** (esekitze): colgar; **gai:** materia; **goi:** parte alta; **gordailu:** depósito; **janari:** alimento; **lanaldi:** tiempo de trabajo; **luza** (luzatu, luzatze): alargar, prolongar; **makur** (makurtu, makurtze): inclinar; **ohos** (ohostu, ohoste). robar; **oker** (okertu, okertze): torcer; **sabai:** techo; **sarrera:** entrada; **sendagarri:** curativo.

Jesukristo eta San Pedro elkarrekin dabilta. Behin, jaiegun batez, meza kanpaiak entzuten dituzte.

«Pedro, eliza hortara joango gara, eta meza entzungo dugu», esaten dio Jesukristok. San Pedrok ez dauka hortarako gogorik, eta erantzuten dio: «Eliza hortako apeza ez da apez ona. Beste eliza batetara joango gara.»

Horrela, aurrera eta aurrera doaz. Bat batean, San Pedrok egarri gogorra sentitzen du. Eta esaten du: «Maisua, egarri naiz. Oso egarri naiz. Ezin dut gehiago.» Eta maisuak erantzun: «Joan beheko troka hortara. Hortxe aurkituko duzu iturria.»

San Pedro ba doa, eta suge bat aurkitzen du. Sugearen ahotik ura dator. San Pedro beldur da. Baina egarri ere bai. Kontuz kontuz edaten hasten da. Jesukristok goitik hitz egiten dio:

—Zer, Pedro?

—Ur ederra, maisua. Ur ederra.

—Nolakoa da iturria?

—Sugearen ahoa da iturria.

—Sugearen ahoa iturria! Eta lehen apez haren ahotik zergatik ez duzu meza entzun nahi izan?

apez: cura; **bat batean:** repentinamente; **behin:** una vez; **beldur izan:** ser temeroso, temer; **egarri:** sed; **egarri izan:** estar sediento, tener sed; **eliza:** iglesia; **gogo:** gana, deseo; **goi:** parte alta; **iturri:** fuente; **jaiegun:** día de fiesta; **meza:** misa; **suge:** culebra; **troka:** barranco.

80

ZERGATIK EZ DIRA TELEGRAMAK BUSTITZEN?

Alexander Popov errusiar jakintsu handi bat da. Gauza askoren artean telefono alanbregabea asmatu du.

Behin, gure jakintsua hitz egiten ari da. Hitzaldia bukatu du, eta galdetzen du: «Ulertu duzue?» Eta denek erantzuten dute: «Bai, ederki ulertu dugu.»

Eta emakume batek haxe gaineratzen du: «Zientzigizon askorekin berba egin dut. Zorte eder hori eduki dut. Baina

inork ez du gai hori horren argi azaldu. Esplikazio bikaina eman duzu. Hala ere, ez dut gauza bat ulertzen. Amerikatik Europara zergatik ez dira telegramak bustitzen?»

Eta jakintsuak erantzuten dio: «Galde bikaina. Hortan dago koska nagusia. Euritako berezi bat asmatzen ari naiz orain.»

alanbregabe: inalámbrico; **asma** (asmatu, asmatze): inventar; **azal** (azaldu, azaltze): exponer, explicar; **behin:** una vez; **berezi:** especial; **bikain:** excelente; **buka** (bukatu, bukatze): terminar; **busti** (bustitze): mojar; **gai:** materia, asunto; **gainera** (gaineratu, gaineratze): añadir; **hala ere:** sin embargo; **hitzaldi:** discurso, conferencia; **horren:** tan; **inor:** nadie; **jakintsu:** sabio; **koska:** mella, dificultad; **zorte:** suerte.

81 TXORI KANTUEN GRABAKETA

Zer da txorimamua edo txorimaloa? Txorimaloa figura bat da. Figura horrekin txoriak beldurtu egiten dira. Baina txori askok igarri egiten dute, eta ez dira beldurtzen.

Errusian beste sistema bat asmatu dute. Txorien kantuen grabaketa. Txorien kantuetan alarma seinaleak ere egoten dira. Hori deskubritu dute jakintsu batzuk. Horrela, kantua grabatzen da, grabagailua martxan ipintzen da, eta txoriek alarma seinaleak ere entzuten dituzte. Grabagailuak mahastietan eta soroetan ipintzen dituzte, eta horrelaxe salbatzen dute uzta zati bat.

asma (asmatu, asmatze): inventar; **beldur** (beldurtu, beldurtze): amedrentar; **grabagailu:** grabadora; **grabaketa:** grabación; **igar** (igarri, igartze): adivinar; **jakintsu:** sabio; **mahasti:** viña; **soro:** campo, heredad; **txorimalo:** espantapájaros; **uzta:** cosecha.

82 ARRANO EHIZTARIA

Errusian txoriak ere leninistak edo zerbait dira, antza. Kontuz arranoekin! Hango herri batetan gauza kuriosoa gertatu da.

Herri hortan fabrika bat dago. Fabrika barruan uso asko dabilta. Behin, uso taldea zaratatsu sartu da. Fabrikako departamentu batetan lino lastoa biltzen ari dira. Usoak haraxe sartu dira. Mutil bat lasto azauak deskargatzen ari da.

Bat batean kolpe gogor bat hartzen du buruan mutilak. Eskuekin aurpegia estaltzen du, makurtzen da, eta agur haren txanoa. Txanoa hegaz doa.

Zer jazo da? Arrano bat uso artean sartu da, eta mutilaren txanoa bere erpeetan eraman du. Arranoak erbiak eta usoak ehizatzen ditu. Oraingoan erratu egin da, eta txanoa eraman du usoaren orde.

«Hauxe da komedia», pentsatu du arranoak. «Larrua bakarrik ekarri dut, eta erbia bertan utzi dut.»

antza: al parecer, según parece; **arrano:** águila; **azau:** fajo; **bat batean:** repentinamente; **bil** (bildu, biltze): recoger, reunir; **ehiza** (ehizatu, ehizatze): cazar; **ehiztari:** cazador; **erbi:** liebre; **erpe:** garra; **estal** (estali, estaltze): cubrir, tapar; **gogor:** duro; **larru:** piel; **lasto:** paja; **makur** (makurtu, makurtze): inclinar; **ordez:** en vez, en lugar; **txano:** gorro; **uso:** paloma; **zaratatsu:** ruidoso; **zerbait:** algo.

83

ZIENTZIAREN MIRARIAK

Gaur zientziak mirariak egiten ditu. Beso edo hanka moztua txertatzen da, eta aurrera. Operazio hau ez da beti egiten. Ez da oraindik erreza. Baina egiten da, eta gaur zientziaren aldetik hori ez da hain problema handia.

Baina orain dator nobedadea. Laster txertaketak sobra egongo dira. Beso eta zango anputatuak berez haziko dira. Haurren hagin erorien antzera. Errusiar doktore baten ustez, hamar urte barru helburu hori lortua izango da.

Biologo horren ustez, gorputzeko zelula bakoitza auto-ugaritu ahal da. Hortarako elementu guztiak dauzka. Non dago gakoa? Non dago giltza? Zer egin behar da? Hanka, esku edo

hatzetako elementu kreatzaile hori aislatu egin behar da. Aislatu eta martxan jarri. Esperientzia batzu egin dituzte, eta erresultatuak onak izan dira.

alde: lado; **antzera:** parecidamente, a semejanza; **bakoitz:** cada uno; **berez:** de por sí, espontáneamente; **beso:** brazo; **errez:** fácil; **gako:** llave, clave; **giltza:** llave, clave; **hagin:** diente; **hanka:** pierna; **hatz:** dedo; **haz** (hazi, hazte): crecer; **helburu:** objetivo; **mirari:** milagro; **motz** (moztu, mozte): cortar, cercenar; **txerta** (txertatu, txertatze): injertar; **txertaketa:** injertamiento; **ugar** (ugaritu, ugaritze): aumentar, multiplicar; **zango:** pierna.

84 URAREN SEKRETU HANDIA

Ura da bizitzaren sortzailea. Urak ematen du bizitza. Eguzkiarekin batera, ura da bizitzaren elementu nagusia. Baina nola-ko ura? Ez da berdin ur hotza, ur epela edo ur beroa. Ur irakinaren eta bestelako uren indar biologikoak ez dira berdinak. Eta ez da berdin tenperatura batean edo bestean. Hori probatu dute sobietar agronomo batzuk.

Haien eritziz, ez da hain garrantzitsua uraren elementuen kantitatea. Garrantzitsua elementuen konposizioa da. Tenperaturaren aldakuntzak molekulak aldatzen ditu. Hori da inportantea. Ura arin irakitea eta berriro arin hoztea: hori da garrantzitsua. Baina nola hoztuko dugu hain arin? Hozkailu baten bidez.

Esperimentu hori etxean egin ahal duzu. Ur hori oso ona da. Hortaz laster konturatuko zara. Ur horrekin landareak eta loreak, adibidez, askoz lasterrago mugitzen dira. Gizonarentzat ere guztiz ona da. Zahartzaren kontra ere oso erremedio ona da. Ba dakizu. Urik onena, ur arin irakina eta arin hoztua da.

adibide: ejemplo; **alda** (aldatu, aldatze): cambiar; **aldakuntza:** cambio; **askoz:** por mucho; **batera:** a una, a la vez; **bestelako:** diferente; **bizitza:** vida; **eritzi:** opinión; **garrantzitsu:** importante; **hotz** (hoztu, hozte): enfriar; **kontura** (konturatu, konturatze): darse cuenta; **landare:** planta; **mugi** (mugitu, mugitze): mover; **sortzaile:** creador, generador; **zahartzaro:** vejez.

Gipuzkoako Goierriin apez ehiztari bat bizi da. Ehizazale handia da, eta ehiztaria ere ez txarra. Hiru txakur dauzka, eta goizero irteten da ehizara. Egunean mendi bat pasatzen du. Ordu batzu egiten ditu ehizan, eta gero meza ematen du. Gaur herri batetan, bihar beste batetan, eta horrela. Goierriko herri guztiak pasatzen ditu urtean dozena bat bider.

Behin, meza ematen ari da. Txakurrek erbi bat dakarte aurretik. Eliza ondotik igarotzen dira. Apez ehiztariak txakurren zaunkak entzuten ditu, eta ezin egon. Uzten ditu ornamentuak aldare gainean, irteten da elizatik, eta ba doa korrika txakurren atzetik. Geroztik hor dabil Mateo Txistu ibil eta ibil, eta ezin da inon gelditu. Erbia harrapatu behar du lehenago.

Batzutan, hiru txakurren zaunkak entzuten dira. Batak au-au-au egiten du. Besteak ai-ai-ai, eta hirugarrenak gro-gro-gro. Ilunabarretik aurrerantz entzuten dira. Batzutan, egunez ere bai. Mateo Txistuk ekaitza uzten du beti bere atzetik. Ekaitz horrek gutxienez hamabost egun irauten du.

aldare: altar; **apez:** cura; **bider:** vez; **ehiza:** caza; **ehiztari:** cazador; **ekaitz:** tempestad; **eliza:** iglesia; **goizero:** todas las mañanas; **gutxien:** lo menos; **harrapa** (harrapatu, harrapatzte): coger, atrapar; **igaro** (igarotze): pasar; **ilunabar:** crepúsculo vespertino; **inon:** en ningún lugar; **iraun** (iraute): durar; **meza:** misa; **zale:** aficionado; **zaunka:** ladrido.

Zer da gazela? Nolakoa da gazela? Piztia bat da gazela. Ahuntzaren antzekoa. Baina Euskal Herrian ez dago. Gazelak pizti harrigarriak dira. Kanpoan bero bero egiten du, eta pizti hauen burua fresko dago. Nola hori? Hozkailu bat daukate barruan. Kanpoko tenperatura 45 gradutakoa da, eta gazelaren barruko tenperatura 43 gradutakoa. Eta odola 40 gradutan hel-tzen da zerebrora.

Zer egiten du gazelak? Transformadore bat dauka bihotzetik arnasara. Zer gertatzen da transformadore hortan? Ura ebaporatzen da. Ebaporazioak hotza ematen du, freskura ematen du. Ebaporazioarekin gazelak pisua galtzen du. Horregatik pixa ere hiru edo lau bider gutxiago egiten du. Baina pixaren kontzentrazioa bi-bidertu egiten da.

Animalia hauk, hain sistema bikain horregatik, guztiz miragarriak dira. Hala ere, beharbada galdu egingo dira, betiko hilko dira. Lehorteak ez ditu galduko. Gizonak galduko ditu, gizonak hilko ditu. Ehizara joan, eta dinbi-danba.

ahuntz: cabra; **antz:** semejanza, parecido; **bi-bider** (bi-bidertu, bi-bidertze): duplicar; **bikain:** excelente; **ehiza:** caza; **hala ere:** sin embargo; **lehorte:** sequía, tiempo de seca; **miragarri:** admirable, maravilloso; **pisu:** peso; **pix:** orina; **piztia:** animal silvestre.

87 KONTUZ ILARGIAREKIN!

Gure portaera okerren edo desberdinen errudun bat ilargia omen da. Batez ere ilargi betea eta ilargi berria. Susmo hori daukate aspalditik jakintsuek.

Orain, New Yorken, estudio estatistiko bat egiten ari dira. Hiri hortan krimen eta deliktu asko egiten dira azken bi urteotan. Krimen eta deliktu hoik aztertzen ari dira. Eta kriminaltasunaren kotak ilargi betearekin batera doaz. Ilargi betean krimen askoz gehiago egiten da.

Lieber jaunak, Miamiko Unibertsitateko psikiatrak, gertara au estatistikaz aztertzen du Floridan. Estatistiken arabera, homizidiorik gehien ilargi betean egiten da. 72 ordu geroago, tasa hori behera doa, eta ilargi berrian berriro gora.

Gure organismoa fluidoaz eginik dago. Gure gorputzaren 80%a fluidoa da. Ilargiak eragin handia dauka itsasoko uretan. Hori denok dakigu. Lieber jaunaren eritiziz, ilargiaren erakarpe-

nak gure gorputzeko fluido hoietan ere bere lana egiten du. Eta horrek ondorio neuralgikoak ekartzen ditu. Kontuz, ba, ilargiarekin!

arabera: según; **askoz:** por mucho; **aspaldi:** tiempo pasado; **azter** (aztertu, aztertze): examinar; **batera:** a una, a la vez; **batez ere:** sobre todo; **desberdin:** desigual, diferente; **eragin:** influencia; **erakarpen:** atracción; **eritzi:** opinión; **errudun:** culpable; **gehien:** lo más; **gertaera:** suceso; **hiri:** ciudad; **ilargi:** luna; **jakintsu:** sabio; **oker:** torcido; **ondorio:** consecuencia, efecto; **portaera:** comportamiento, conducta; **susmo:** sospecha.

88 GIZA OINATZIK ZAHARRENAK

Orain zenbait hilabete, giza oinatz batzu aurkitu dituzte Afrikan. Oinatz hoiek ia lau mila urte dauzkate. Jakintsuak harriturik daude. Bi-oindunen lehen oinatzak dira. Lehen izaki bipedoen oinatzak. Izaki hoiek ez dira handiak. Ez dira ederrak. Baina lehen gizakiak dira.

Bolkan hautsa basa eginda dago. Kapa zahar bat, eta bertan oinatz zerrenda bi. Zerrenda batean hogeit hamar giza oinatz, eta bestean hogeit hamar ta zazpi.

Nola jakiten da oinatz hoiengan adina? Karbono 14 elementu bat da. Elementu horrekin basa probatzen da, eta zuzen ateratzen da kontua. Eta hor daukagu giza oinengan lehen seinaleak.

Beharbada gizaki hauek da tximinoen eta gizonen arteko katebegia edo zubia. Gizaki hau lehenbizi Tanzanian bizi izan da, eta gero Etiopian. Gizaki honek gure antza dauka. Hartz-haginak, ordea, diferenteak dauka. Gizaki hau ote da gure arbasorik zaharrena, ala besteren bat falta ote da oraindik?

adin: edad; **antz:** semejanza, parecido; **arbaso:** antepasado; **basa:** barro, lodo; **bi-oindun:** bípedo; **falta izan:** faltar; **giza:** humano; **gizaki:** ser humano; **hagin:** muela; **harri** (harritu, harritze): asombrarse; **hartz:** diente; **izaki:** ser; **katebegi:** ojo de cadena, eslabón; **lehenbizi:** primeramente; **oin:** pie; **oinatz:** huella; **ordea:** en cambio; **tximino:** mono; **zenbait:** alguno; **zerrenda:** franja; **zuzen:** rectamente.

Mexikoko mendialde-batetan indioen herri bat bizi da. Tarahumarak deitzen dira. Ez daukate historia ezagunik ez legenda handirik. Herri pobrea da. Oso gutxi dira. Beharbada, laster ez da bat ere geldituko. Horren arriskua dago. Jakintsuen ustez, munduko lehen bizilagunak dira. Zibilizazioa despreziatzen dute. Zibilizaziotik ihes egiten dute. Ez dira nahasten mendebaldeko zibilizazioarekin. Puntu hontan indio hauk dira munduko bakarrak.

Herri honek beste gauza harrigarri bat dauka: osasuna. Luzaro bizi izaten dira. Ehun urtetara asko heltzen dira. Eta hori, bitaminarik, botikarik eta antibiotikorik gabe. Munduko zientzizigizon guztiak harriturik daude. Haien botikak belarrak dira. Hortan, maisuak dira. Arrantzan ere sistema berezia daukate. Erreka edo ibai alboan sustrai bat jartzen dute. Sustrai narkotikoa da. Arrainak lo jartzen ditu, eta bazterrera etortzen dira.

Jesuitak luzaro bizi izan dira indio hauen artean. Azkenean alde egin dute. «Oso zaila da indio hauk kristau egitea. Erreza-goa da gu tarahumara egitea.» Hori esan dute jesuitek.

albo: lado; **alde egin:** marcharse; **arrain:** pez; **arrantza:** pesca; **arrisku:** peligro; **bakar:** único; **bazter:** orilla; **belar:** hierba; **berezi:** especial; **bizilagun:** habitante; **errez:** fácil; **ezagun:** conocido; **ihes egin:** huir; **jakintsu:** sabio **kristau:** cristiano; **luzaro:** por largo tiempo; **mendialde:** zona montañosa; **nahas** (nahastu, nahaste): mezclar; **osasun:** salud; **sustrai:** raíz; **zail:** difícil.

Deba inguruko etxe famatu baten izena da Alostorrea edo Alosen dorrea. Jabea Beltran Alos deitzen da.

Beltran bi aldiz ezkondu da. Lehen emazteagandik alaba eder eta on bat dauka. Alarguntzen da, eta bigarren emaztea-

gandik bi alaba dauzka. Lehen ezkontzako alaba bakar hura Usoa deitzen da. Amordeak oso gaizki hartzen du Usoa.

Beltranek bere alaba maitea amordearen tratu txarretik atarra gura du. Alabarentzat senargai on bat bilatzen du. Ezteietan Beltranek alaba uzten du, eta mairuen gerrara doa. Zazpi urte luze egiten ditu bertan.

Noizbait ba dator Beltran Alostorrera, gerratik bueltan. Eta berri txar bat entzuten du. Alostorrean sasikume bat jaio ei da. Batzuren ustez, haur berriaren ama Beltranen emaztea da. Beste batzuren ustez, Beltranen alaba Usoa da. Zurrumurru hau amordeak zabaltzen du.

Beltranek egia garbi jakin nahi du, eta bere burua hiltzat egiten du. Hilda bezala gelditzen da. Laster zabaltzen da inguruan Alostorreko gizonaren heriotza. Gaubelara lagun asko dator. Ahaideak eta adiskideak. Gaubelan Beltranen alaba Usoa atautera hurbiltzen da, bere aita laztantzen du, eta kantatzen hasten da: «Alostorrea bai, Alostorrea! Alostorreko eskailera luzea! Alostorrean nago goruetan, eta bele beltza kua-kua-kua leihoetan.»

Bele Beltz sasi-semearen aitaren ezizena da. Usoa luzaro ari da kantatzen. Haren berbak egiazkoak dira. Argi dago. Alostorreko semea etxekandrearena da. Orduan etxekandrea, Usoaren amordea, jaikitzen da, eta Bele Beltz ere bai. Bien artean Usoa hil gura dute. Orduan Beltran atautetik irteten da, eta Bele Beltz bertan hiltzen du. Eta Beltranek esaten du: «Mairu bat gehiagogatik eramango du nire kontzientziak.»

adiskide: amigo; **ahaide:** pariente; **alargun** (alargundu, alarguntze): envidiar; **aldi:** vez; **amorde:** madrastra; **ataute:** ataúd; **bakar:** único; **bele:** cuervo; **bila** (bilatu, bilatze): buscar; **dorre:** torre; **eraman:** soportar, aguantar; **ezizen:** mote, apodo; **ezkon** (ezkondu, ezkontze): casar; **ezkontza:** casamiento, matrimonio; **eztei:** boda, fiesta de casamiento; **gaizki:** malamente; **gaubela:** vela nocturna; **gorueta:** acción de hilar; **hilketa:** matanza; **hurbil** (hurbildu, hurbiltze): acercarse; **jaio:** nacer; **jabe:** dueño; **laztan** (laztandu, laztantze): abrazar, acariciar; **luzaro:** por largo tiempo; **mairu:** moro; **noizbait:** por fin; **sasi:** zarza; **sasikume:** hijo natural; **senargai:** aspirante a marido, novio; **zabal** (zabaldu, zabaltze): extender, propagar; **zurrumurru:** rumor.

91 LEHEN EUSKAL HITZ IDATZIAK

Euskara zaharra da. Oso aintzinakoa da. Baina euskara idatzia noizkoa da? Euskara idatzia ez da zaharra. Lehen euskal berba idatziek mila urte dauzkate. Sei berba bakarrik dira. Zeintzu dira sei berba hoik?

Errioxako herritxo bat da Kukulako Donemiliaga. Naxeratik hurbil dago. Logroniotik hara hogeita hamar kilometro inguru daude. Herrixka hortan komentu bat dago. Orain mila urte, hango fraide batek sermoi bat egin du. Orduan dena da latinez. Beste sermoi asko bezala, sermoi hau ere idatzi egin du. Ez dakigu fraidearen izena. Latinezko sermoi hortan hitz batzu sartzen ditu gaztelaniaz eta euskaraz.

Eta hitz hoixek dira euskarazko lehenengoak. Eta gaztelaniazkoak ere bai. Gaztelania jaiotzen ari da orduan. Euskaraz sei hitz bakarrik idazten ditu fraideak. «Izioqui dugu», esaten du esaldi batek. Eta beste batek: «Guec adjutu ez dugu.» Eta hauek dira lehen euskal hitz idatziak. Zer esan nahi dute? Ez dakigu seguru.

aintzinako: antiguo; **fraide:** fraile; **hurbil:** cerca; **jaio** (jaiotze): nacer; **gaztelania:** lengua castellana; **Kukulako Donemiliaga:** San Millán de la Cogolla.

92 FINLANDIAKO FANTASIAK

Beti argi, beti egun. Gauerdian ere eguzkia. Baina eguzki desberdina. Gaueko eguzkia. Guretzat hori guztiori ametsa da, fantasia hutsa da. Finlandian, ostera, egia da. Guretzat egia harrigarria, baina haientzat egia naturala.

Finlandiako gaua ilunabar bat bezala da. Gau guztiz laburra. Ordu batzu, eta berriz eguna. Gau argi eta epel hauk lilurgarriak dira. Eta gauerdian eguzkia? Hori da herri hontako beste fantasia bat. Urtean behin gertatzen da: San Jose gauean. Hau guztiau Finlandiako hegoaldean jazotzen da.

Baina iparraldean ez dago gauik bi hilabetetan. Gauerdia guztiz argia eta garbia da. Udaberriko egunak bezala. Guretzat hori zentzazio harrigarria da. Orientazioa galtzen da. Irrealitatea sentitzen da. Bi hilabetetan eguzkia zeruan bueltaka!

amets: sueño; **berriz:** nuevamente, de nuevo; **desberdin:** desigual, diferente; **gauerdi:** medianoche; **huts:** puro, mero; **ilunabar:** crepúsculo; **liluragarri:** fascinante; **ostera:** en cambio.

93 MUNDU BERRIKO ZIBILIZAZIOAK

Indioak Mundu Berrira oinez heldu dira. Geroago, itsasoak oraingo moduan jarri dira. Eta Amerika aislaturik gelditu da. Harezkero, Mundu Berriak eta Mundu Zaharrak harremanik eduki ote dute? Ez, antza.

Baina Mundu Berrian zibilizazio handiak daude. Esate baterako, Ertamerikan eta Perun. Mundu Zaharreko zibilizazioak handiak dira. Baina Mundu Berrikoak, handiagoak. Ez gauza guztietan. Baina gauza askotan bai.

Astronomiako gauza batzutan aurrerago daude. Haien egutegia zehatzagoa da. Aritmetikan zero kontzeptuaren lehen teorilariak dira. Haien hiri asko aberatsagoak dira. Nekazaritzan hobeak dira. Gaur egunean ere munduko janari gehienak Mundu Berriko alderdi hoietatik datoz.

Indioek huts edo errore haundi bat eduki dute. Horregatik erori dira. Zer huts izan da hori? Polborarik ez asmatzea.

alderdi: paraje, parte; **antza:** al parecer, según parece; **egutegi:** calendario; **Ertamerika:** América Central; **esate baterako:** por ejemplo; **gehien:** lo más; **harezkero:** de entonces en adelante; **harreman:** relación; **hiri:** ciudad; **hobe:** mejor; **huts:** fallo, error; **nekazaritza:** agricultura; **oin:** pie; **teorilari:** teórico; **zehatz:** exacto.

94 NOLA IGAR EGURALDIA?

Batzuk eguraldi ona edo txarra igartzen dute. Posible ote da hori? Ala gezurra ote da dena? Ez, ez da gezurra. Zerua,

zuhaitzak, txoriak eta gorputzeko minak eguraldiaren profeta onak dira.

Eguraldi onean atmosferako presioa altua da. Eta airea hautsez kargaturik egoten da. Ekaitzarekin presioa behera doa. Atmosfera garbitzen da, eta gauzak argi eta hurbil ikusten dira.

Profetarik onenak txoriak dira. Ekaitz aurretik, txori askok ez dute hegaz egin nahi. Arrantzaleak goizean kaioei begira egoten dira. Kaiok goizean itsas barrurantz hegaz egiten dute? Orduan eguraldi txarra. Zergatik? Ekaitz aurretik airea ez dago ondo, eta zaila da hegaz egitea. Orduan, txoriak protestatzen hasten dira. Antzarrek karraka egiten dute. Beleek ere bai. Eta okilek eskandalu izugarria ateratzen dute.

antzar: ganso; **arrantzale:** pescador; **bele:** cuervo; **ekaitz:** tempestad; **gezur:** mentira; **haitz:** roca; **hurbil:** cerca; **igar** (igarri, igartze): adivinar; **izugarri:** terrible, enorme; **kaiok:** gaviota; **karraka egin:** graznar; **okil:** picatroncos; **zail:** difícil; **zuhaitz:** árbol.

95 AMERIKAKO LEHEN BIZILAGUNAK

Espaniolek Mundu Berria deskubritu dute. Eta indioak aurkitu dituzte bertan. Indio hauk Amerikako lehen bizilagunak dira. Baina nola joan dira bertara?

Itsasoa ez da beti honela egon. Aintzina, askoz baxuago egon da. Garai hartan, Siberia eta Alaska bat eginda egon dira. Itsasoa izoztuta dago, eta gizonak alde batetik bestera pasatu ahal dira. Izoztaro hori luzea izan da. Noiz amaitu da? Orain hamahiru mila urte inguru.

Zientzigizon gehienek ustez, Amerikako lehen bizilagunak Siberiatik etorri dira. Migrazio hau orain berrogei ta hamar mila urte hasten da. Orain gizatalde batzu, eta gero beste batzu eta beste batzu. Horrela, indioak gaurko Estatu Batuetara hel-tzen dira.

Aurreko zibilizazioak hemen ez du balio. Indioen lehengo tresnek hemen ez dute balio. Hemen animalia haundiak daude: mamut izugarriak, mastodonteak, bisonteak eta abar. Garai hartako indioak animalia haundien ehiztari trebeak dira. Gero animalia haundiak galtzen dira, eta txikiak harrapatu behar. Hortarako tresna berriak behar. Orain bost mila urte inguru indioak landareak eta lurra lantzen hasten dira.

alde: lado; **amai** (amaitu, amaitze): acabar, terminar; **askoz:** por mucho; **bizilagun:** habitante; **ehiztari:** cazador; **garai:** tiempo; **gehien:** lo más; **gizatalde:** grupo humano; **izotz** (izoztu, izozte): helar; **izoztaro:** época de hielos; **izugarri:** terrible, enorme; **lan** (landu, lantze): labrar, laborar; **landare:** planta; **oin:** pie; **trebe:** hábil, diestro; **tresna:** instrumento, utensilio.

96 SAN PEDROREN KALAMITATEAK

Jesukristo eta San Pedro mendian zehar doaz. Ilunabarra heltzen da, eta baserri batetako atea jotzen dute.

—Nor da, eta zer nahi duzu? —galdetzen dute barrutik.

—Gu gara, eta gauerako aterpea gura dugu —esaten du Jesukristok.

—Sar, sar barrura. Bihar gari jotzaileak datoz. Bihar haiekin joango zarete lanera. Bestela, ez dago aterperik. Konforme?

Baietz esaten dute, eta Jesukristo eta San Pedro barrura sartzen dira. Afaritxo bat jaten dute, eta gero ohera. Biharamunean etxekandreak oso goizetik dei egiten du. Baina Jesukristo eta San Pedro lo daude. Ba dator amona, eta makila batekin San Pedro ederki jotzen du. Hala ere, ez dira jaikitzen.

«Pedro, etzan orain zu bazterrean», esaten dio Jesukristok. «Bestela, hori berriro etorriko da, eta zuk hartuko duzu berriz ere.»

San Pedro pozik dago bazterrean lo. Ba dator berriro amona, eta esaten du: «Lehen aurrekoa, orain bazterrekoa jo behar dut. Jaiki, alfer haundiok!» Eta amonak berriro ere San Pedro bero bero egiten du.

Azkenean Jesukristo eta San Pedro ohetik jaikitzen dira. Gari jotzaileak goizetik ari dira lanean. Jesukristo eta San Pedro heltzen dira, eta ugazabak esaten die: «Berandu etorri zarete. Ez daukazue lotsarik?»

Jesukristok sua ematen dio gari pila guztiari. «Zer egiten duzu? Gariari sua eman?» esaten du ugazabak haserrez beterik. Jesukristo gar artean dabil. San Pedro beraren alboan dago. Gari jotzaileek San Pedrori oratzen diote, eta bero bero egiten dute. Sua amaitzen da, eta denak harriturik daude. Alde batean gari garbia eta bestean ahotza ikusten dute. Orduan denak, Jesukristori eskerrak ematen hasten dira.

Biharamunean San Pedro goizetik jaikitzen da. Ixil ixilik beste etxe batetara doa. Eta hango gari pilari sua ematen dio. Baina ez dira gari garbia eta ahotza banatzen. Bai, ostera, gari guztia erre. Etxeko gizonak eta morroiek San Pedro sendo jotzen dute, eta ia ia hil egiten dute. Ozta ozta eta aieneka Jesukristogana heltzen da San Pedro. Eta harek esaten dio: «Pedro, Pedro! Nire partez makiladak hartu dituzu. Hortarako, asko balio duzu. Baina nire partez mirariak egitea, hori beste gauza bat da.»

afari: cena; **ahotz:** paja trillada; **aiene:** ay de mí!; **albo:** lado; **alde:** lado; **amai** (amaitu, amaitze): acabar, terminar; **amona:** abuela; **aterpe:** albergue; **baietz:** que sí; **balio izan:** valer; **bana** (banatu, banatze): separar; **bazter:** borde; **berriz:** nuevamente, de nuevo; **bestela:** de otro modo, si no; **biharamun:** día siguiente; **erre** (erretze): quemar; **etzan** (etzate): echarse, acostarse; **gar:** llama; **gari:** trigo; **hala ere:** sin embargo; **harri** (harritu, harritze): asombrarse, maravillarse; **haserre:** enfado, enojo; **ilunabar:** crepúsculo; **ixilik:** silenciosamente; **jo** (jotze): pegar, golpear; **jotzaile:** pegador, trillador; **lotsa:** vergüenza; **makila:** bastón, palo; **makilada:** bastonazo; **mirari:** milagro; **morroi:** criado; **ora** (oratu, oratze): agarrar; **ostera:** en cambio; **ozta ozta:** a duras penas; **pozik:** alegremente, contento; **su:** fuego; **zehir:** a través.

97 ROCK MUSIKA NAZISMOAREN AURKA

«Musika errebeldea nahi dugu. Kaleko musika gura dugu. Musika horrekin pertsonen arteko beldurra apurtu nahi dugu.

Oraingo musika gura dugu. Musika horrekin geure benetako etsaiak ezagutu nahi ditugu.»

Tom Robinsonen hitzak dira hauk, beraren lehen diskoan. Eta mugimendu bat sortu da. RAR (Rock Against Racism) mugimendua. Rock musikaren arrazismoaren kontrako mugimendua. Noiz sortu da RAR hori? 1976.eko agorrilean. Geroztik RAR klubeak hogeit hamar hiritan zabaldu dira.

Mugimendu honek indar handia hartu du Ingalaterran. Noren aurka? Zeren aurka? Nazismoaren aurka batez ere. Arrazismoa nazismoaren umea da. Eta Ingalaterran arrazistak asko gehitu dira. Londresen, azken udal hauteskundeetan, ehun eta hogeit mila botu lortu dituzte.

RAR hontako lagunak informalak eta anarkikoak dira. Ez da karnetik behar. Lagunak izan, eta aurrera. «Musika geuk kontrolatu ahal dugu», esaten dute. «Nazisten kontra goaz. Horrela, edozeren alde nahiz kontra burrukatu ahal dugu.»

Zer gertatuko da? Eskuindarrak behinik behin ez dira rock zaleak.

agorri: agosto; **alde:** a favor; **apur** (apurtu, apurtze): destrozar, romper; **aurka:** contra; **batez ere:** sobre todo; **behinik behin:** por lo menos; **beldur:** miedo; **burruka** (burrukatu, burrukatze): luchar; **edozer:** cualquier cosa; **eskuindar:** derechista; **etsai:** enemigo; **hauteskunde:** elección; **hiri:** ciudad; **zor** (sortu, sortze): crear, surgir; **udal:** municipio; **zabal** (zabaldu, zabaltze): abrir; **zale:** aficionado.

98 BELARREN MODA BERRIA

Belar batzuk ēritasunak sendatzen dituzte. Holako belarrak sendabelarrak deitzen dira. Belar medizinalak.

Belarra ona da behientzat. Belar klase batzu gizonentzat ere bai. Euskaldunak ere belar zaleak izan dira. Kamamila batez ere nork ez du inoiz bildu? Nork ez du inoiz kamamila batzen ikusi?

Nola lehortzen eta kontserbatzen dira belarrak? Baserrietan udan lan handia ematen du belarra biltzeak. Lehenbizi, belarra lehortu egin behar da. Sikatu egin behar da. Hortarako zer da onena? Eguzkia? Ez. Eguzkiak eta beroak sustantzia asko jaten du. Onena airea eta haizea da. Eguzkiak ez du jo behar belarra. Baserrietan belar kantitate handiak batzen dira. Horregatik, ez da posible eguzkiak belarra ez jotzea. Baina sendabelarrekin posible da.

Aire freskoa da onena. Aire freskotan jartzen dira belarrak. Noizean behin eragitea komeni da. Horrela, haize freskoa belar guztietara heltzen da. Denbora euritsuan artifizialki berotzen dira pixka bat. Kamamila, adibidez, eguzkitan lehortzea disparetea da. Belarrak indarra galtzen du. Baina euria hartzea txarra da.

baserri: caserío; **bat** (batu, batze): reunir, recoger; **behi:** vaca; **belar:** hierba; **bil** (bildu, biltze): recoger, reunir; **eragin** (eragite): remover; **eritasun:** enfermedad; **jo** (jotze): pegar, golpear; **kamamila:** manzanilla; **komeni izan:** convenir; **lehor** (lehortu, lehortze): secar; **noizean behin:** de vez en cuando; **senda** (sendatu, sendatze): curar; **zale:** aficionado.

99 NOLA PREPARATZEN DIRA SENDABELARRAK?

Ba dakigu belarrak lehortzen. Belarrak siku daude. Orain sendabelarrezko edaria egin behar dugu. Nola egingo dugu hori?

Hona hemen infusio guztietarako urrezko araua. Belarrek kolore argia eduki behar dute, eta inoiz ere ez kolore ilunik. Infusio edo edari ahulak hobeak dira. Kantitate handiak eta kolore ilunak ez dira hain onak. Sinesten ote duzu hori? Ba, hori horrelaxe da. Beraz, horrelaxe hartu behar dituzu tea, kamamila eta abar.

Beste urrezko arau bat. Ur beroa ona da. Baina ur hotza, hobe. Ur hotzak belarren sustantziak hobeto ateratzen ditu, eta haien propietateak ez dira galtzen. Ur beroak zer egiten du? Belarren sustantziak jan eta ebaratu.

Baina zer gertatzen da? Ur hotzak denbora luzea behar du. Hamabi bat ordu parte bigunentzat, eta egun osoa parte gogorrentzat. Gero berotu egiten da, eta edan. Baina ez da irakiten jarri behar. Ur berotan, berriz, bost edo hamar minutu nahiko dira. Tea nahiz kamamila etxean edaten duzu? Orduan, hobe da ur hotzetan preparatzea. Astia daukazu hortarako.

arau: regla; **asti:** tiempo libre; **belar:** hierba; **berriz:** en cambio; **bigun:** blando; **edari:** bebida; **hobe:** mejor; **ilun:** oscuro; **kamamila:** manzanilla; **lehor** (lehortu, lehortze): secar; **senda-belar:** hierba medicinal; **sinets** (sinestu, sineste): crear; **urre:** oro.

100 DISKATEGIETAKO ARGI BELTZA

Mundu guztiak ezagutzen du argi beltza. Argi hori lanpara batzuk ematen dute, eta lanpara hoik edonon saltzen dira. Diskategietan batez ere jartzen dituzte, eta horrela giro psikologiko berezia sortzen da.

Eragozpen bat daukate. Lanparen izpiak ultramoreak dira. Izpi ultramoreok zelulen bizia laburtzen dute. Zelulen ugalketa gutxitzen dute.

Baina amerikar emakume ikerlari batek beste gauza bat aurkitu du. Argi beltzak zerebroko zelulen ugalketa gehitzen du. Nola? Autokonponketa edo autoerreparazio sistema indartzen du. Biologoak aspalditik ari dira entzima konpontzaile famatuaren bila. Entzimak elementu batzu dira. Argi beltzak eragina dauka entzima hoietan. Nola eta zergatik da hori? Ondorio txarrik ote dator hortik? Hori jakin behar da orain.

Beraz, argi beltzezko bainuak ezin dira oraindik gomendatu. Goizegi da hortarako. Beharbada bai geroago. Orduan nork atera jendea diskategietatik?

batez ere: sobre todo; **berezi:** especial; **bila:** en busca; **bizi:** vida; **diskategi:** discoteca; **edonon:** en cualquier lugar; **eragin:** influencia; **eragozpen:** inconveniente; **gomenda** (gomendatu, gomendatze): recomendar; **ikerlari:** investigador; **indar** (indartu, indartze): fortificar; **izpi:** rayo; **labur** (laburtu, laburtze): acortar; **ondorio:** consecuencia, efecto; **ugalketa:** aumento, reproducción; **ultramore:** ultravioleta.

Odol analisiak oso ezagunak dira. Baina sarritan ile analisiak hobeak dira. Ilean detektatzen da metalen eta mineraleen eskasia. Gaixotasun askoren iturria ilean detektatzen da. Inteligentzia bera ere detektatzen da ilean. Odolean eta gernuan sustantzia asko detektatzen dira. Baina ilean hobeto eta gehiago detektatzen dira.

Barlow eta Kapel bi mediku ingeles dira. Eskizofrenikoen ileak aztertu dituzte, eta haxe atera dute. Kadmio eta magnesio gutxi daukate. Beruna eta burdina, ordea, gehiegi. Tratamendu egoki batekin kasu batzutan erresultatu onak lortu dituzte.

Kanadako Phil doktoreak ere eskandalu ederra armatu du. Ilean hamalau elementu aztertu ditu, eta diagnostikoa eman du. Haur batzu listoagoak dira, beste batzu gutxiago, ilearen elementuengatik. Ume listoek zink eta kobre gehiago daukate ilean. Iodoa eta kadmioa, berriz, gutxiago. Hau guztiau berifikatu nahi dute. Hortarako estudioak egiten ari dira.

azter (aztertu, aztertze): examinar; **berriz**: en cambio; **berun**: plomo; **burdina**: hierro; **ezagun**: conocido; **gaixotasun**: enfermedad; **gernu**: orina; **hobe**: mejor; **ile**: pelo; **iturri**: fuente; **ordea**: en cambio.

Donald Atlas medikua Kaliforniako San Diegon bizi da. Hango Unibertsitateko irakaslea da. Mediku honek estudio bat egin eta argitaratu du. Eta haxe atera du: Musikariak gehiago bizi dira. Munduko 35 orkesta zuzendari famatuenak aztertu ditu. Zuzendari hoik, batez beste, 73 urte eta 4 hilabete bizi izan dira. Estatistiken arabera, Estatu Batuetako batez bestea 68 urte eta 5 hilabete da.

Zuzendari hoien artean, kasu batzu nabarmenak dira. Adibidez, Leopold Stokowsky, musikari popularra, 96 urterekin hil da. Arturo Toscanini famatuak 90 urte harrapatzen ditu. Bruno Walter 85 urterekin hil da. Ernest Ansermet 86 urterekin.

Atlas medikuaren ustez, longebitate horren giltza hau da: talentu berezia, gizon hoien merituen aitorten publikoa eta lan betegarri batetara dedikatzea. Berezitasun hauetan ote dago bizitza luzearen giltza eta nerbioen kontrako antidotua? Hori suleritzen du Donald Atlas medikuak.

aitorpen: reconocimiento, confesión; **arabera:** según; **argitara** (argitaratu, argitaratze): poner a la luz, publicar; **azter** (aztertu, aztertze): examinar; **batez beste:** uno con otro, por término medio; **berezi:** especial; **berezitasun:** especialidad; **betegarri:** satisfactorio, que llena; **Estatu Batuak:** Estados Unidos; **giltza:** clave, llave; **hilabete:** mes; **nabarmen:** destacado, distinguido; **zuzendari:** director.

103 MUSIKA ETA HERIOTZA

Ezagutzen dugu Donald Atlas medikuaren estudioa. Estudio hortan munduko 35 orkesta zuzendari aztertzen ditu. Eta gehienek oso bizitza luzea daukate. Batez beste, 73 urte eta 4 hilabete. Ez da gutxi gero!

Hori orkesta zuzendarien artean. Eta musikegile edo konpositoreen artean? Musikegileak zenbat urte bizi dira?

Musikegile famatuak aztertu dira, eta hau konprobatu da: musikegileen bizitza laburra da.

Schubert 31 urterekin hiltzen da. Purcell 35 urterekin. Schumann 46rekin. Chopin 39rekin. Mozartek 35 urte harrapatzen ditu. Granados 49 urterekin hiltzen da. Beethoven 57rekin. Tchaikowsky 53rekin hiltzen da. Johann Strauss 45ekin. Mendelssohn 38rekin. Prokofiev eta Ravel 62 urtetara heltzen dira. Vivaldi 63 urterekin hiltzen da. Brahms 64 eta Bach 65ekin. Gure Usandizaga, berriz, 28 urterekin hiltzen da 1915.ean.

Beste hauk zahartzaroan hiltzen dira: Bruckner 68 urte, Falla 70, Wagner 73, Haendel 74, Liszt 75, Haydn 77, Richard Strauss 85, Verdi 88.

Musikari asko gazterik hiltzen dira. Bizitzaren aldetik, musika kreetzea eta musika dirigitzea ez dira berdin. Horixe ateratzen da hemendik.

alde: lado; **azter** (aztertu, aztertze): examinar; **batez beste:** uno con otro, por término medio; **berriz:** en cambio; **zahartzaro:** vejez.

104 ADAN ETA EBA BERRIAK

Bi senar-emazte bizi dira. Peru eta Maria. Ez daukate umerik. Beti haserre dira. Senarra ikazkina da, eta beti ari da emazteari agirika egiten. Baina emaztea ona eta garbia da.

Garizuman misioak ematen dituzte herrian, eta senarra elizara doa. Elizan hau entzuten du: «Lehen emakumea da gaitz guztien erruduna. Eba da erruduna. Ebak engainatu du Adan.»

Ikazkina etxera etortzen da, eta garrasika hasten da: «Emakume madarikatua, zu zara Eba!» Senarra beti Eba aipatzen ari da.

Behin erregea pasatzen da handik, eta esaten die: «Gizaixoak, etor nire jauregira!»

Jauregian oso pozik eta ondo bizi dira. Ezin dute sinestuerere. Erregearen morroi bat dator, eta esaten die: «Errege nire jaunak kutxa hau ematen dizue. Baina ezin duzue ireki. Itxita eduki behar duzue. Bestela, gauza txarren bat gertatuko zaitzue.» Senar-emazteek kutxa hartzen dute, eta gaumahaian uzten dute.

—Peru, zer ote dago kutxa horren barruan? —esaten dio Mariak.

—Ixilik! Kontuz kutxa horrekin! —erantzuten dio Peruk.

—Peru, hemen ez dago inor —esaten dio andreak—. Gu bakarrik gaude. Gaua da. Ohean gaude, eta itxita dago atea.

Eta horrela gau bat eta beste bat eta beste asko. Mariak ezin du lorik egin, eta esaten dio senarrari:

—Peru! Ez zara gizona ere. Biok bakarrik gaude. Zergatik ez duzu ireki nahi? Tentela zara.

—Ea ba, ea ba! —erantzuten dio Peruk.

Bien artean kontuz irekitzen dute kutxa. Apur bat, beste apur bat, beste apurtxo bat, eta txirrist. Sagu txiki txiki bat irten da, eta gelako zulo batetan sartzen da. Erregea etortzen da, eta galdetzen du: «Non dago nire sagutxo polita? Nor da erruduna?» Peruk Eba esaten du, eta Mariak Adan. Eta erregeak: «Beti Adan eta beti Eba. Biok etxera!»

Eta Peru eta Maria etxera doaz, eta berriro ikatzaz sua egiten hasten dira.

agirika egin: reñir; **aipa** (aipatu, aipatze): mencionar; **errege:** rey; **errudun:** culpable; **gaitz:** mal, desgracia; **garizuma:** cuaresma; **garrasi:** grito; **gizaixo:** pobrecito, cuitado; **haserre izan:** estar enfadado; **ikazkin:** carbonero; **inor:** nadie; **ireki** (irekitze): abrir; **jauregi:** palacio; **madarikatu:** maldito; **morroi:** criado; **pozik:** alegremente; **sagu:** ratón; **sinets** (sinestu, sineste): creer; **su:** fuego; **tentel:** fatuo, tonto; **zulo:** agujero.

105 SUGESTIOA ETA HIPNOSIA

Georgi Lozanov psikiatra bat da. Hipnosian espezializaturik dago. Hipnosiak eritasunak osaten ditu eta memoria gehitzen du. Baina, hortarako, askoz hobea omen da sugestioa. Hori dio Lozanov jaunak.

Entzun duzu inoiz musika kontzerturik? Musika kontzertuek erlaxapena ematen dute. Erlaxapen hori guztiz ona ei da. Er-

laxapen horrek askaturik uzten du laguna. Orduan lagun horrek edozer absorbitzen du eta inkontzientzian grabatzen du. Hori esaten du Lozanov medikuak.

Gizon hau aspalditik dabil teknika hau lantzen. Beraren ustez, hipnosia teknika bat da, eta teknika honekin sugestioa lortzen da. Lozanov jaunak hipnosi gabeko teknikak ere landu ditu. Teknika hau oso onak ei dira neurotikoentzat. Teknika hauekin hizkuntzak eta zientziak ere hobeto ikasten omen dira.

Lozanov medikuaren lanak Italian zabaldu dira. Eta eztabaida beroak sortu dituzte. Lagun askok ez dute nahi hipnotizatuak izan. Lozanov jaunaren ikerketek arlo berria irekitzen dute.

arlo: campo de acción; **aska** (askatu, askatze): soltar, desatar, liberar; **edozer:** cualquier cosa; **eritasun:** enfermedad; **erlaxapen:** relajación; **eztabaida:** disputa, discusión; **ikerketa:** investigación; **ireki** (irekitze): abrir; **lagun:** individuo; **lan** (landu, lantze): elaborar, cultivar; **osa** (osatu, osatze): curar; **zabal** (zabaldu, zabaltze): extender, propagar.

106 BUROKRAZIA ALKOHOLIKOA

Alkoholaren kontsumoa gorantz doa Alemanian. Eta ez kantitatez bakarrik. Gorantz doa, eta burokrazia ere harrapatu du. Alemania nazio aurreratua omen da. Han ere ondo bizi nahi dute. Ez dute gaizki bizi gura. Eta, hortarako, alkohola behar dute, antza.

Rudolf Claussens jauna funtzionari federalen arduraduna da. Berak zaindu behar du funtzionarien diziplina. Funtzionari asko edanda joaten dira lanera. Hori gero eta gehiago gertatzen da. Hori esan du Claussens jaunak.

Alemania Federalean bostehun mila funtzionari daude. Eta asko mozkorturik joaten ei dira lanera. Igaz mila ta hamazortzi funtzionari bidali dituzte lanetik. Hoi en artean erdiak inguru alkoholikoak izan dira.

Alemanek ere alkohola maite dute. Hori ba dakigu. Burokrazia ere mozkortia da. Hori orain jakin dugu. Ederto daude Hitler arrazistaren semeak eta ilobak.

antza: al parecer, según parece; **arduradun:** encargado; **aurrera** (aurreratu, aurreratze): adelantar; **gaizki:** malamente; **igaz:** el año pasado; **iloba:** nieto; **maite izan:** amar; **mozkor** (mozkortu, mozkortze): emborrachar; **mozkorti:** borracho; **zain** (zaindu, zaintze): cuidar, vigilar.

107 PINTORE HANDIA GARTZELAN

Tokyon, Sadamichi Hirasawa pintorearen erakusketa bat egin dute. Eta arrakasta handia eduki du. Sadamichi heriotzara kondenaturik dago. Pintura hoik gartzelan egin ditu. Nola joan da Sadamichi Hirasawa gartzelara?

1948.ean gizon bat banku batetan sartzen da. «Sanitateko inspektorea naiz», esaten die bankukoei. «Tifus gogorra dago, eta hauxe hartu behar duzue.»

Bankuko hamasei enplegatuek pastila bana eta likido bat hartzen dute. Eta denak berehalaxe hiltzen dira. Likidoan potasioa dago. Orduan «inspektoreak» diru guztiak eramaten ditu.

Hirasawa detenitzen dute, torturatzen dute, eta honek baietz esaten du. Edo esan behar du. Hala ere, heriotzara kondenatzen dute. Hamabi aldiz eskatu du errebisioa. Baina ez du lortu. Justizi ministraritzakoak ez dira ausartzen sententzia betetzen.

Eta gure gizona han dago gaur ere, kondenatuen gartzelan. 87 urte dauzka pintore agureak.

agure: anciano; **aldi:** vez; **arrakasta:** éxito; **ausart** (ausartu, ausartze): atreverse; **baietz:** que sí; **berehala:** en seguida, al momento; **erakusketa:** exposición; **gartzela:** cárcel; **ministraritz:** ministerio.

108 LAPUR DOHATSUAK

Pariseko Foch etorbidean, lapur batzu sartu dira etxe elegante batetara, diru bila. Eta harrituta geratu dira. Harrapakin

haundia aurkitu dute, eta ezin dute sinestu. Etxe horren jabea munduko gizonik aberatsena da: Mohammed Mefdi Al-Tajir.

Hona hemen harrapakina: 250 zilarrezko plater, bost kilotako sable bat urre hutsezkoa, bolizko betagin zizelatuak. Luis XV.aren garaiko bitxiak, Pertsiaiko tapizak, eta abar. Eta dena eramán dute. Eta, hortarako, etxeko garajeán Jaguar bat eta Land Rover bat ohostu dituzte.

Mohammed ez da bizi Parisen. Pariseko poliziak berehalaxe bota dio abisua. Baina Mohammed ez da batere estutu. Foch etorbideko lapurreta huskeria bat da harentzat. Horregatik, Parisera joatea ez zaio burura etorri ere.

Honelako kasuetan ez ote da penagarria lapurrak harra-patzea?

batere: en absoluto; **berehala:** en seguida; **betagin:** colmillo; **bila:** en busca; **bitxi:** joya; **boli:** marfil; **dohatsu:** afortunado, dichoso; **estu** (estutu, estutze): apurarse, inquietarse; **etorbi-de:** avenida; **harrapakin:** botín; **harri** (harritu, harritze): asombrarse; **huskeria:** nadería, insignificancia; **huts:** puro; **jabe:** dueño; **lapur:** ladrón; **lapurreta:** robo; **ohos** (ohostu, ohoste): robar; **penagarri:** digno de pena, lamentable; **sinets** (sinestu, sineste): creer; **urre:** oro; **zilar:** plata; **zizela** (zizelatu, zizelatze): cincelar, esculpir.

109 PROJEKTU HARRIGARRIA

William Clifford Australiako Kriminologi Institutuko zuzendaria da. Jaun honek UNOri irla bat eskatu dio. Zertarako? Nortzurentzat? Errege, enperadore, presidente eta lehen ministro erorientzat. Jaun honen ustez, neurri hori oso gizakoa da. Holako pertsonaia inportante askok beren nazioa utzi behar izan dute. Oposiziokoek bota dituzte handik, eta hil gura dituzte. Baina holako pertsonaia inportanteak munduan zehar ibiltzea ez dago ondo. Hori arrisku bat da munduarentzat ere. Zer egin? Gauzarik onena, denak irla batetan sartzea da.

Irlako bizilagun berriok ez dira gutxi izango. Iraneko Sha, Somoza, Macías, Amin, Bokassa, eta abar. Zer egingo dute

hauek irlan? Ganadua jagongo dute, eta horrelako lanak egingo dituzte.

Bost urterik bost urte, auziak aztertu egingo dira, eta ikusi egingo da kasu bakoitzaren egoera. Hori da Clifford jaunaren projektua. Nor joango da irla hortara? Nork zainduko du irla hori?

arrisku: peligro; **auzi:** causa judicial; **azter** (aztertu, aztertze): examinar; **bakoitz:** cada uno; **bizilagun:** habitante; **egoera:** situación **errege:** rey; **gizakoi:** humanitario; **irla:** isla; **jagon** (jagote): cuidar, vigilar; **neurri:** medida; **pertsonaia:** personaje; **zain** (zaindu, zaintze): cuidar, vigilar; **zehir:** a través; **zuzendari:** director.

110 IKAZKINA ETA HERIOA

Etxola batetan ikazkin bat bizi da. Baba, taloa eta gazta bakarrik jaten du. Estu eta gaizki bizi da. Behin afaltzen ari da. Norbaitek atea jotzen du.

—Nor da?

—Gau hontarako aterpea nahi dut.

—Nor zara, ba?

—Jainkoa naiz.

—Zuri aterpea? Batzu ondasunez betetzen dituzu. Beste batzu, ostera, egun guztian lan egiten gabiltza, eta ozta ozta bizi gara. Ez. Zoaz hortik.

Geroago beste batek jotzen du atea. Ikazkinak «nor da?» galdetzen du, eta besteak «Herioa naiz» erantzuten du. Orduan ikazkinak: «Zuri bai. Zu denekin zara berdina. Aberatsak nahiz pobreak berdin tratatzen dituzu. Sar, mesedez, barrura.»

Herioak ikazkinarekin afaltzen du. Ikazkinak ohea ere ematen dio, eta biharamun goizean gosaria. Herioak eskerrak ematen dizkio, eta esaten du:

—Zer nahi duzu? Esan, esan, eta nik berehalaxe emango dizut.

—Nik... nik... ez dut honela bizi gura —erantzuten dio ikazkinak—. Zabaltasun eta lasaitasun apur bat nahi dut. Hobeto bizi gura dut.

—Zoaz erregeren hirira —esaten dio Herioak—. Erregina oso gaizki dago. Medikuek ezin dute osatu. Sar jauregira. Sar gaixoaren gelara. Ni gaixoaren burualdean edo oinaldean egongo naiz. Hori izango da seinalea. Lehen kasuan hil egingo da erregina. Bigarreanean osatu egingo da.

Ikazkina ba doa erregearen jauregira. Medikuek eta hango guztiek barre egiten dute. Baina ikazkinak erregina ikusi nahi du. Eta azkenean lortzen du. Erregeak baietz esan du. Medikuek haserre dira. Gizontxo hura barregarri utzi gura dute. Eta mediku bat ohean sartzen da. Ikazkina eramaten dute. Ikazkinak burualdean ikusten du Herioa. Eta esaten du: «Gaixo hau laster hilko da.» Beste medikuek barre egiten dute. Baina laster bukatzen dira barreak. Mediku hura hil egiten da.

Ikazkinak gero erregina ikusten du. Herioa oinaldean ikusten du, eta esaten du: «Hau biziko da.» Eta enplastu batzuren bidez sendatzen du. Erregeak beste mediku tentelak jauregitik kanpora botatzen ditu. Eta ikazkina bere mediku egiten du.

—Zer nahi duzu? Eska, eska, eta nik behingoan emango dizut —esaten dio erregeak.

—Nik, jauna, ondo ondo bizi nahi dut —erantzuten dio ikazkinak.

Geroztik ikazkina erregearen jauregian bizi da. Ederki eta pozik bizi da. Behin Herioa etortzen da, eta ikazkinari esaten dio:

—Zure bila nator.

—Nire bila? Urte askotan ikazkina izan naiz, eta nire bizitza gogorra izan da. Egun on batzu bakarrik pasatu ditut hemen, eta nire bila zatoz?

—Nik aberatsak eta pobreak berdin tratatzen ei ditut. Hori esan didazu zuk. Orain zure ordua heldu da.

—Mesedez, eman niri denbora apur bat, eta Gure Aita eta Agur Maria errezatuko ditut.

Herioak baietz esaten du. Ikazkinak Gure Aita errezatzen

du. Baina ez Agur Maria. Egunak eta egunak pasatzen dira, eta ikazkinak ez du Agur Maria errezatzen. Zer egingo du Herioak? Haritz adar batetatik zintzilik jartzen da. Urkaturik bezala dago. Ikazkinak Herioa hilda ikusten du, eta pozik esaten du Agur Maria. Orduan Herioak burua jasotzen du, eta «orain neurea zara!» esaten dio ikazkinari. Eta berekin eramaten du gizaixoa.

adar: cuerno de árbol, rama; **afal** (afaldu, afaltze): cenar; **aterpe:** albergue; **baba:** haba; **baietz:** que sí; **barre egin:** reír; **barregarri:** ridículo, digno de risa; **behingoan:** en seguida, al instante; **berehala:** en seguida, al momento; **bide:** medio, camino; **biharamun:** día siguiente; **bila:** en busca; **buka** (bukatu, bukatze): acabar, terminar; **burualde:** cabecera, lado de la cabeza; **errege:** rey; **erregina:** reina; **estu:** prieto, estrecho; **erreza** (errezatu, errezatze): rezar; **etxola:** cabaña; **gaizki:** malamente; **gizaixo:** pobrecito, cuitado; **gosari:** desayuno; **haritz:** roble; **haserre izan:** estar enfadado; **Herio:** Muerte; **hiri:** ciudad; **ikazkin:** carbonero; **jauregi:** palacio; **lasaitasun:** desahogo; **norbait:** alguien, alguno; **oinalde:** lado de los pies; **ondasun:** bien, cosa buena; **osa** (osatu, osatze): curar; **ostera:** en cambio; **ozta ozta:** a duras penas; **senda** (sendatu, sendatze): curar; **tentel:** imbécil; **urka** (urkatu, urkatze): ahorcar; **zabaltasun:** anchura, amplitud; **zintzilik:** colgando.

111 DELIKTUAREN GORPUTZA

Zuzenbidean formula bat erabiltzen da, eta hauxe da: Deliktuaren gorputza. Zer da hori? Zer da deliktuaren gorputza?

Zuk makila batekin lagun bat jotzen duzu. Eta ohean jotzen duzu. Ba, makila hori eta ohea, hau da, tresna eta lekua, horixe da deliktuaren gorputza. Esaera hortan gorputza konparazio bat da. Baina orain beste gauza bat dago. Gorputza bera da deliktuaren gorputza.

Begira! Zientzigionek gauza bat aurkitu dute. Zer? Giza gorputzak, gure gorputzak, lurreko arlo elektrostatikoa aldatzen ei du. Aurkikunde hau ez da lapurrentzat ona izango. Aurkikunde honen aparailua lapurren kalamitatea izango da. Norbait hiru kilometrotatik barrura hurbiltzen da, eta aparailu hau martxan jartzen da. Aparailu honen bidez polizitegiko

adarra jotzen da, eta telefonoa deika hasten da. Aparailuak ez du erradiaziorik ematen, eta horregatik ezin da detektatu.

Aparailu kopritxosoa. Gorputza bakarrik maite du. Ez dago gezurrezko alarmarik. Aparailu hau ez du beste ezerk martxan jartzen: ez gortinek, ez tapizek, ez ezerk. Giza gorputzak bakarrik mugitzen du. Hitz batez, aparailu marikoia.

adar: cuerno, sirena; **alda** (aldatu, aldatze): cambiar; **arlo:** campo de acción; **aurkikunde:** descubrimiento; **esaera:** dicho, expresión; **gezur:** mentira; **giza:** humano; **hurbil** (hurbildu, hurbiltze): acercarse; **lapur:** ladrón; **leku:** lugar; **maite izan:** amar; **makila:** bastón, palo; **norbait:** alguien; **zuzenbide:** ciencia del derecho.

112 GILOTINATUA NOIZ HILTZEN DA?

Inoiz sugeritu da, demostratu ere bai, eta gero ahanztu. Gilotinatua zerebroa ez da berehala hiltzen. Lepoa moztzen zaio, baina ez da momentuan bertan hiltzen. Hori diote doktore batzuk.

Arratoiari, adibidez, lepoa moztzen zaio, eta haren zerebroko ihardun elektrikoak martxan segitzen du. Hamaika segundutatik hogeitau batetara irauten du normalki. Hori agertzen da elektroentzelograman. Hau ez da gauza berria fisiologoentzat. Burua moztzen da, eta presio arteriala zerora dator. Hala ere, odola ez da berehala eliminatzen. Zain jugularretan zehar doa astiro. Honela globulu gorriek oxigeno apur bat ematen segitzen dute. Zeri? Nerbio zelulei.

Nolakoak dira buru gilotinatua erreakzioak? Esperientzia batzu egin dira hortaz. Buru gilotinatua minutu erditik minutu ta erdira irauten omen du bizirik. Beraz, buru moztuak argitasun mentala dauka gero ere. Heriotz zigorraren aldekoek hori ere kontutan eduki behar dute.

ahantz (ahanztu, ahanzte): olvidar; **astiro:** despacio; **berehala:** al instante; **ihardun:** actividad; **inoiz:** alguna vez; **iraun** (iraute): durar; **lepo:** cuello; **motz** (moztu, mozte): cortar; **zain:** vena, arteria; **zehar:** a través; **zigor:** castigo, pena.

113 ITSASOKO TERMOMETROA

Itsasoko ura kutsatu egiten da. Merkurioak kutsatzen du. Baina sarritan oso zaila izaten da kutsadura hori neurtzea. Ikerlariak atun bat hartzen dute. Atun hori kutsaturik dago. Baina atuna asko ibiltzen da. Hara eta hona ibiltzen da. Non kutsatu da? Non dago kutsalekua?

Frantziako ikerlari talde bat estudiatzen hasi da. Itsasoko organismo geldiak edo geldikorak aztertzen hasi da. Behar bada organismo hoik adierazleak izango dira. Ba ote dago horrelako organismorik?

Bila hasi dira, eta alga bat aurkitu dute. Alga gorria. Alga honek kutsaduraren maila ematen du. Bera geldi dago, eta gainera beraren adina ere errez ateratzen da. Alga honek abantaila handi bat dauka. Leku kutsatuetan ere ernetzen eta hazten da. Berak ez daki, baina itsasoko termometroa da.

abantaila: ventaja; **adierazle:** indicador; **adin:** edad; **bila:** en busca; **erne** (ernetze): brotar, germinar; **gainera:** además; **geldi:** quieto, inmóvil; **geldikor:** sedentario; **haz** (hazi, hazte): crecer; **ikerlari:** investigador; **kutsa** (kutsatu, kutsatze): contaminar; **kutsadura:** contaminación; **leku:** lugar; **maila:** grado; **neur** (neurtu, neurtze): medir.

114 HELDUTASUNAREN NEURGAILUA

Tresna txiki bat asmatu dute. Termometro baten antzekoa da. Sagarretan, madarietan eta beste fruituetan sartzen da, eta haien heldutasuna neurtzen du.

Tresnatxo hau fruituaren azalean jartzen da. Pixka bat sartzatzen da, eta fruituaren haragian sartzen da. Sartze honek adierazgailu bat martxan jartzen du. Adierazgailu horrek eskala bat dauka, eta bertan puntu gorri batek fruituaren heldutasunik onena markatzen du. Eta horrela sagarrak, madariak eta beste fruituak momenturik onenean bildu ahal ditugu.

Merkatarientzat eta dendarientzat ere asko balio du neurgailu honek.

adierazgailu: aparato indicador; **antz:** semejanza, parecido; **azal:** superficie exterior, corteza; **dendari:** tendero; **heldutasun:** madurez; **merkatari:** mercader, comerciante; **neur** (neurtu, neurtze): medir; **neurgailu:** instrumento medidor; **saka** (sakatu, sakatze): empujar, presionar.

115 MINAREN ERREMEDIO BERRIA

Sistema berri berri bat asmatu dute. Zer egiten da sistema berri horrekin? Mina detektatzen eta kentzen da. Donald Richardson doktorea da sistema horren sortzailea.

Zerebroan elektrodo bat jartzen da. Elektrodo honek zerebroa estimulatu du, eta orduan zerebroak sustantzia bat ematen du. Sustantzia horrek mina kentzen du. Sustantzia hori endorfina deitzen da. Morfinaren antzekoa da.

Endorfina hau ugari dago zerebroko gai grisean, eta zerebroak mugagabeki liberatu ahal du. Endorfinarekin, minaren sentsazioa guztiz galtzen da. Min kronikoaren sentsazioa ere bai. Elektrodoak sakon sartzen dira, eta endorfina asko liberatzen da. Hauxe da proportzioa: zortzi minututan zortzi edo hamabi ordutarako endorfina produzitzen da. Gainera, operazio denboran, gaixoa itzarririk dago, eta berak gidatzen du medikua. Anestesia bakarra ile larruan egiten da.

gai: materia; **gida** (gidatu, gidatze): guiar, dirigir; **ile:** pelo; **itzar** (itzarri, itzartze): despertarse; **mugagabeki:** ilimitadamente; **sakon:** profundo; **sortzaile:** creador, inventor; **ugari:** abundante.

116 SAKRISTAUAREN EZKONTZA

Herri batetan neska bat bizi da. Alaba bakarra eta oso aberatsa da. Aita eta ama ere bizi dira, eta ez dator mutilik etxera. Umezurtz gelditzen da neska, eta orduan datoz komediak. Gaur emakume bat, bihar bi, etzi hiru eta horrela datoz neskaren etxera. Denek beren mutila eskaintzen diote.

Neskak ere ezkondu nahi du. Baina ez daki norekin. Eta goizero elizara joaten da. Andre Mariaren aurrean luzaro egoten da. Sakristaua ere han dabil disimuluan. Neskak ez du ikusten sakristaua. Eta Ama Birjinaren aurrean hau esaten ari da: «Ama, amatxo maitea! Senar on bat nahi dut, zure gogokoa. Nor hartuko dut?»

Sakristauak bazter batetatik hori entzuten du. Biharamunean goiz goiz joaten da elizara. Oraindio ez da neska etorri. Andre Mariaren ostean ezkututzen da. Hantxe dago geldi geldi eta ixil ixilik. Egunsentian, beti legez, ba dator neska eta Andre Mariaren aurrean belaunikatzen da. Burua makur dauka. Hala-ko batez burua jasotzen du eta honela dio: «Ama, amatxo maitea! Senar on bat gura dut, zure gogokoa. Nor hartuko dut, ama?» Eta sakristauak orduan Ama Birjinaren ostetik esaten du: «Sakristaua, alabatxo, sakristaua. Horixe zuretzat onena.»

Neskak Andre Mariaren gogoia entzun du, eta pozik doa etxera. Ilunabarrean sakristaua etxean dago. Eta emakume bat dator atera neskaren partez.

—Krispin! —esaten dio mutilari—. Nahi duzu ezkondu?

—Ni ezkondu? —erantzuten dio harek—. Norekin?

—Umezurtz aberats batekin.

—Baina nik ez daukat ezer. Goian zerua, behean sakristia eta sorotxo bat bakarrik.

—Berdin da, Krispin. Zerua zure alde dago. Neskak zurekin ezkondu gura du.

—Ederki! —esaten du sakristauak—. Jainkoak nahi du hori, eta Jainkoaren nahia zeruan bezala lurrean ere egin behar da.

Eta neska eta sakristaua hurrengo udaberrian ezkontzen dira.

alde: a favor; **bazter:** rincón; **belaunika** (belaunikatu, belaunikatze): arrodillarse; **biharamun:** día siguiente; **egunsenti:** alba, aurora; **eskain** (eskaini, eskaintze): ofrecer; **ezkon** (ezkondu, ezkontze): casar; **ezkontza:** casamiento; **ezkuta** (ezkutatu, ezkutatzte): esconder; **geldi:** quieto; **gogo:** gusto, deseo; **goi:** parte alta; **goizero:** todas las mañanas; **halako batez:** en una de ésas; **ilunabar:** atardecer; **ixilik:** silenciosamente; **legez:** como; **luzaro:** por largo tiempo; **maite:** querido, amado; **makur:** inclinado; **oraindio:** todavía; **oste:** parte posterior; **sakristau:** sacristán; **soro:** campo, heredad; **umezurtz:** huér-fano.

Zer da liztorra? Liztorra intsektu bat da. Zazt egiten du. Erleak, inurriak, termitak eta liztorrak familia batekoak dira. Liztorrak mingarriak dira. Baina miragarriak ere bai. Eta hori askok ez dakite.

Liztor batzuk beren etxea egiten dute. Eta horregatik igeltsariak deitzen dira. Liztorren artean kastak daude. Lana banaturik dago. Komunikabide aurreratuak daukate. Eta etxeak edo habiak guztiz ondo egiten dituzte.

Baina batez ere liztorrek estruktura soziala daukate. Hori da miragarria. Alde batetik, mota bereko kideak elkartzen dira, eta kumeak zaintzen dituzte. Bestetik, eginkizun edo funtzioak banaturik daude. Antzuek ernarien zerbitzuan lan egiten dute. Eta azkenez, taldearen bizitzan, gutxienez bi belaunalditan koloniako lanera dedikatzen dira.

Berezitasun hauk batera edo konbinaturik ere agertzen dira. Beraz, maila presoziala ere ba daukate.

antzu: estéril; **aurrera** (aurreratu, aurreratze): adelantar; **banana** (banatu, banatze): distribuir; **batera:** a una, a la vez; **bereko:** igual, mismo; **berezitasun:** especialidad, particularidad; **eginkizun:** quehacer; **elkar** (elkartu, elkartze): unir, asociar; **erle:** abeja; **ernari:** preñado; **habia:** nido; **igeltsari:** albañil; **inurri:** hormiga; **kide:** compañero, socio; **komunikabide:** medio de comunicación; **kume:** cría; **liztor:** avispa; **maila:** grado, escala; **mingarri:** dolorífero, que causa dolor; **miragarri:** admirable, maravilloso; **mota:** clase; **zain** (zaindu, zaintze): cuidar, vigilar; **zazt egin:** picar; **zerbitzu:** servicio.

Ezagutzen dugu liztor igeltsaria. Hauxe da igeltsaririk zaharrena. Liztor honek bizitza laburra dauka. Aste batzu bakarrik. Maiatzaren azkenean arra eta emea batzen dira. Gero arrak ihes egiten du. Emeak arraultzeak gorde behar ditu, eta hortarako etxea egin behar du.

Lehenbizi lekua bilatzen du. Hainbat liztor biltzen dira bertan. Bakoitzak bere etxea egingo du lurrean. Lehenik ura ekartzen du. Uraz lurra biguntzen du. Horrela errezago egingo du zuloa. Ura sabelean ekartzen du. Ura botatzen du, eta zuloa egiten hasten da. Zuloa egiten du, eta lur zatiak zulo alboan uzten ditu. Gero lur zati hoiekin dorretxo bat egingo du. Horrela etsaiak ez dira barrura sartuko.

Etxea bi egunetan egiten du. Orduan liztorra janari bila doa larba txikiarentzat. Beldar berde txikiak ekartzen ditu. Etxea beldarrez betetzen du, habiaren ahoa ixten du, eta han haziko dira larba txikiak. Larbak handi egiten dira, baina hurrengo urterarte lurpean egongo dira. Hurrengo urtean liztor berriak lurpetik irtengo dira, eta lan berdina egingo dute. Hor ez dago alferrik.

albo: lado; **ar:** macho; **bakoitz:** cada uno; **bat** (batu, batze): unir; **beldar:** oruga; **bigun** (bigundu, biguntze): ablandar; **bila:** en busca; **bila** (bilatu, bilatze): buscar; **dorre:** torre; **eguzkitsu:** soleado; **eme:** hembra; **errez:** fácil; **etsai:** enemigo; **etxegile:** constructor de casas; **habia:** nido; **hainbat:** mucho; **haz** (hazi, hazte): crecer; **igeltsari:** albañil; **ihes egin:** huir; **lehenik:** primeramente; **liztor:** avispa; **lurpe:** bajo tierra; **sabel:** vientre; **zulo:** agujero.

119

TROBALARIAK ETA KOBALAKARIAK

Zer dira trobalariak? Erdi Aroko bertsolariak. Trobalariak benetako poetak dira. Hauek kantuak eta letrak egiten dituzte. Jauregietan eta etxe-handietan bizi dira. Erregeen eta jende handien ondoan bizi dira. Gehienetan, hauek ez dute kantatzen. Kantuak eta letrak bakarrik egiten dituzte.

Kantariak beste batzu dira. Kobalariak deitzen dira. Kobalariak jende herritarrak dira. Gehienetan, jende pobrea. Plazetan eta gorteetan kantatzen dute. Era batera erdi komedianteak eta mimoak dira. Kobalari batzu, beren talentuagatik, trobalari mailara igoten dira. Trobalariak ogia irabazi behar dute, eta batzu kobalari moduan ibiltzen dira.

Zer kantatzen dute hauek? Gehienetan, hauen kantuak xebreak eta ironikoak dira. Kantu asko maitasunezkoak dira. Genero honek indar handia hartzen du. Koblakariak Fernando Amezketarraren antzeko pertsonaiak dira.

Erdi Aroa pasatzen da, eta koblakariak galtzen dira. Euskal Herrian bertsolariak hasten dira. Baina inprobisazioa, seguraski, geroagoko gauza da.

aro: época, edad; **era batera:** al mismo tiempo; **gorte:** corte; **herritar:** popular; **koblakari:** juglar; **jauregi:** palacio; **kantari:** cantor; **maitasun:** amor; **pertsonaia:** personaje; **seguraski:** seguramente; **trobalari:** trovador.

120 MAITATZAILE DOHAKABEA

Trobalarientzat emakumea izaki ideala da. Dama batzuk pozik hartzen dute trobalaria. Honek alabantzak kantatzen ditu. Beste batzutan dama beldur da, eta trobalarien gustua egiten du. Trobalarien mundua ezagutu nahi duzu apur bat? Hona hemen kasu bat. Kasu nabarmena, baina espresiboa.

Erdi Aroan printze bat bizi da Frantzian, Garona ibaiaren ondoan. Siriako Tripoli hirian kondesa bat bizi da, eta printzea harekin maitemintzen da. Printzeak ez du ezagutzen bere maittea. Baina haren poemak entzun ditu, eta hala maitemintzen da. Orduan berak ere poemak egiten ditu kondesarentzat. Baina ez dute elkar ezagutzen. «Nire dama nire gogoaren krezioa da, eta egunsentian desagertzen da», esaten du printzeak.

Gero printzea Lur Sainduetara doa. Bidean gaixotzen da. Oso gaizki dago. Lagunek hiltzat ematen dute. Tripoliko ostatu batetara eramaten dute. Kondesak haren historia entzuten du. Kontsolatu nahi du poeta gaixoa, eta ostatura doa. Gaixoa itzartzen da. Eta hura bai poza! Jainkoari eskerrak ematen dizkio, eta kondesaren eskuetan hiltzen da. Dama gazteak atse-

kabe handia hartzen du. Eta egun berean komentuan sartzen da serora.

atsekabe: aflicción; **beldur izan:** ser temeroso, temer; **desager** (desagertu, desagertze): desaparecer; **dohakabe:** desgraciado; **egunsenti:** aurora, alba; **gaixo** (gaixotu, gaixotze): enfermar; **gogo:** mente, espíritu; **itzar** (itzarri, itzartze): despertarse; **izaki:** ser; **komentu:** convento; **maitatzaile:** amante; **maite:** amado, querido; **maitemin** (maitemindu, maitemintze): enamorar; **nabarmen:** destacado, distinguido; **ostatu:** posada; **printze:** príncipe; **serora:** sor, monja; **trobalari:** trovador.

121 EZKERTIEK ARRAZOIA DAUKATE

Zerebroak bi zati edo erdi dauzka, eskuina eta ezkerra. Zerebroaren eskuinak gorputzaren ezkerraldea gobernatzen du. Eta zerebroaren ezkerak gorputzaren eskuinaldea gobernatzen du. Zerebroaren ezkerak transmisio hobekak dauzka. Zerebroaren ezkerak hobeto agintzen du. Pertsona gehienak hobeki moldatzen dira hanka eta esku eskuinaz.

Ehuneko bost ezkertiak dira. Hauen zerebroaren eskuinak hobeto funtzionatzen du. Hori bi urte ta erdirekin igartzen da. Ezkertia izatea ez da eskuen eta hanken gauza. Zerebroaren gauza da. Beraz, ezkertien kasuan, eskuina erabiltzea zerebroaren kontra joatea da. Eta hortara obligatzea ohitura txarra da.

Gaur ohitura hori apur bat galdu da. Gaur ezkertiek ez dute hainbeste zigorrik hartzen, eta beraiengatik ez da hainbeste barrerik egiten. Baina ekandu txar hori ez da guztiz galdu.

Ezkertiek zerebroaren ezkerka gutxiago desarroilaturik daukate. Horregatik askoz nekezago erabili ahal dute eskuina. Beraz, ezin ditugu hortara bortxatu. Zerebroak eta nerbioek beren airera jokatu behar dute.

barre egin: reír; **bortxa** (bortxatu, bortxatze): forzar; **ekandu:** costumbre; **ezkerti:** zurdo; **hainbeste:** tanto; **hanka:** pierna; **hobeki:** de manera mejor; **igar** (igarri, igartze): adivinar, descubrir; **molda** (moldatu, moldatze): arreglar; **neke:** fatiga, dificultad; **ohitura:** costumbre; **zigor:** palo, castigo.

Ilunabar batez, aker bat elizan sartu da. Sakristauak, beti bezala, eliza itxi behar du, eta atera doa. Eta, beti legez, hots egiten du elizako atean: «Ba dago inor?»

Akerrak ez du ezer entzuten. Sakristauak atea ixten du, eta akerra barruan geratzen da. Gaua etorri da, eta emakume batzu pasatzen dira eliza albotik. Eta elizan hots edo zarata handiak entzuten dituzte. «Zer dabil hor? Nor dabil elizan? Lapurrak? Purgatorioko arimak?» esaten dute haiek.

Akerra adarka eta adarka ari da. Elizako ateak dranba eta dranba jotzen ditu. Hura bai ate hotsa eta adar hotsa! Emakumeak ikaraturik daude, eta apezaren etxera doaz. «Don Jose Migel, don Jose Migel!» esaten dute. «Infernuko etsaia dabil elizan. Etor, jauna, eta egin konjuruak. Etor arin, jauna!»

Apeza sakristauaren etxera doa. «Luziano, Luziano!» esaten dio apezak. «Infernuko arerioa dabil elizan. Konjurua egin behar dugu. Etor nirekin elizara!»

Sakristauak ez du joan nahi, eta esaten du: «Jauna, nik ez dut konjuratzen ikasi. Emakume hoiek ere berdin egingo dute hori.» Eta apezak: «Baina, gizona, zuk ez duzu ezer egin behar. Urruntxo jarriko zara, eta nire hitzei Amen! erantzungo diezu. Horixe bakarrik.»

«Jauna, nik ez daukat beldurrik», erantzuten dio sakristauak. «Baina emakume hoiek beti otoitzean ari dira, eta hobeto egingo dute.»

Ekin eta ekin, noizbait sakristauak baietz esaten du. Apeza sakristaua eta emakumeak elizara doaz. Akerra ixilik dago barruan. Apezak ate zuloan sartzen du giltza. Grisk-grask, eta atea irekitzen da. Akerrak orduan apez gaixoa adarretan hartzen du eta aidean darama. Sakristaua korrika eta emakumeak garrasika doaz. Apezaren berba hauk entzuten dira: «Luziano,

Luziano! Deabruak eramaten nau infernura!» «Amen! erantzuten dio harek, eta trankil trankil doa bere etxera.

adar: cuerno; **aide:** aire; **aker:** macho cabrío; **albo:** lado; **apez:** cura; **arerio:** enemigo; **arima:** alma; **baietz:** que sí; **beldur:** miedo; **ekin** (ekite): insistir; **etsai:** enemigo; **gaixo:** pobrecito, infeliz, desdichado; **garrasi:** grito; **giltza:** llave; **hots egin:** hacer ruido, llamar; **ikara** (ikaratu, ikaratze): asustar, amedrentar; **ilunabar:** crepúsculo, atardecer; **inor:** alguien; **ixilik:** silenciosamente, en silencio; **lapur:** ladrón; **legez:** como; **noizbait:** alguna vez, por fin; **otoitz:** oración; **urrun:** lejos; **zulo:** agujero.

123 ESTATU BATUETAKO JUSTIZIA

Frantses batek, Jean Gras jaunak, afirmazio harrigarriak egin ditu: «Neu naiz Louisianako Armada Askatzai-
learen Jenerale Nagusia. Estatu Batuetako Gobernuak lurralde hori Frantziari bihurtu behar dio.»

Napoleon Lehenengoak Louisianako territoria Estatu Batuei saldu die. Gras jaunak garai hartako dokumentuak zehazki aztertu ditu, eta hau atera du: «Estatu Batuek engainatu egin dute Bonaparte. Ez dute tratua bete, eta ez dute dirua ordaindu.»

Gras jaunak justizia egitea nahi du, eta auzia Estatu Batuetako Gorte Nagusira eramán gura du. Lortuko ote du bere asmoa? Egingo dio kasu Gorte Nagusiak?

Hona hemen antzeko kasu bat. Estatu Batuetan gaude, 1870. urtean. Hego Dakotako indioen Sioux tribua lurralde handi bat gabe gelditu da. Gizon zuriek urrea aurkitu dute bertan. Lurrak konfiskatzen dituzte, eta tribua kanpora botatzen dute. Zazpi urte geroago, 1877.ean, indioek Gorte Nagusira eramaten dute auzia, Gobernu federalaren kontra.

Justiziak oraintxe eman du erabakia. Indioen tribuari eman dio arrazoi osoa. Bien bitartean 104 urte pasatu dira.

armada: ejército; **askatzaile:** libertador; **asmo:** propósito; **auzi:** causa judicial, pleito; **bihur** (bihurtu, bihurtze): devolver; **bitarte:** intermedio; **erabaki:** resolución, sentencia; **Estatu Batuek:** Estados Unidos; **garai:** tiempo, época; **gorte:** corte; **hego:** sur; **lurralde:** territorio; **zehazki:** con exactitud, con precisión.

Tantavel ekialdeko Pirinioetan dago. Neanderthal Alemanian dago. Cromagnon Frantzia. Tantavelen, aintzinako gizon baten arrastoak aurkitu dira. Tantavelgo gizona. Gizon hau **homo erectus** bat da. Gizon tentea. Gizon hau zutik dabil. Gizon hau orain 450.000 urtetakoa da. Neanderthalgo gizonaren ondorengoa. Cromagnongoaren lehengusua.

Gizon honen arrastoak orain urte gutxi aurkitu dira. Non? Kataluniako Pirinioetan, ibai baten ondoko haizpe batetan. Buru bat aurkitu dute. Buruak bekain handia dauka eta bekoki iheskorra. Burezurrak 1.050 zentimetro kubiko dauzka. Gaurko gizonaren burezurra handiagoa da.

Aintzinako gizon honek basidia, bisontea, zaldia eta abar ehizatzen ditu. Errenoak ere harrapatzen ditu, otsoak, azeriak eta afrikar faunako animaliak: elefanteak, errinozeroak eta lehoiak.

Tantavelgo gizonak ba daki tresnak erabiltzen. Baina ez du ezagutzen sua. Bere ehiziak gordinik jaten ditu. Haragia, odola eta beste edozer gordinik jaten du. Batzutan elkar ere jaten dute. On egin! Hori gaur ere sarritan egiten da.

aintzinako: antiguo; **arrasto:** rastro; **azeri:** zorro; **basidi:** buey salvaje; **bekain:** ceja; **bekoki:** frente; **burezur:** cráneo; **edozer:** cualquier cosa; **ehiza** (ehizatu, ehizate): cazar; **ehizi:** pieza de caza; **gordin:** crudo; **haizpe:** cueva, gruta, bajo peña; **iheskor:** huidizo; **lehengusu:** primo; **lehoi:** león; **ondorengo:** descendiente; **otso:** lobo; **su:** fuego; **tente:** erecto, tieso; **zaldi:** caballo; **zutik:** erectamente, de pie.

Sugegorriak fama txarra dauka. Beldurra ematen du, baina ez da hain pozointsua. Gure lurretan sugedorriaren pozoina gutxitan da hilgarria. Gainera, italiar ikerlari batek pozoinaren kontrako eztitu bat atera du, eta oso erresultatu onak dauzka.

Hona hemen tranpa batzu. Sugeak gorrak dira. Beraz, alferrik da zarata egitea. Zaratarekin ez dituzu uxatuko. Hobe da lasai ibiltzea, eta makila sendo batekin lurra jotzea. Basoan daukazu etxea, eta ez duzu etxe aurrean sugerik ikusi nahi? Erremediorik onena etxe ingurua garbi edukitzea da.

Kosk egin dizu sugeak? Har hainbat lasterren pozoinaren kontrako medikamentua. Baina apur apurka. Dosi batetik bestera minutu batzu egon. Eta batez ere lasai. Ez daukazu arriskurik. Bakarrik zaude? Joan laguntza bila, baina ez arrapastaka. Lagunekin zaude? Egon jezarrita, gerizpean. Haiek ekarriko dizute laguntza. Likido beroa edatea ona da. Alkohola, ordea, oso txarra da. Pozoina zurrupatzea alferrik da, eta hobe da ez egitea.

alferrik: inútil, en vano; **arrapastaka:** precipitadamente; **arrisku:** peligro; **baso:** bosque; **beldur:** miedo; **eztitu:** vacuna; **gerizpe:** lugar sombrío, bajo sombra; **gor:** sordo; **hainbat lasterren:** cuanto antes; **hilgarri:** mortífero, mortal; **ikerlari:** investigador; **kosk egin:** morder; **laguntza:** ayuda; **lasai:** anchamente, tranquilamente; **makila:** bastón, palo; **pozoin:** veneno; **suge:** culebra; **sugegorri:** víbora; **uxa** (uxatu, uxatze): ahuyentar; **zurrupa** (zurrupatu, zurrupatze): chupar, sorber.

126

HAUR TXIMINOAK

Gizona tximinotik dator. Hori zientzian argi dago gaur. Ebo-luzioa horrela izan da. Urte asko dago bitartean. Milioi urte asko. Baina hori horrela izan da. Eta hau da harrigarria. Gaur ere haur tximinoak jaiotzen dira. Zer da haur tximinoa? Haur bat tximinoaren propietateekin.

Txinako probintzia batetan, 1977.eko irailaren 30ean, haur tximino bat jaio da. Ume horrek lau urte dauzka gaur. Ez da fantasia bat. Ume hori bizi da. Nolako umea da?

Ume hau ilez estalirik jaio da. Guztiz iletsu. Sudur puntan, ezpainetan, eskubarruan eta oinazpian ez dauka ilerik. Jaiotzan ilea beltza da, gero gaztain kolorezkoa. Ilea ez zaio hazten.

Baina ez zaio jausten ere. Pekingo ikerlari talde batek estudia-
tzen du kasu hau.

bitarte: intermedio; **eskubarru:** palma de la mano; **estal** (esta-
li, estaltze): cubrir; **ezpain:** labio; **ikerlari:** investigador; **ile:**
pelo; **iletsu:** peludo; **jaiotza:** nacimiento; **jaus** (jausi, jauste):
caer; **oinazpi:** planta del pie; **sudur:** nariz; **tximino:** mono.

127 PRAKAMAN BAT, PRAKAMAN BI

Bi aita-sume bizi dira Markinan. Aita Prakaman da. Semea-
ren izena ere Prakaman da. Ez da izena. Ezizena da. Biak
antzekoak dira, berritsuak eta mihi-luzeak. Baina aita fina da.
Semea, berriz, alferra. Prakaman aita zahartu egiten da. Praka-
man semeak itsasora alde egiten du. Donostian dago. Bien
bitartean Prakaman zaharra hil egin da.

Prakaman gaztea etxera dator. Baina aitaren diruak laster
gastatzen ditu. Gero han dabil Prakaman. Non ezteiak, han
zangoa. Non batzarrea, han muturra. Non bazkaria, han dago
Prakaman.

Ohitura bat dago garai hartan. Emakume batek ume egiten
du. Hurrengo igandean ahaide eta auzoek (emakumezkoak de-
nak) jai edo batzarre bat egiten dute. Bertan zerbait jaten edo
edaten dute. Prakaman ere batzarre hoietara joaten da. Han
egoten da emakume artean.

Prakamanek gauza politak esaten ditu ama berriarentzat.
Haur berriarentzat ere bai. Eta gero jan eta edan. Emakumeak
aspertuta daude. Zer egin?

Prakaman han dator beti legez. Emakume batek uztarri bat
jartzen du sehaskan haurraren ordez. Prakaman heltzen da eta
esaten du: «Arratsalde on, emakume onak! Zorionak ama
berriari. Lehen neska liraina, eta gaur ama bikaina. Horren
haurra ere holakoa izango da. Hemen dago bera. Hemen gure
izar berria.»

Prakaman sehaskara hurbiltzen da, eta bere arrosarioa segi-

tzen du: «Hauxe ume ederra! Sudurrean aita bera. Ezpainetan amaren antza dauka. Bekokian amonaren antza. Eta belarrietan aitonarena.»

Emakume batek uztarria sehaskatik ateratzen du, eta esaten du: «Útzarri honek zure antza dauka, eta zure buruan egon behar du.» Eta emakume guztiek kantatzen dute: «Prakaman bat, Prakaman bi! Igar, igar! Nor da Prakaman? Ezetz igar, ezetz igar!

ahaide: pariente; **aitona:** abuelo; **alde egin:** marchar. **amona:** abuela; **arrosario:** rosario; **asper** (aspertu, aspertze): aburrir; **auzo:** vecino; **batzarre:** reunión; **bekoki:** frente; **berritsu:** charlatán; **berriz:** en cambio; **bikain:** excelente, magnífico; **bitarte:** intermedio; **ezetz:** a que no; **ezizen:** mote, apodo; **ezpain:** labio; **eztei:** boda, fiesta de casamiento; **hurbil** (hurbildu, hurbiltze): acercarse; **igar** (igarri, igartze): acertar, adivinar; **izar:** estrella; **jai:** fiesta; **legez:** como; **lirain:** esbelto; **mihi-luze:** lenguaraz; ohitura: costumbre; **ordez:** en vez, en lugar; **sehaska:** cuna; **sudur:** nariz; **uztarri:** yugo; **zahar** (zahartu, zahartze): envejecer; **zango:** pierna; **zerbait:** algo; **zorion:** felicidad.

128 NAPOLEON ANDREZALEA

Napoleon Polonian dago. Beraren emaztea Josefina enperatriza da. Josefinak bere senarra ikusi nahi du, eta Poloniara joan gura du. Napoleonek hori jakin du, eta eskutitz bat idazten dio emazteari.

«Distantzia handia dago gure artean», esaten dio Napoleonek. «Urruti nago, eta bidaia hori luzea da. Luzea eta neketsua neguan. Ni guztiz ondo nago. Gau luzeetan zu barik gaizki, baina osasun ona daukat. Laster ikusiko dugu elkar.»

Napoleon bakarrik eta triste ote dago? Bai zera! Napoleonek beste emazte bat dauka. Maria Walewska da haren izena. Horregatik ez du nahi Josefinaren etorrera.

Negozio gizonak ere sarritan Napoleonen antzekoak izaten dira. Emaztearekin bakarrik ezin dira konformatu, eta aitzakiak eta gezurrak asmatu behar izaten dituzte. «Batzarre bat daukat

gaur gauean, eta berandu joango naiz etxera», esaten diote telefonoz emazteari. Beste batzutan: «Klienteekin afari bat daukat. Aspergarria da, baina hantxe egon behar dut.» Abisu hauk egiak ala gezurrak ote dira? Nork jakin hori?

afari: cena; **aitzaki:** pretexto; **aspergarri:** fastidioso, que causa aburrimiento; **bai zera:** qué va!; **barik:** sin; **batzarre:** congreso; **bidaia:** viaje; **etorrera:** venida; **gezur:** mentira; **neketsu:** penoso, que causa fatiga; **urruti:** lejos.

129 ENPERADORE ERORIA

Pertsiaiko Sha enperadoreak bere aulkia galdu du. Baina ez du dena galdu. Lotsa behintzat ez du galdu. Mallorcan etxe bikain bat erosi du. Nolako etxea! Eta Menorcan kala bat erosi du, testafarro baten bitartez. Testafarroak beste baten orde ematen du izena negoziotan. Hori da testafarroa. Gure Sha lotsatu egiten ote da, ba? Bai zera! Pertsonaia handien negoziok horrela izaten dira sarritan.

Eta zer da kala bat? Itsas ertzean lur zati bat. Sharen kala hau Turqueta deitzen da. Argi argia da, eta bertako harkaitz bat itsasora doa gozo gozo. Eta prezioa? Zenbat uste duzu? Zazpiehun milioi pezeta gutxi gorabehera. Zuk zenbat daukazu?

Irlako jendeek inkesta bat egin zaie, eta denek gaizki ikusten dute hori. Beldur dira. Irlako segurtasuna arriskutan dago. Shak arerio asko dauzka. Beharbada, egunen batez, haren bila etorriko dira. Eta orduan zer jazoko da irlan? Menorcako jendeak ez du nahi enperadorea hara etortzea. Hori ere ba da gero! Lehen denak aurrean belauniko, eta orain inork ikusi nahi ez!

arerio: enemigo; **arrisku:** peligro; **bai zera:** qué va!; **belauniko:** de rodillas; **beldur izan:** estar temeroso, temer; **bikain:** magnífico; **bitarte:** intermedio; **ertz:** orilla, borde; **gozo:** dulcemente; **gutxi gorabehera:** poco más o menos; **harkaitz:** roca grande; **inkesta:** encuesta; **irla:** isla; **lotsa:** vergüenza; **lotsa** (lotsatu, lotsatze): avergonzarse; **ordez:** en vez, en lugar; **pertsonaia:** personaje; **segurtasun:** seguridad.

Munduan ura edaten da gehien. Gero tea. Txina, Japonia, Errusia eta Ingalaterrakoek tea eta tea edaten dute.

Tea XVI. mendean sartzen da Europan. Tearen sorterrria Txina da. Txinan Jesukristoren aurreko 2737. urtetik ezagutzen dute. Eta nola aurkitu dute?

Sheng enperadorearen garaia da. Enperadore hau herriaren osasunaz arduraturik dago. Bere inperioa bisitatzen du, eta toki batzutan izurri gutxiago ikusten du. Zergatik ote da? Toki hoietan ur irakina bakarrik edaten dute. Sheng enperadoreak orduan hau agintzen du: Inperio guztian ur irakina edan behar da. Berak ere bai.

Behin oihanean zehar doa, eta egarri da. Zerbitzariak ontzia ateratzen du, eta ura irakiten jartzen du. Lapikoa bol-bol dago. Orduan haizea hasten da. Haizeak zuhaixka zahar baten bi hosto eta kimu bat kentzen ditu. Eta ur irakinetara jausten dira. Hura bai une zoriontsua! Hura bai lurrin gozoa! Eta halaxe aurkitu dute tea.

ardura (arduratu, arduratze): interesarse, preocuparse; **egarri izan**: estar sediento, tener sed; **hosto**: hoja; **izurri**: peste, enfermedad contagiosa; **jaus** (jausi, jauste): caer; **kimu**: brote; **lapiko**: olla, puchero; **lurrin**: aroma; **mende**: siglo; **oihan**: bosque; **sorterri**: tierra de origen; **toki**: lugar, sitio; **une**: momento; **zehar**: a través; **zerbitzari**: sirviente, criado; **zoriontsu**: feliz; **zuhaixka**: arbusto.

Hortzen katastrofea omen dator. Haginen hondamendia ei dator. Europako dentisten elkarteak hori esan du. Ehuneko batek bakarrik dauzka hortz sanoak, hagin sanoak. Laster, herri industrialetan, hortzak sailean eroriko dira.

Honen errudun bakarra ez da elikadura txarra edo hortzen higie-ne desegokia. Giza eboluzioan bertan ere hutsen bat dago. Honela, txantxarra eta parodontosia eskeleto zaharretan ere aurkitzen dira. Gizon erdi tximinoengan ere bai. Gizon hau orain milioi urte bizi izan dira. Txakurrek eta lehoiek ere ba daukate gaitz hori.

Michigango Unibertsitatean gaude. Hemengo doktore batek hau esan du: gizonak hagin txarragoak eta txikiagoak edukiko ditu. Hortarako, doktore horrek Nubiako gizonen masaile-zurrak aztertu ditu. Gizon hau orain 1.500 urte bizi izan dira. Gizon hauen hortzak gaurko amerikarren hortzekin konparatu ditu, eta konklusio hori atera du.

Errudun nagusia azukre zuria edo azukre industrialala omen da. Zer egin? Azukrea kenduko dugu? Bizitza nahiko garratza da berez, eta azukre barik garratzago bihurtuko da. Baina azukrea guztiz txarra da haginentzat. Hala ere, edonoiz eta edonon hartzen dugu azukrea. Edonoiz eta edonon hartzen ditugu gai azukredunak.

azukredun: azucarado, que tiene azúcar; **barik:** sin; **berez:** de por sí; **desegoki:** inadecuado, impropio; **edonoiz:** en cualquier tiempo; **edonon:** en cualquier lugar; **elikadura:** alimentación; **elkarte:** asociación; **errudun:** culpable, que tiene culpa; **gai:** materia; **gaitz:** mal, dolencia; **garratz:** amargo; **giza:** humano; **hagin:** diente, muela; **hondamendi:** ruina; **hortz:** diente; **huts:** fallo; **lehoi:** león; **masailezur:** mandíbula; **sail:** serie; **txantxar:** caries; **tximino:** mono.

132

LASTER BURUA ERE BIRLANDATUKO DUGU

Birlanda edo transplanta. Laster burua ere bai. Ez da ametsa, ez da utopia.

Robert White doktoreak hori lortu du lehen aldiz. Tximino bati beste tximino baten burua ipini dio. Tximinoa aste bete bizi izan da. White eta beraren lagunak lanean ari dira. Nola konpon operazio hoi-en problemak? Ez dute gutxi lortu. Orain arte 50 transplante edo birlandaketa egin dituzte tximinoekin.

Italiako Salvatore Lanza jaunak ere gauza harrigarriak egin ditu. Txerri buruak txakurrei ipini dizkie, eta zaldi buruak as-toei. Oilo bati bi buru ipini ere bai, eta uso hegoak untxi bati. Sinesten ote duzu? Animalia hauk hiru hilabete arte bizi izan dira.

Batzuk txakur edo zaldi edo arrano izan gura dute. Horren ilusioa daukate. Laster edukiko dute aukera. Laster hasiko dira jakintsuak gizonekin aprobak egiten. Eta hemen dator kome-dia. Gizon bati beste gizon baten burua transplantatuko diote. Gizon hori nor izango ote da? Lehengo gizona ala gizon berria? Zerebro berriarekin lehengo nortasuna ala nortasun berria eta kontzientzia berria edukiko ote du?

aldi: vez; **amets:** sueño, ilusión; **aproba:** prueba; **arrano:** águila; **asto:** asno; **aukera:** opción, oportunidad; **hego:** ala; **nortasun:** personalidad; **oilo:** gallina; **sinets** (sinestu, sineste): creer; **txerri:** cerdo; **tximino:** mono; **untxi:** conejo; **uso:** paloma.

133 BALEA ETA TALAIARIA

Euskal Herrian balearen arrantzak garrantzi handia eduki du. Arrantzaleak beti prest doaz balearen arrantzarako. Arpoiak eta beste aparailuak eramaten dituzte. Eta hoiek ondo egon behar dute. Balea ondasun handia da arrantzaleentzat, eta ez diote ihes egiten utzi behar. Arrantzaleak arrantzan ari dira. Antxoba, berdela, sardina eta abar harrapatzen ari dira. Halako batez, balea bat ikusten dute. Dena uzten dute, eta balearen bila abiatzen dira.

Nola ikusten dute balea? Hortarako talaiaria dago. Honek ikusgailu handi bat dauka, eta egunero eramaten du talaiara. Balea bat ikusten du, eta abisua botatzen du itsasora. Seinale bat egiten du. Sua da seinalea. Talaiariak haziletik martxora lan egiten du. Neguko sasoi hortan agertzen dira baleak. Balea da talaiaren arrazoia.

Baleak asko balio du. Ondasun handia da. Getariako arrantzaleek balen erdia bidali behar dute Donostiara, zerga bezala.

Getariarrek ez ordaintzea erabakitzen dute. Nahaste handia sortzen da. Azkenean gauzak konpontzen dira. Balen erdiaren orde, 600 kintal burdina bidaliko dituzte Donostiara.

Balea amaitu da Euskal Herriko kostaldean. Azken balea Orion harrapatu dute, 1901.ean.

abia (abiatu, abiatze): dirigitse; **amai** (amaitu, amaitze): acabar; **arrantza**: pesca; **balea**: ballena; **balen erdi**: media ballena; **balio izan**: valer; **burdina**: hierro; **egunero**: todos los días, diariamente; **erabaki** (erabakitze): resolver, decidir; **garrantzi**: importancia; **halako batez**: en una de ésas; **ihes egin**: huir; **ikusgailu**: instrumento para ver; **nahaste**: confusión, jaleo; **ondasun**: bien, cosa buena; **ordain** (ordaindu, ordaintze): pagar; **ordez**: en vez, en lugar; **prest**: presto, listo, dispuesto; **saso**: tiempo, época; **talaia**: atalaya; **talaiari**: atalayero; **zerga**: contribución, impuesto.

134

GAZTA-LAPURRA

Baztango mendi batetan hiru etxola daude. Etxola bakoi-tzean artzain bat bizi da. Hirurak lagunak dira. Behin artzain bati, Gartziarenari, asteko gaztak falta zaizkio. Norbaitek ohostu dizkio. Lagunaren etxolara doa.

—Asteko gaztak falta zaizkit. Norbaitek ohostu dizkit —esaten dio lagunari.

—Nik ez behintzat —erantzuten dio bestekak.

—Ez daukat zure susmorik. Baina Arburuko artzainarena bai. Horrexek ohostu ditu.

Baina nola jakin? Harek nola baietz esan? Orduan biek plana egiten dute. Gartziarenak liburu zahar bat dauka. Eskritura Sainduaren orde, erabiliko du. Bestea Arburuko artzainaren etxolara doa. Etxolan ez dago inor, eta kamantzapean sartzen da. Eta han gelditzen da ixil ixilik. Ba dator bere etxolara lapur presuntua, Arburuko artzaina, eta ez du ezer igartzen. Orduan Gartziarena, artzain lapurtua, Arburuko etxolara doa.

—Norbaitek ohostu ditu nire gaztak —esaten dio lagunari.

—Nik ez! —erantzuten dio harek.

—Norbaitek bai.

—Fedea! Nik ez dizkizut ohostu.

—Nik ez dut hori esan. Nik hauxe bakarrik esan dut: «Norbaitek ohostu ditu nire gaztak.»

—Nik ez ditut ohostu. Hemen gurutzea!

—Ez da gurutzerik behar. Hemen daukat Eskritura Saindua. Beronek esango du egia.

—Bai! Galde egin horri —esaten du Arburukoak. Gartziarenak liburua zabaltzen du, eta ohiu egiten du:

—Eskritura Saindua, esan egia. Nork eraman ditu Gartziarenaren gaztak?

—Arburuko artzainak! —erantzuten du kamantzapetik hirugarrenak.

—Ixilik! Ez du inork jakin behar. Oraintxe ekarriko ditut gaztak —esaten du azkenik Arburukoak. Eta orduan hirugarren artzaina kamantzapetik irteten da.

artzain: pastor de ovejas; **baietz:** que sí; **etxola:** cabaña. **fedea:** fe; **galde egin:** preguntar; **gurutze:** cruz; **ixilik:** en silencio; **kamantza:** camastro; **lapur** (lapurtu, lapurtze): robar; **nor-bait:** alguien; **oihu egin:** exclamar; **susmo:** sospecha; **zabal** (zabaldu, zabaltze): abrir.

135

ARRATOIEN ELIZA

Indiako hego-mendebaldean eliza bat dago, arratoiei dedikatua. Eliza arratoiz beterik dago. Eliza hau Karni Devi andre sainduarena da. Andre saindu hau XIII. mendean bizi izan da.

Eliza marmolezkoa da, marmol zurizkoa. Erlikebetan lo-reak, fruituak, animaliak eta jainkoak agertzen dira. Eta eliza barruan arratoiak dabilta milaka eta milaka atzera eta aurrera.

Arratoi beltzak eta haundiak. Arratoi sakratuak. Janari gozoa daukate: ezia eta laborea. Jendea oinutsik sartzen da. Arratoiak kilikili egiten dute jendearen oinetan.

Elizan aldare bat dago. Aldarearen tokia ilun samarra da. Su sakratua dago han. Arratoiak ere hantxe jaten dute ezia eta laborea. Jendeak ezin du arratoirik zauritu edo hil. Bestela, arratoiaren urrezko edo zilarrezko irudi bat utzi behar da. Baina lasai! Ez da hain erreza arratoia zapaltzea. Buztanen bat, bai; baina besterik ez.

aldare: altar; **buztan:** cola, rabo; **erliebe:** relieve. **hego-mendebalde:** sudoeste; **ilun:** oscuro; **irudi:** imagen, figura; **kilikili egin:** hacer cosquillas; **labore:** cereal. **lasai:** holgado, tranquilo; **mende:** siglo; **oinutsik:** a pie descalzo; **zapal** (zapaldu, zapaltze): pisar, aplastar; **zauri** (zauritu, zauritze): herir; **zilar:** plata.

136

ARRATOIEN BARRUAN BERTSOLARIA

Indiako hego-mendebaldean gaude. Arratoiak elizan. Ezagutzen dugu eliza hau. Eliza hau XIII. mendeko Karni Devi andre sainduarena da. Saindu hau Txaran kastakoa da. Txaranak poeta herritarrak edo bertsolariak dira.

Karni Devik mirakulu asko egiten ditu bere bizitzan. Baina bat ezin du egin. Beraren kastako mutil bat hil da. Mutil hori seme bakarra da, eta berarekin amaitzen da familia. Karni Devi infernura doa. Infernuko jabeari, Yama jainkoari, mutila eskatzen dio. Baina jainkoak ezin du eskaria bete. Zergatik? Mutila berraragiturik dago.

Orduan Karni Devi haserretu egiten da. Eta bere kastako guztiak Yama jainkoaren jurisdikziotik apartatzen ditu. Heriotz ostean Txaran guztiak arratoiak gorputzetara pasatzen dira.

Baina duda bat dago beti. Arratoi bakoitzean Txaran edo bertsolari baten arima ote dago? Orduan lurraldeko agintariak ermitatxoak egiten hasten dira arratoiak ostatatuz. Gero eliza

haundi bat egiten dute. Eta horixe da gaurko eliza, arratoiei dedikatua.

agintari: autoridad, jefe; **arima:** alma; **berraragi** (berraragitu, berraragitze): reencarnar; **eskari:** petición; **haserre** (haserretze): enfadarse, enojarse; **hego-mendebalde:** su-
doeste; **herriar:** popular; **jabe:** dueño; **lurralde:** país, región; **ostatu:** albergue; **oste:** parte posterior, después.

137 KOLON ETA VIKINGOAK

Vikingoak normandarrak dira. Danimarka eta Norvegiakoak batez ere. Hamargarren mendean inperio haundia daukate Europan zehar. Eta Amerikara ere heltzen dira. Orduan zertan geratzen da Kolonen aurkikunde?

Orain urte batzu, Estatu Batuetan, arkeologoek txanpon zahar bat aurkitu dute indioen gordailu batetan. Txanpon horrek Norvegiako txanpon batzuren antz handia dauka. Horrelako txanponak XI. mendekoak dira. Nork eraman du txanpon hori Amerikako gordailu hortara?

Gordailu hori aintzinakoa da, eta ba dauzka mende batzu. Beraz, pieza hori vikingoak eraman dute, eta indioek vikingoei trukatu edo kendu diete.

Txanpona orain hogeitau urte aurkitu da. Arkeologoek ustez, vikingoen garaikoa da. Hortan ez dago zalantzarik. Hala ere, eskoletan lehengo irakaspena ematen da: Kolonek aurkitu du Amerika. Baina, Kolonen aurretik, vikingoak behintzat heldu dira. Agur Kolonen arraultzea!

aintzinako: antiguo; **aurkikunde:** descubrimiento; **Estatu Batuak:** Estados Unidos; **gordailu:** objeto o lugar donde se guarda algo; **irakaspen:** enseñanza; **mende:** siglo; **normandar:** normando; **truka** (trukatu, trukatz): cambiar en trueque; **txanpon:** moneda; **zalantza:** duda; **zehar:** a través.

138 MARIHUANAREN ERLIGIOA

Droga asko daude. Munduko drogarik zabalduena marihuana da. Marihuanaren erligioa erligio unibertsal da. Oso aintzi-

natik ezagutzen da. Txinoek orain bost mila urte ezagutzen dute. Erremedio legez erabiltzen dute. Zeren kontra? Ahultasun, hezueri, erreuma, malaria, gripe eta zorabioaren kontra. Indian eta Egipton marihuana droga sakratua da. Grekoentzat, berriz, droga mozkortzailea.

Hala ere, arabiarrek dira marihuanaren zabaltzailerik handienak. Islamekin batera marihuana ere zabaltzen dute. Zergatik? Koranak alkohola debekutzen du.

Landare hau aintzina sartu da Asiatik Amerikara. Gero, kolonizazio garaian, esklabu beltzen bidez sartu da. Landare honek barietate asko dauzka. Landare tropikalek eta subtropikalek daukate sustantziarik gehien. Sustantzia hori landarearen erretxina da. Erretxina hortan daude misterio guztiak.

ahultasun: debilidad; **debeka** (debekatu, debekatz): prohibir; **erretxina:** resina; **hezueri:** gota; **legez:** como; **mozkortzaile:** emborrachante; **zabal** (zabaldu, zabaltze): propagar; **zabaltzaile:** propagador; **zorabio:** desmayo.

139 KOLOREEKIN JOLASEAN

Koloreak asko dira. Infinituak dira. Baina oinarrizko koloreak, kolore basikoak, zazpi dira.

Pertsonak bi begirada dauzka. Bata barrurantz eta bestea kanporantz. Pertsona batzu zabalkorrek edo espantsiboak dira. Beste batzu, barrukoiak edo introbertituak. Koloreekin ere berdin gertatzen da.

Kolore batzu hotzak eta zabalkorrek dira. Berdea, urdina eta morea kolore hotzak eta zabalkorrek dira. Beste kolore batzu beroak eta barrukoiak dira. Gorria, laranja eta marroia kolore beroak dira. Pertsona bat zabalkorra da? Orduan pertsona horrek gehienetan kolore beroak, kolore barrukoiak erosten ditu. Horrela oreka edo ekilibrioa lortzen du. Soinekoak dekorazioak eta abar horrela hautatzen dira.

Beraz, pertsona barrukoiak kolore hotzak edo zabalkorrek

maite ditu: berdea, urdina, morea eta abar. Eta pertsona zabal-
korrak, pertsona irekiak, kolore beroak edo barrukoia maite
ditu: gorria, laranja, marroia eta abar. Teoria oriental bat da
hau. Egia ote da? Ikus zeugan eta besteengan.

begirada: mirada; **hauta** (hautatu, hautatze): elegir; **jolas:**
juego, diversión; **kanpo:** fuera; **maite izan:** amar; **more:** mo-
rado; **oinarri:** base, fundamento; **soineko:** vestido.

140 GLOBONAUTEN EPOPEIA

Igazlehenean, agorrilaren 17an, globo bat lurreratu da Paris
ondoan. Globo harek **Double Eagle** dauka izena. Hiru lagun
datoz bertan. Anderson, Abruzzo eta Newman dira hirurak.

Aurreko urtean Andersonek eta Abruzzok Atlantikoa guru-
tzatu nahi izan dute. Baina Irlandan haize izoztuak eta haize
txarrak hasi dira, eta jaitsi behar izan dute. Baina ez dute
etsitzen. Urte bete geroago Newman hartzen dute laguntzat,
eta hirurak Paris ondoraino heltzen dira globoan.

Nondik datoz? Estatu Batuetatik. 4.992 kilometro egin di-
tuzte 137 ordutan. Ia sei egun. Erreza ote da globoan ibiltzea?
Ibiltzea erreza da. Baina zenbat denbora? Eta noraino?

1970.ean Malcolm Brighton, Rodway Anderson eta Pamela
Brown globoan irteten dira. Europara heldu nahi dute. Globoa
itsasora erortzen da, eta hirurak itotzen dira. Lau urte geroago,
beste aproba tragiko bi. Thomas Gatch Pennsylvaniatik irteten
da. Globoak Afrikarantz hartzen du bidea. Inork ez daki gehia-
go ezer. Hilabete batzu geroago Robert Berger uretara jausten
da eta itotzen da. Azkenez igazlehenean hiruk lortzen dute
Atlantikoa globoz gurutzatzea. Ametsa ote da? Ez. Zer da,
ba? Dolar pila bat, eta batez ere ausartzia.

amets: sueño; **aproba:** prueba, ensayo; **ausartzia:** osadía, va-
lentía; **etsi** (etsitu, etsitze): desesperar, desistir; **gurutza** (gu-
rutzatu, gurutzatze): cruzar; **igazlehen:** año anterior al recién
pasado; **ito** (itotze): ahogar; **izotz** (izoztu, izozte): helar; **jaits**
(jaitsi, jaiste): bajar; **jaus** (jausi, jauste): caer; **lagun:** indivi-
duo; **lurrera** (lurreratu, lurreratze): aterrizar.

141 VULKANOREN SEME-ALABAK

Pessaro Italiako probintzia bat da. Piobbico Pessaroko herritxo bat da. Herritxo hortan elkarte berezi bat dago. Itsusien Elkarte deitzen da. Zer da itsusia? Politaren kontrakoa. Elkarte hori ez da gaurkoa. Ez da atzokoa ere. Ehun eta bi urte dauzka. Orain ehun eta bi urte hasi da. Hona hemen elkartearen historia.

1879.eko uztailaren 10ean gaude. Piobbicoko udal kontseiluak gauza bat ikusten du. Ehun eta hogeita zortzi emakume ezkongabeak dira. Itsusiak dira, eta ezin dira ezkondu. Orduan kontseilua propaganda egiten hasten da. Hauxe da propagandaren eslogana: «Itsusitasuna gauza ederra da.» Eta urtero jai bat antolatzen dute: itsusien jai. Jai hortara Italia guztiko jendea joaten da.

Gaur elkarteak 2.800 bazkide dauzka. Hauen sinboloa Vulkanoren jainkoa da. Vulkanoren oso jainko itsusia da. Hala ere, Venus ederra maitemindu du. Elkarte hortan batzuk Vulkanoren zorzea eduki dute. Aurten ere bazkide asko ezkondu dira beren artean. Ba dakizu. Itsusitasuna gauza ederra da. Itsusia zara? Zoriontsua zu!

antola (antolatu, antolatze): organizar; **atzo**: ayer; **aurten**: este año; **bazkide**: socio; **elkarte**: asociación; **ezkon** (ezkondu, ezkontze): casar; **ezkongabe**: soltero; **itsusi**: feo; **itsusitasun**: fealdad; **jai**: fiesta; **kontseilu**: concejo; **maitemin** (maitemindu, maitemintze): enamorar; **udal**: municipio; **urtero**: anualmente, todos los años; **zoriontsu**: feliz; **zorte**: suerte.

142 ARGALDU NAHI DUZU?

Kaliforniako Unibertsitatean Grant Gwinup doktoreak esperimentu bat egiten ari da. Hogeita hamalau lodik parte hartzen dute esperimentuan. Nola pisua gal? Nola argala izan? Denak desanimaturik daude. Argaltzen alferrik ahalegintzen dira. Gwinup doktoreak beste sistema bat jartzen du. Utz dietak. Ibil, ibil. Egunero ibil. Egunetik egunera apur bat gehiago ibil.

Haseran ez dago aldakuntzarik. Esperimentua aurrera doa. Egunero ordu erdiko ibilaldia egiten da. Orduan bai igartzen da aldakuntza. Urte bete geroago, hamaika lagunek bakarrik segitzen dute esperimentua. Hauk asko argaldu dira. Gutxien lau kilo eta gehien hamazazpi. Batez beste hamar kilo argaldu dira.

Gwinup doktorearen esperimentuak hau erakutsi du: ariketa fisikoak pisua kentzen du. Dietak ez dauka hainbeste inportantziarik. Dietaren bidez ehuneko hogeik bakarrik lortzen dute argaltzea. Ariketa fisikoa, berriz, ia garantia osokoa da. Egunero gutxienez ordu erdi egin behar da. Baina nork egin? Hori beste kontu bat da. Hala ere, zuk egin aproba, eta igarriko duzu aldakuntza.

ahalegin (ahalegindu, ahalegintze): esforzarse; **aldakuntza**: cambio; **alferrik**: inútilmente, en vano; **aproba egin**: probar, ensayar; **argal** (argaldu, argaltze): adelgazar; **ariketa**: ejercicio; **batez beste**: uno con otro, por término medio; **egunero**: diariamente; **gutxien**: lo menos; **hainbeste**: tanto; **hasera**: comienzo; **ibilaldi**: caminata, paseo; **igar** (igarri, igartze): percibir, adivinar; **pisu**: peso.

143

NORVEGIERAREN BIRPIZKUNDEA

Norvegia. Herri hau eskandinaviar Estatu bat da. Suedia eta Danimarkaren ondoan dago. Europako iparraldean. Herri hau zaharra da, aintzinakoa da. Baina Estatu bezala berria da. Mende hontan lortu du independentzia osoa. Baina harrigarriena beraren hizkuntza da. Edo hizkuntzaren birpizkundea. Norvegiako hizkuntza norvegiera da.

Norwegian XIV. mendetik XIX. mendera Danimarka da nagusi. Norwegian daniarrek agintzen dute. Eta agintariek zer egiten dute? Beren hizkuntza sartzten dute. Horrela norvegiera galtzen da, eta daniera da nagusi. Bost mende luzetan daniarrek daniera sartzten dute. Eta norvegiera hiltzen da. Ia guztiz galtzen da.

Baina XIX. mendearen erdian erreazio gogorra hasten da. Hizkuntza zaharra berritzen da. Hizkuntza hila birpizten hasten da. Nynorsk dauka izena. Nynorsk hizkuntzak indarra hartzen du, eta danierak hizkuntza horren antza hartzen du. Gaur nynorsk hizkuntza Norvegiako mendebaldean egiten da, eta daniera modifikatua hego-ekialdean, Norvegiako behealdean. Historia hau ez da Jesukristoren garaikoa. Zati handi bat gure mendean jazo da.

agintari: autoridad, gobernante; **berri** (berritu, berritze): re-
novar; **birpitz** (birpiztu, birpizte): resucitar; **birpizkunde:** re-
surrección; **daniar:** danés; **hego-ekialde:** sudeste; **hizkuntza:**
lenguaje.

144 ERREGA ETA IKAZKINA

Haitzulo batetan senar-emazteak bizi dira. Lau ume dauzkate. Aita ikazkina da. Egunean erreal bat irabazten du. Eta hilabetearen azkenean hogerleko bat sobratzen zaio.

Behin erregea ehizan ari da, eta ikazkina ikusten du.

—Nola bizi zara, gizona? —galdetzen dio erregeak ikaz-
kinari.

—Ondo, jauna! —erantzuten dio harek—. Basa sagarrak
eta ezkurak jaten ditugu. Artale iharrez opil zuriak egiten
ditugu. Hori da gure salbamena.

—Hori guztiori egunean erreal batez egiten duzu, eta gaine-
ra zerbait sobratzen zaizu? —esaten du erregeak harriturik—.
Begira, gizona! Ez esan inori zeure irabazia. Hortarako, nire
aurpegia ikusi behar duzu berriro. Ordurarte ezin diozu inori
esan zeure irabazia. Bestela, hil egingo zara.

Erregea bere jauregira joan da, eta lehen ministrua deitzen du.

—Gure erreinua oso gaizki dago —esaten dio erregeak—.
Ba dago, ordea, gizon bat, langilea, pobrea eta zoriontsua.
Beste guztiak berdin izatea nahi dut.

145 OSASUNAREN KONPUTAGAILUA

New Yorkeko North Shore ospitalean gaude. John Morrison doktoreak konputagailu harrigarri bat sortu du. Tresna horrek gaixoaren diagnostikoa egiten du. Haren pantailan bi zirkulu ikusten dira. Batak osasun ideala adierazten du. Besteak hutsak edo inperfekzioak adierazten ditu, eta horrela gaixotasunak erakusten ditu.

Konputagailuak gaixotasunen diagnostikoa egiten du. Eta gero sendabidea edo soluzio terapeutikoa ematen du. Baina ez hori bakarrik. Konputagailuak bihotzaren eta arnasaren erritmoa neurtzen du. Odolaren eta gernuaren diagnostiko prebentiboa ere ematen du. Horrela, adibidez, bihotz istripua iragarri ahal du.

Tresna harrigarri honek gaixoaren historia klinikoa eta tratamendua kontrolatu ahal du. Oneranzko edo txarreranzko eboluzioak ere kontrolatu ahal ditu. Sendabidea ere errektifikatu ahal du. Eta abar eta abar. Elektronika miragarria!

adieraz (adierazi, adierazte): expresar, indicar; **bihotz**: corazón; **gaixotasun**: enfermedad; **gernu**: orina; **huts**: fallo; **iragar** (iragarri, iragartze): anunciar, predecir; **istripu**: accidente; **konputagailu**: computadora; **miragarri**: admirable, maravilloso; **neur** (neurtu, neurtze): medir; **sendabide**: medicación.

146 TXIRRITXORIEN LEIZEA

Potosí Mexikoko Estatu bat da. Estatu hortako herri txiki batetan leize edo zulo haundi bat dago. 376 metro sakon. Gero arrakala bat beherantz, 515 metrotaraino. Zabalean 120 metro inguru dauzka. Eltze edo lapiko haundi baten antzekoa da. Goian estuago eta behean zabalago.

Zer dago hemen? Ikuskizun harrigarria. Txoriontzi izugarria

da. Txirritxoriek bertan lo egiten dute. Baina ez batek edo bik. Milaka eta milaka sartzen dira han. Txirritxoria enararen antzekoa da. Gure herrietan ere ezagunak dira. Txirri-txirri kantatzen dute.

Goizetan, Mexikoko leize hortatik, bolkan baten erupzioa bezala irteten dira. Hodei haundi bat legez. Milioi bat txori batera. Arratsaldeetan berriro datoz leizera. Han pilatzen dira ahoan, eta zurrunbilo izugarria egiten dute. Hura eskandalua eta nahastea! Imaginatzen duzu milioi bat txoritako txapel bat?

arrakala: hendidura; **batera:** a una, a la vez; **eltze:** olla, puchero; **enara:** golondrina; **ezagun:** conocido; **goi:** parte alta; **ikuskizun:** espectáculo; **lapiko:** olla, puchero; **legez:** como; **leize:** sima; **nahaste:** revoltijo; **pila** (pilatu, pilatze): apilar, amontonar; **sakon:** profundo; **txapel:** boina; **txirritxori:** venejo; **zabal:** ancho; **zurrunbilo:** remolino.

147 MAITASUN DANTZAN HIL

Tarantula armiarma bat da. Armiarma misteriotsua. Arra txikia da, eta emea askoz handiagoa. Armiarma hauk bakartiak dira. Birsorkuntzarako bakarrik juntatzen dira. Maitasun dantza egiten dute. Dantza originala eta beldurgarria. Emea agresiboa da, eta arra hiltzen du.

Udaberrian arra emearen bila doa. Ernalkuntzarako oso sistema berezia dauka. Arrak saretxo bat egiten du. Saretxoan esperma tanta bat isurtzen du. Eta emearen bila doa. Arrak emea aurkitzen du, eta dantzatzen hasten da. Bere gorputzeko kolore biziak erakusten ditu. Orduan emea hipnotizaturik gelditzen da. Arrari begira dago geldi geldi. Orduan arrak, kontuz kontuz, bere saretxoa uzten du emearen irekidura genitalalean. Hori egiten du, eta arin arinka eskapatzen da. Bestela, emeak harrapatuko du eta erruki barik hilko.

Harrapa eta hil? Bai. Emeak bere maitea harrapatzen du eta hiltzen du. Harrapatu eta paralizatu egiten du. Gero arraren

ehunak xurgatzen ditu, eta eskeletoa bakarrik uzten du. Hori bai maitasuna! Kasu hontan matxismoa gainditurik dago.

ar: macho; **armiarma:** araña; **bakarti:** solitario; **barik:** sin; **beldugarri:** temible, espantoso; **berezi:** especial; **birsorkuntza:** reproducción; **ehun:** tejido; **eme:** hembra; **ernalkuntza:** preñez, fecundación; **erruki:** compasión; **gaindi** (gainditu, gainditze): superar; **irekidura:** abertura, orificio; **isur** (isuri, isurtze): derramar, eyacular; **kontu:** cuidado; **maitasun:** amor; **maite:** amado, querido; **misteriotsu:** misterioso; **sare:** red; **tanta:** gota; **xurga** (xurgatu, xurgatze): chupar, succionar.

148

ERLE MIRAGARRIAK

Erleen bizitza miragarria da. Erlauntza benetako lagunarte edo sozietatea da. Kastak eta hierarkiak daude. Eta lana perfektiki banaturik dago. Baina lan aldakorra. Nolako premia, halako lana. Hain zuzen, aldakortasun horrek garantizatzen du lagunarteko armonia.

Baina hortarako nola komunikatzen dira erleak? Ez dute irakurtzen. Ez dute berba egiten. Nola elkar ulertzen dute? Erleen zentzu nagusia usnamena da. Usainetik elkar ezagutzen dute. Erlauntza bakoitzak, kolonia bakoitzak, bere usaina dauka. Horrela ezagutzen dituzte etxeakoak eta kanpokoak.

Erleen beste gauza harrigarri bat defentsa sistema da. Erle batzu atean egoten dira. Sarritan kanpotarren bat edo liztorren bat etortzen da. Batzutan konfunditurik etortzen dira eta pasiboki errenditzen dira. Orduan atezainak barkatu egiten die eta ez ditu hiltzen. Beste batzutan, ostera, ez dira errenditzen, eta orduan burruka errukigabea hasten da. Erleak bere eztena sartzten du etsaiaren gorputzean, eta arerioa hil egiten du. Gero bera ere hiltzen da. Baina erlauntza aurrera doa. Harrigarria!

aldakor: mudable, variable; **aldakortasun:** variabilidad, flexibilidad; **arerio:** enemigo; **atezain:** portero; **bana** (banatu, banatze): distribuir; **burruka:** lucha; **erlauntza:** colmena; **erle:** abeja; **errukigabe:** inmisericorde; **etsai:** enemigo; **ezten:** aguijón; **hain zuzen:** precisamente; **kanpotar:** forastero; **liztor:** avispa; **miragarri:** admirable, maravilloso; **ostera:** en cambio; **premia:** necesidad, apremio; **usain:** olor; **usnamen:** olfato.

149 IRAKURTZEA KALTEGARRI?

Haur txikia eskolara hasi da. Bi urte, hiru urte, lau urte dauzka. Eskolaurrean dabil. Zer egiten du? Lapitza erabiltzen du, marrak eta marrazkiak egiten ditu. Esku lanak egiten, espazioa ezagutzen hasi da. Eta irakurtzen ere bai. Ona ote da irakurtzen hastea? Txarra ote da?

«Gure umeak lau urte bakarrik dauzka eta irakurtzen daki», esaten dute batzuk harro harro. Ona ote da hori? Kontuz! Haurrak lehenbizi gauzak ikusi behar ditu. Gauzak ikusi eta beren izenarekin batu. Gauzak eta izenak asoziatu behar ditu. Horregatik, batzuren ustez, irakurtzen ikastea ez da ona. Umeak noiz hasi behar du irakurtzen? Bost edo sei urterekin. Hori uste dute umeen espezialista batzuk.

Haur txikiak gauzekin komunikatzen hasi behar du. Irakurketak haurraren eboluzioa nahasten du. Oraindio ez du ikasi lapitza erabiltzen. Orduan nola jakingo du letrak marraztaten? Oraindio ez daki mahaia eta aulkia bereizten. Orduan zertarako ikasiko du gauza ezezagunak idazten?

bereiz (bereizi, bereizte): distinguir; **eskolaurre**: preescolar; **ezezagun**: desconocido; **harro**: orgulloso; **irakurketa**: lectura, acción de leer; **kaltegarri**: perjudicial; **marra**: raya; **marrazki**: dibujo; **marrazta** (marraztatu, marraztate): dibujar; **nahas** (nahastu, nahaste): revolver, trastornar; **oraindio**: todavía.

150 AUTOMOBILA HAURRENTZAT TXARRA

Hiri handietan trafiko handia dabil. Hiri handietan automobil asko dabilta. Automobilek gas toxikoak botatzen dituzte. Gas toxikoek hiri handietako airea kutsatzen dute. Eta kutsadura horrek eritasun berriak ekartzen ditu. Eta eritasun hoiek haurrak batez ere harrapatzen dituzte.

Eritasun bat saturnismoa da. Zer da hori? Odola pozointzen da, eta orduan anemia eta giltzurrunetako zauriak datoz. Tipo-

grafoek berunaz lan egiten dute, eta eritasun hori edukitzen dute. Eritasun hori orain hiri handietan zabaldu da.

Eritasun horren arriskurik handiena ume txikiek daukate. Gaitz horrek zergatik harrapatzen ditu ume txikiak? Ume txikiek estatura baxua daukate. Automobilen ke hodiaren parean daude haien sudurrak. Horregatik motorearen kea eta hondarra aurpegian hartzen dute. Nagusiek ere arnasa hartzen dute, baina altura hortan kutsadura apur bat diluitu egiten da.

Trafiko handiak beste eritasun bat ere sortzen du: akrodermatia. Zer da hori? Azala lesionatzen du eta gibela ere bai. Trafikoa ez da gutxituko. Zer egin behar dugu?

berun: plomo; **eritasun:** enfermedad; **gaitz:** mal, dolencia; **gibel:** hígado; **giltzurrun:** riñón; **gutxi** (gutxitu, gutxitze): disminuir; **hodi:** tubo; **hondar:** residuo; **ke:** humo; **kutsa** (kutsatu, kutsatze): contaminar; **kutsadura:** contaminación; **pare:** par, frente; **pozoin** (pozoindu, pozointze): envenenar; **sudur:** nariz; **zauri:** herida, llaga.

151 BI AHARITOK ETA OTSOA

Bildots talde batetan bi aharitok ihes egin dute. Oraindio ez dira handiak, baina haiek hori uste dute. Oraindio ez dira ahariak, baina haiek hori pentsatzen dute. Horregatik ihes egin nahi izan dute. Nora? Ardien taldera. Basoan zehar doaz, eta otso bat agertzen zaie.

—Geldi hemen! Biotariko bat jan behar dut —esaten die otsoak. Aharitoak negarrez hasten dira.

—Utz ni libre —esaten dio batak.

—Ez ni jan —esaten du besteak.

—Ixilik! Zeuen artean hitz egin, eta erabaki auzia —esaten die otsoak. Aharitoak baztertzen dira. Berba egiten dute elkarrekin, eta ba datoz berriro.

—Zu egon hemen geldi —esaten diote otsoari—. Gu zure alboetan jarriko gara. Bakoitza albo batean. Hamabi pauso

atzeratuko gara. Zu aurrera begira egongo zara, eta hamabi urrats atzerago gu. Orduan lasterka hasiko gara. Eta zuri atzean mun egingo dizugu. Biotako batek egingo dizu lehenen. Horixe utziko duzu bizirik.

—Öndo! Baina berehalaxe egin —esaten du otsoak.

Bi aharitoak hamabi urrats atzeratzen dira. Otsoa aurrera begira dago. Aharitoak lasterka hasten dira, eta behingoan helzen dira. Baina biak batera iristen dira. Eta biek batera egiten diote mun. Baina nola? Topekada izugarria ematen diote bien artean. Otsoaren ipurdia barrurantz sartzen da. Hesteak eta giltzurrunak eta saihetsak pilatzen dira. Otsoa alaurika dago lurrean.

—Nola zaude, otso jauna? —esaten diote aharitoek—. Gure asmoa ez da hori izan. Baina biok batera heltzea gertatu da.

—Traidoreak zarete. Laster osatuko naiz, eta biok jango zaituztet.

—Gu ere berriro etorriko gara. Bien bitartean, gorde ondo apetitua.

Aharitoek otsoaren sudurretan uzker bana sartzen dute. Eta ba doaz biak beren bidean.

ahari: carnero; **aharito:** carnero joven; **alauri:** alarido; **albo:** lado; **ardi:** oveja; **asmo:** propósito, intención; **atzera-** (atzeratu, atzeratze): retroceder; **auzi:** pleito; **baso:** bosque; **bazter** (baztertu, baztertze): apartar a un lado; **bebingoan:** en seguida, al instante; **berehala:** en seguida, al instante; **bildots:** cordero; **bizi:** vivo; **erabaki** (erabakitze): resolver; **giltzurrun:** riñón; **heste:** intestino; **ihes egin:** huir; **ipurdi:** trasero; **irits** (iritsi, iriste): llegar; **mun egin:** besar; **osa** (osatu, osatze): curar; **otso:** lobo; **pauso:** paso; **pila** (pilatu, pilatze): apilar, amontonar; **saihets:** costilla; **sudur:** nariz; **topekada:** topetazo; **urrats:** paso.

152

JOAN HARTZ ERREGE

Amak ez dauka bularrik, eta umea mendian uzten du. Umea Joan deitzen da. Mendian hartz batek hazten du. Umea indartu egiten da mendian. Mailukari egiten da.

Behin, mundua ikustea pentsatzen du Joan Hartzek. Ibil eta ibil, ibai bat aurkitzen du. Begira dago, eta gizon bat ikusten du. Gizon hura iragalea da. Bidaiariak alde batetik bestera iragaten ditu.

—Eraman ni ere beste aldera —esaten dio Joan Hartzek gizonari. Gizonak Joan Hartz bizkarrean hartzen du, eta igeri egiten hasten da. Bide erdira heltzen dira.

—Gizon astun asko pasatu ditut beste aldera —esaten dio iragaleak Joan Hartzi—. Baina zu zara astunena.

—Ez da harrigarri —erantzuten dio Joan Hartzek—. Ehun arroako ingudea daramat sakel batean, eta beste sakelean berrogei ta hamar arroako mailua.

Bazterrera heltzen dira, eta Joan Hartzek berekin eramán nahi du gizona.

—Mutil! —esaten dio gizonari—. Gu lagun onak gara. Joan gura duzu nirekin?

Gizonak baietz esaten du. Ibil eta ibil, artzain bat aurkitzen dute. Artzaina ere laguntzat hartzen dute, eta hirurak doaz.

Joan Hartz eta lagun biak hiri handi batetara heltzen dira. Erregearen jauregian adarra entzuten dute. Zer jazo da? Orduan jakiten dute. Erregearen bi alabak deabruak ohostu ditu. Leize baten barrura eramán ditu. Erregearen alabak leizean daude.

—Ekar soka luze bat —esaten du Joan Hartzek—. Neuk aterako ditut erregeren alabak.

Joan Hartz sokan behera jaisten da. Leizearen hondoan bi ahizpak aurkitzen ditu. Deabrua lo dago.

—Ixilik, neskak! —esaten die Joan Hartzek—. Zu, sar nire sakel batean. Eta zu beste sakelean.

Eta sokan gora igoten da. Erregearen bi alabak salbatu ditu. Joan Hartzen lagunek, iragaleak eta artzainak, bi neska eder haik ikusten dituzte, eta beraiekin ezkontzea pentsatzen dute.

—Deabrua lo? —esaten diote Joan Hartzi—. Koldarra zara. Ezetz iratzar deabrua!

—Ezetz? —erantzuten die Joan Hartzek—. Bai horixe!

Joan Hartz berriro sartzen da leizean. Mailua eta ingudea ateratzen ditu, eta mailuka hasten da. Deabrua laster itzartzen da.

—Nor zara? —galdetzen dio deabruak.

—Joan Hartz naiz ni.

—Non daude erregeren alabak?

—Neuk eraman ditut.

—Zuk eraman?

Eta deabrua eta Joan Hartz burrukan hasten dira. Joan Hartzek belarria kendu dio deabruari. Orduan deabruak argia itzaltzen du, eta Joan Hartzek ez du ezer ikusten. Azkenean tratua egiten dute. Joan Hartzek belarria ematen dio deabruari, eta honek argia pizten du eta irteten uzten dio Joan Hartzi.

Leizetik irten da Joan Hartz, eta soinua eta zarata handia entzuten du kanpoan. Zer gertatzen da? Erregearen alabak Joan Hartzen bi lagunekin ezkontzen dira. Joan Hartz haserre jartzen da, eta jauregira doa.

—Nor izan da zuen salbatzailea? —esaten die erregearen alabei.

—Zu izan zara —erantzuten dute haiek.

Erregeak hori jakiten du, eta Joan Hartzen lagun biak hiltzen ditu. Joan Hartz bi ahizpekin ezkontzen da.

alde: lado; **arroa:** arroba; **bazter:** orilla; **bidaiari:** viandante; **bizkar:** espalda; **blar:** pecho, leche materna; **burruka:** lucha; **deabru:** diablo; **errege:** rey; **ezetz:** que no, a que no; **hartz:** oso; **haserre:** enfadado; **hondo:** fondo; **indartsu:** forzado; **ingude:** yunque; **iragale:** porteador; **iragan** (iragate): pasar, transportar; **iratzar** (iratzarri, iratzartze): despertar; **itzar** (itzarri, itzartze): despertarse; **jaits** (jaitsi, jaiste): bajar; **kanpo:** fuera; **koldar:** cobarde; **leize:** sima; **mailukari:** martilleador; **sakel:** bolsillo; **soinu:** sonido, música; **soka:** sogá.

Suediako ikerlari talde batek antisorgarri bat aurkitu du. Eta sudurretik ematen da. Eta baporea legez hartzen da. Pilulek bezala, bapore honek hormona emeak sortzen ditu. Sudurretik hartzen da, eta zerebroko hipofisira doa. Hipofisia glandula bat da, eta glandula honek obulazioa gelditzen du.

Sistema honen alderdi on bat hau da: hipofisia bakarrik afektatzen du. Beste organoak aparte gelditzen dira. Pilulak, berriz, gorputz osoa harrapatzen du. Gainera, pilularen gaiak 24 ordu irauten dute gorputzean. Bapore berri honen gaiak, ordea, bost minututan amaitzen dira. Beraz, ez dauka pilularen ondorio sekundariorik: ez urdaileko minik, ez gizentzerik, ez zorabiorik, ez grina sexualaren ahultzerik.

Orain arte metodo berri honekin 27 emakume tratatu dituzte. Erresultatu ona eman du emakume guztietan. Ehunetik ehunekoak. Bapore hau egunero hartu behar da. Baporaldi bakoi-tzean miligramo erdi hormona sortzen da gorputzean.

ahul (ahuldu, ahultze): debilitar; **alderdi**: lado, parte; **antisorgarri**: anticonceptivo; **baporaldi**: vaporización; **egunero**: diariamente; **eme**: femenino; **gizen** (gizendu, gizentze): engordar; **grina**: inclinación, pasión; **ikerlari**: investigador; **iraun** (iraute): durar; **ondorio**: consecuencia, efecto; **pilula**: píldora; **sudur**: nariz; **urdail**: estómago; **zorabio**: vértigo, mareo.

Itsasoko ura oso ona da osasunerako. Erreuma kentzen du, eta zauriak arin arin osatzen ditu. Itsasoko urak beste propietate on asko dauzka. Ingalaterran institutu inportante bat dago. Institutu hortan itsasoko uraren propietateak estudiantzen dituzte.

Orain institutu hortan beste gauza bat asmatu dute: basaterapia. Basa edo lokatza erabiltzen dute, eta basa horren bidez eritasunak osatzen edo sendatzen dituzte.

Tratamendua honela da. Itsasoaren hondotik basa ateratzen da. Gero basa berotzen da. Eta basa horrekin osoki edo parzialki gaixoaren gorputza igorzten da. Zer egiten du horrek? Muskuluak erlaxatu, eta artrosia eta hezur eritasunak sendatu. Basak indar terapeutikoa dauka. Hori txerriek ere ba dakite. Horregatik hainbeste maite dute basatza.

basa: barro, lodo; **basatza:** lodazal; **bero** (berotu, berotze): calentar; **erlaxa** (erlaxatu, erlaxatze): relajar; **hondo:** fondo; **igortz** (igortzi, igorzte): frotar; **lokatz:** barro, lodo; **osoki:** enteramente; **senda** (sendatu, sendatze): curar; **txerri:** cerdo; **zauri:** llaga, herida.

155 DONOSTIAKO EGUN BELTZA

Donostian urtero gogoratzen da egun bat: 1813.eko agorrilaren 31. Egun beltza. Zer gertatu da? Egun hortan Donostia erre eta desagin dute.

Espainiako independentzi gerran gaude. Donostia frantsesek okupatu dute. Napoleon izan da okupazioaren buru. 1803.ean hasi da independentzi gerra. Eta 1813.ean bukatzen da. Bukarra tristea Donostiarentzat.

Egun hortan frantsesak erretiratzen dira. Gerra galdu dute. Aliatuak sartzen dira Donostian: espainolak, ingelesak eta portugesak. Arratsaldeko laurak dira. Euria eta ekaitz haundia. Eguraldi beltza, tximistak eta trumoiak. Orduan suak hartzen du Donostia. Eta soldaduak herria sakeatzen eta jendea hiltzen eta biolatzen hasten dira.

Nortzuk egin dute hori? Ingelesak frantsesei botatzen diete errua. Frantsesek espainolei, portugesei eta ingelesei. Baina egia hauxe da: Donostia hondatu egin da. «De San Sebastián no quedará sino la memoria de donde estuvo situada», esaten

du *Gaceta de Madrid* egunkariak. Donostiak orduan 7.000 bizi-lagun dauzka. 1.400 lagun hiltzen dira. Ez da gutxi gero!

bizilagun: habitante; **buka** (bukatu, bukatze): acabar; **bukara:** final, término; **desegin** (desegite): deshacer; **ekaitz:** tempestad; **erre** (erretze): quemar; **erru:** culpa; **gogora** (gogoratu, gogoratze): recordar; **honda** (hondatu, hondatze): hundir, destruir; **trumoi:** trueno; **tximist:** rayo; **urtero:** anualmente.

156 OKILAREN SEKRETU TEKNIKOA

Okila txori bat da. Okilak zuhaitza zulutzen du. Mokoka zulutzen du. Kolpe sendoz eta habiadura handiz zulutzen du. Baina okilaren buruak ez du minik hartzen. Zergatik? Non dago sekretua?

Okilaren buruak trajektoria guztiz arteza eramaten du. Artez artez jotzen du. Zuzen zuzen ematen du kolpea. Mugimendu artez honek kolpearen indarra gutxitzen du buruarentzat. Hortarako, mendeetan zehar okilak mila eta mila entseiu egin ditu. Horrela ikasi du teknika hori. Espezialistek okilaren teknika ikusi dute, eta defentsa sistema berriak sugeritzen dituzte autozale eta pilotuentzat.

Kaskoa bakarrik ez da nahikoa. Babesgailuren bat ere behar da. Babesgailuaren bidez buruaren errotazioa kentzen da. Buruak ez du jiratu behar. Lepoko muskuluak tentsatu behar dira, eta kokotza paparraren kontra ipini behar da. Honela kolpea hobeto neutralizatzen da. Nork irakatsi du hori? Okilak. Okila txori ederra da. Ez da Euskal Herrian ugaria. Baina edozein basotan dago baten bat. Zuhaitza zulutzen du, eta barruan egiten du habia.

abiadura: velocidad; **artez:** recto; **autozale:** aficionado a autos; **babesgailu:** aparato protector; **baso:** bosque; **entseiu:** ensayo; **gutxi** (gutxitu, gutxitze): disminuir; **habia:** nido; **kokotz:** mentón; **lepo:** cuello; **moko:** pico; **okil:** picatroncos; **papar:** parte superior del pecho; **ugari:** abundante; **zuhaitz:** árbol; **zula** (zulatu, zulatze): agujerear; **zuzen:** recto, rectamente.

157 ZARAMAREKIN ZER EGIN?

Zenbat zikinago, hainbat tontoago. Orduan, listoenak indioak, ijitoak eta eskimaleak dira. Tontoenak, berriz, iparramerikarrak, kanadiarrak eta anglosaxoniarrak. Hauek produzitzen dute zamararik gehien. Hitz batez, hauk dira txerri nagusiak. Baina hauek aldrebes jarri dute argumentua: zarama asko produzitzea aurrerapen haundiaren seinalea da.

Espanian garia, altzairua, haragia eta fruta garratzak produzitzen dira. Hala ere, zarama gehiago produzitzen da. Hondakin solidoz bakarrik igaz hamar milioi tonelada batu dira. Ipin tonelada hoiengainean estoldetako sastarrak, gai industrialak, kontrol gabeko zaborreria, eta beste hamar milioi tonelada gehiago izango dira urtean.

Pertsona bakoitzak hirurehun gramo kaka egiten du batez beste egunero. Dena batzen dugu, eta penintsula osoan lau milioi tonelada dira urtean. Gai organiko ederra. Gai horrek ez ote du ezertarako balio? Naturak zer egiten du bere gaiekin? Zer egiten du lurrak? Begira! Neguan hostoak jausten dira, neguan usteltzen dira, eta hortik dator udaberria. Naturan ez da ezer alferrik galtzen. Zergatik galtzen da gai organiko eder hori?

altzairu: acero; **aurrerapen:** adelanto, progreso; **batez beste:** uno con otro, por término medio; **estolda:** alcantarilla; **gari:** trigo; **garratz:** agrio; **hainbat:** tanto; **hondakin:** residuo; **hosto:** hoja; **igaz:** el año pasado; **ijito:** gitano; **sastar:** desperdicio; **txerri:** cerdo, puerco; **ustel** (usteldu, usteltze): pudrirse; **zaborreria:** basura; **zarama:** basura.

158 ATARRABIOREN ITZALA

Atarrabio jauna Goñiko erretorea da. Behin, Atarrabio eta beste lagun bi infernura doaz. Haietako bat Berako fraidea da. Zer egin nahi dute infernuan? Deabrua ikusi gura dute, eta zerbait ikasi.

—Zer nahi duzue? —galdetzen die deabruak.

—Zurekin ikastaro bat egin —erantzuten dio Atarrabiok.

Deabruak baldintza bat jartzen du: gero bat bertan gelditzea. Atarrabio eta lagunak ados daude. Ikastaroa bukatu da, eta batek infernuan geratu behar du.

—Nor geratuko da hemen? —galdetzen du deabruak.

—Nire atzekoa. Hel horri! —erantzuten dio Atarrabiok.

Deabruak sardea hartzen du, eta Atarrabioren atzekoari sartzen dio. Atekoa Atarrabioren itzala da. Atarrabioren itzala infernuan gelditzen da.

Atarrabio eta bi lagunak Goñira datoz. Atarrabio itzal barik dator. Herritarrak beldur dira. Mezatan ere ez dauka itzalik. Sagara denboran bakarrik etortzen zaio itzala. Gero berriro itzal gabe geratzen da.

Atarrabio horrela bizi da urte bete. Baina beldurtzen hasten da. Ez du beste mundura itzal barik joan gura. Sakristauagana doa laguntza bila.

«Kaxiano!» esaten dio sakristauari. «Zuk ba dakizu. Nik sagara denboran bakarrik daukat itzala. Bihar mailu haundi bat ekarriko duzu mezatara. Sagara denboran buruan joko nauzu mailuarekin eta hil egingo nauzu. Gero bihotza aterako didazu, eta makila baten puntan ipiniko duzu elizpean. Txori bat etorriko da elizpera, eta bihotza eramango du. Txoria belea izan da? Orduan kondenatua naiz. Txoria usoa izan da? Orduan salbatua naiz.»

Sakristauak agindua kunplitzen du. Bele sail handi bat etortzen da. Beleak bihotzaren parean jira-biraka dabilta. Orduan uso zuri txiki bat etortzen da, eta honek eramaten du bihotza. Sakristaua eta herriko jendea pozik daude. Denek dakite egia. Zeruan dago Atarrabio jauna, Goñiko erretorea.

ados: de acuerdo; **agindu:** mandato; **baldintza:** condición; **beldur** (beldurtu, beldurtze): amedrentar, tener miedo; **bele:** cuervo; **deabru:** diablo; **elizpe:** pórtico de iglesia; **erretore:** rector de iglesia, párroco; **fraide:** fraile; **hel** (heldu, heltze): agarrar; **herritar:** gente del pueblo; **ikastaro:** curso de estudios; **itzal:** sombra; **jira-bira:** vuelta, giro; **laguntza:** ayuda; **makila:** bastón, palo; **meza:** misa; **pare:** par, frente; **sagara:** consagración; **sail:** bandada; **sakristau:** sacristán; **sarde:** horquilla de puas largas; **uso:** paloma.

Amerikarrak, batez beste, urtean 1.500 ordu egiten ditu kotxean. Bera konduktore edo alboan eserita edo aparkalekuaren bila, eta abar. Egunean, beraz, lau ordu kotxe barruan. Eta kotxe inguruan askoz gehiago. Amerikarrei, antza, ez zaie gustatzen oinez ibiltzea.

Gizona, makinarik gabe, nahiko efikaza da oinez. Hamar minututan eta kilometro batetan kilo bat eramaten du, eta 0,75 kaloria gastatzen du. Ez dago hain kontsumo gutxiko motorerik. Animaliarik gehienak ez dira horra heltzen. Zaldia bera ere ez.

Orain ehun urte bizikleta agertzen da. Gizonaren mugimena gorengo mailara heltzen da. Gorago ezin da. Lur lauan bizikletan hiru edo lau bider azkarrago egiten da. Eta kaloria gutxiago behar da. Kilometro batetan kilo bat eramaten da, eta 0,15 kaloria gastatzen da. Marka hortara hurbildu ere ez dira egiten beste makinak.

azkar: rápido; **batez beste:** uno con otro, por término medio; **eser** (eseri, esertze): sentarse; **gorengo:** lo más alto; **hurbil** (hurbildu, hurbiltze): acercarse; **iraultza:** revolución; **lau:** llano; **maila:** grado; **mugimen** capacidad de movimiento; **zaldi:** caballo.

Algak itsasoan daude. Alga batzu haundiak dira. Algetatik gas metanoa ateratzen da. Orduan zer egin behar da? Algak kultibatu, itsasoan soroak egin.

Alga bat *macrocystis* deitzen da. Alga hau guztiz handia da. Alga digante hau asko ugaritzen da. Ekologo askorentzat beldurgarria da. Hitchcock zinegileak izu filme bat egin du alga hontaz.

Kalifornian itsas soro bat dago alga honekin. Eta errendimendu ona dauka. Hektarea batek alga honen hamar tonelada ematen ditu. Horrekin 3.400 m³ metano egiten dira.

Hortarako planak orain hamar urte hasi dira. Gaur proiektua aurrera doa Ipar Amerikan. Bederatzi milioi dolar gastatu dituzte hortan. Laster itsasoa goldatzen hasi beharko da. Algatzar hauk edonon hazten dira. Beraz, itsas soroak ere, teorian, edozein itsasotan jarri ahal dira. Lurraren azala, ehuneko 70ean, itsasoa da. Pentsa zenbat soro! Merezki ote du energia horrek? Planak aurrera doaz, eta denborak esango du.

algatzar: alga enorme; **azal:** superficie, corteza; **beldurgarri:** temible, terrible; **digante:** gigante; **edonon:** en cualquier lugar; **edozein:** cualquiera; **golda** (goldatu, goldatze): arar; **izu:** terror, espanto; **merezi izan:** merecer; **soro:** campo cultivable, heredad; **ugari** (ugaritu, ugaritze): aumentar, multiplicar.

161 KONTUZ GALEPERRAREKIN!

Bai gozoa galeperraren kantua egunsentian! Galeperraren arraultzeak propietate terapeutikoak dauzka. Hori aintzina aurkitu dute txinoek.

Zer propietate da hori? Frantses mediku batek oraintxe berifikatu du. Bi mila frantses beren alerkiatik sendatu dira. Galeper arraultzeak jan dituzte, eta osatu egin dira. Truffier doktoreak aurkitu du. Hobeto esan, berraurkitu du. Txinatarrek aintzinatik dakite hori. Oraintsu vietnamiarrek, poloniarrek eta errusoek ere bai.

Hala ere, tratamendua medikuen kontrolpean egin behar da. Galeperraren arraultze gordinak ondorio sekundarioak ekarri ahal ditu. Horregatik, kontuz ibili behar da.

Arraultze txiki honek alergiak sendatzen ditu. Frantzian bakarrik, ehuneko hamabost (15%) lagun alergikoak dira. Eritasun hau gaur modan jarri da. Eta ia ez dago kontrako ezer. Laster galeperrak urrea balio izango du. Baina txori honek beste gauza bat dauka txarra. Medikuak eta zoologoak kezkatu-

rik daude. Galeperra txori pozointsua omen da. Hori aurkitu dute jakintsuek.

Koturnismoa aintzinatik ezagutzen da. Latinez galeperra *co-
turnix* da. Hortik gaztelaniaz *codorniz*. Koturnismoa gaixotasun bat da. Galeperra jaten duzu, eta toxikatu egiten zara. Toxikatzeko honek arnasa itotzen du, eta heriotza ere ekartzen du. Zer dauka galeperrak? Alkaloide indartsu bat. Nondik dator hori? Zer egiten du galeperrak?

Galeperrak intsektuak jaten ditu. Txori gutxi dira intsektu jaleak. Galeperra da bat. Intsektu hauek, beren aldetik, landare toxikoak jaten dituzte, adibidez, aristolokideak. Izen polita! Landare hauek azido pozointsua daukate. Eta azido honek beheranzkoak, gomituak, espasmoak, abortuak, nefritiak eta abar sortzen ditu. Galeperra, beraz, txori kontradiktorioa da. Alde batetik ona eta bestetik txarra.

beheranzko: diarrea; **berraurki** (berraurkitu, berraurkitze): reencontrar, redescubrir; **egunsenti:** alba, aurora; **gaixotasun:** enfermedad; **galeper:** codorniz; **gaztelania:** lengua castellana; **gomitu:** vómito; **gordin:** crudo; **indartsu:** fuerte, poderoso; **ito** (itotze): ahogar; **jale:** comedor, que come; **kezka** (kezkatu, kezkatze): preocuparse; **kontrolpe:** bajo control; **lagun:** individuo; **oraintsu:** recientemente, ahorita; **pozointsu:** venenoso; **senda** (sendatu, sendatze): curar.

162 OINARRIZKO KOLOREAK ETA BEGIA

Oinarrizko koloreak hiru dira: horia, gorria eta urdina. Hauen inguruan daude beste guztiak. Koloreak nahasten dituzu, eta matiz berriak irteten dira. Matizak amaigabeak dira. Begi edo ikusmen normalak bi milioi matiz bereizten ditu.

Baina ehuneko hamar (10%) gizonezkoak eta ehuneko zero koma bost (0,5%) emakumezkoak jaiotzatik bertatik gaitz bat daukate ikusmenean. Kromosoma batek egiten du hori, eta koloreetarako sena laburtzen du. Orduan ezin dituzu ondo be-

reizi oinarrizko koloreak, batez ere gorria eta berdea. Akats hau daltonismoa deitzen da.

akats: defecto; **amaigabe:** infinito, interminable; **bereiz** (bereizi, bereizte): distinguir, diferenciar; **emakumezko:** fémina; **gizonezko:** varón; **ikusmen:** facultad de ver, vista; **jaiotza:** nacimiento; **labur** (laburtu, laburtze): acortar; **nahas** (nahastu, nahaste): mezclar; **oinarri:** base, fundamento; **sen:** instinto.

163

KULTURA BEHERA

Estatu Batuetan konpainia haundiak daude. Konpainia haundi hauek honelako propaganda egiten dute telebistan: «Jaun-andreak! Laster etxetik bertatik egin ahalko dituzue erosketak. Pantailan ikus, hauta eta eros! Zer behar duzue gehiago?»

Teknologia honek masifikazioa dakar. Hori sarritan entzun dugu. Egia ote da?

Datu batzu beldurgarriak dira. Ikasleen kopurua gora doa. Literatur zaleen kopurua, ostera, behera. Beste seinale beldurgarriago bat. Alde batetik, emakumeen mugimendua gorantz doa. Beste aldetik, Frantzian eta Italian prentsa arrosatua gora eta gora doa. Emakume modernoaren aldizkariak krisian daude. Aldizkari arrosatuak, ordea, gora doaz.

Prentsa arrosatu honek krisia eduki du 1974.ean. Baina askorik ez. Globalki ehuneko hiru (3%) jaisten da Frantzian. Hurrengo urtean berriro hasten da gorantz. Prentsa arrosatu honek zenbat ale saltzen ditu gaur? Hiru milioi. Ez ote da hori asko? Ez ote da larregi?

ale: grano, ejemplar; **arrosatu:** rosado, color rosa; **beldurgarri:** terrible; **erosketa:** compra; **hauta** (hautatu, hautatze): elegir, escoger; **jaits** (jaitsi, jaiste): bajar, descender; **kopuru:** suma, número total; **larregi:** demasiado; **ostera:** en cambio; **zale:** aficionado.

164 ATARRABIO ETA DEABRUA

Atarrabio Goñiko apez erretorea da. Behin, Jainkoaren argitasun bat dauka. Aita Saindua deabruarekin kontsultan dago. Deabruak emakume baten itxura hartu du. Zerbait egin behar da Aita Sainduaren alde.

Atarrabiok hiru iratxo dauzka bere morroi. Dei egiten die, eta berehalaxe etortzen dira. Bati dei egin dio, eta behingoan agertu da.

—Zenbat denboraz eramango nauzu Erromara? —galdetzen dio Atarrabiok iratxoari.

—Ordu laurden batez.

—Ez zara niretzat ona.

Bigarrenari dei egiten dio, eta honek «bost minutuz» esaten du. Hau ere ez da ona Atarrabiorentzat. Azkenez, hirugarren iratxoa agertzen da.

—Zenbat denboraz eramango nauzu Erromara? —galdetzen du apezak.

—Behingo behingoan —erantzuten du iratxoak.

—Zu zara niretzat ona.

—Zer sari emango didazu? —galdetzen dio apezari iratxoak.

—Neure gaurko bazkariaren gaina.

Iratxoak Erromara eramaten du Atarrabio. Atarrabio Aita Sainduaren jaruregira joan da, eta atezainarekin berba egiten ari da.

—Aita Sainduarekin egon nahi dut —esaten dio Atarrabiok.

—Ez da posible —erantzuten dio atezainak.

—Orduan tori mesedez makila hau, eta beronekin har neurriak Aita Sainduaren mahaiari.

Makila harek gurutze bat dauka. Atezainak mahaiia neuritzen du. Orduan emakume harek —hobeto esan, deabruak— ihes egiten du Aita Sainduaren aurretik.

—Noren aginduz egin duzu hori? —galdetzen dio Aita Sainduak atezainari.

—Hor dago gizon bat. Berorren aginduz egin dut.

—Ikusi gura dut neure ongilea. Dei egin gizon horri —esaten dio Aita Sainduak.

Baina ordurako Atarrabio Goñin dago berriz. Erromatik bueltan soingainekoa astintzen du sukaldean, eta elurra erortzen da.

—Jakako mendietan elurra ari da —esaten du Atarrabiok.

—Nola dakizu hori? —galdetzen dio iratxoak.

—Burduntziko oilar horrek kukurruku egingo du. Hor daukazu nire jakituriaren seinalea.

Eta oilar erreak kukurruku egiten du. Atarrabiok intxaurrekin bazkaltzen du, eta bazkariaren gaina (intxaurren oskolak) iratxoarentzat uzten ditu.

agindu: mandato; **argitasun:** ilustración, aclaración; **astin** (astindu, astintze): sacudir; **atezain:** portero; **bebingoan:** en seguida, al instante; **berriz:** nuevamente; **burduntzi:** asador, instrumento de hierro que se emplea para asar; **deabru:** diablo; **erre** (erretze): asar, tostar; **erretore:** rector de iglesia, párroco; **gain:** culmen, lo de encima, lo superior; **gurutze:** cruz; **intxaurre:** nuez; **iratxo:** duende; **itxura:** figura, forma; **jakituria:** sabiduría; **makila:** bastón, palo; **morroi:** criado; **neurri:** medida; **oilar:** gallo; **ongile:** bienhechor; **oskol:** cáscara; **sari:** recompensa.

165 ERRAUTSAREN ONTASUNAK

Nekazariak baserrian eta mendian naturarekin bizi dira. Erremedio naturalak erabiltzen dituzte. Baserriko erremedio bat errautsa izan da. Errautsa hemorragien kontra. Alkohola eta merkurokromoa onak dira hortarako. Baina errautsa hobe. Azkarragoa da, eta zaurien arrasto gutxiago uzten du.

Baserritarrek irendu egiten dituzte oilarrak eta beste animalia batzu. Ahuntzei adarrak moztu ere. Orduan infekzioa ebita-

tu behar da, eta zauria ahalik lasterren itxi. Hortarako, zer egiten dute baserritarrek? Errautsa egiten dute, eta zauriei eta beste ebakiei botatzen diete. Eta zauria itxi.

Nola egiten dute errautsa? Basoko egurra biltzen dute. Egur bariatua. Sua ematen zaio egurrari, eta errauts garbia ateratzen da. Errauts horrek ez dauka ez lurrik ez beste sustantziarik. Gero eralki egiten da, eta errauts fin fina ateratzen da. Horixe da ona.

Hausterre eguna da. Elizan errautsa hartzen da bekokian. Gizon batek buruan zauria dauka, eta apezari esaten dio: «Bekokian ez, hemen egin, jauna.» Eta buruko zauria erakusten dio.

ahalik lasterren: lo más pronto posible; **ahuntz:** cabra; **apez:** cura; **arrasto:** rastro; **azkar:** rápido; **baserri:** caserío, aldea; **baserritar:** aldeano; **baso:** bosque; **bekoki:** frente; **ebaki:** corte, cortada; **egur:** leña; **eralki** (eralkitze): cerner, tamizar; **errauts:** ceniza; **hausterre egun:** miércoles de ceniza; **iren** (irendu, irentze): castrar; **motz** (moztu, mozte): cortar; **neka-zari:** agricultor; **oilar:** gallo; **zauri:** herida, llaga.

166 PUBLIZITATE GALGARRIA

«Neskafeaz gizon sendoagoak, emakume alaiagoak eta ume argiagoak.» Bolikostan, 1970.ean, irratiak mezu hau botatzen du egunean hiru bider. Zer gertatzen da? Emakumeek urte ta erdiko hurrei neskafea ematen diete. Publizitateak sarritan elikadura txarra zabaltzen du.

Mexikoko hirietan medikuek hau ikusi dute: familia pobreek beren arraultze eta oilaskoak saltzen dituzte. Gero zer erosten dute? Gasezko edariak, publizitateak goratuak eta alimentu gabeak. Etxean gose dira, eta alferreko gauzak erosten dituzte. Negargarria da. Baina publizitateak sarritan heriotza ekartzen du. Hori negargarriagoa da.

Afrikan beste hau ere gertatu da. Janari firma batek kanpaina haundia egin du esne hautsaren alde, eta haurren heriotza

asko gehitu da. Baina zer? Osasunaren aldeko Erakunde Internazionalak presupostu handia dauka. Ba, janari firma horren presupostua handiagoa da.

alai: alegre; **alde:** a favor; **alferreko:** inútil; **Bolikosta:** Costa de Marfil; **elikadura:** alimentación; **erakunde:** organismo, institución; **galgarri:** pernicioso; **gora** (goratu, goratze): elevar, ensalzar; **gose izan:** estar hambriento, tener hambre; **mezu:** mensaje; **negargarri:** deplorable, lamentable; **oilasko:** pollo.

167 USTEGABE HARRIGARRIA

Egipton gaude. Haizeak ustegabe harrigarri bat ekarri du. Nortzurentzat? Arkeologoentzat. Hango mendi bat Oweinat deitzen da, eta Egiptoko mendebaldean dago. Haizeak gogor jo du, eta azaleko lurra kendu du. Eta zibilizazio bat bistan gelditu da. Orain 200.000 urtetako zibilizazioa. Aizkorak, lantzak eta animalien grabatuak aurkitu dira. Beraz, aintzina lurralde hori euritsua izan da eta begetazio handikoa.

Baina harrigarria beste gauza bat da. Mendi hortan ikerlari talde bat lanean ari da. Zer bilatzen dute? Beste gauza oso desberdin bat bilatzen dute. Oweinat mendiak Marte planetako mendien antza dauka formazioan. Hori uste da, edo hori da hipotesia. Ikerlari taldea hipotesi horren frogen bila ari da.

Eta bat batean haizea etorri da, eta hipotesi guztia eraman du. Baina beste gauza bat ekarri du: aintzinako zibilizazio bat. Zibilizazio zaharra. Zibilizazio horrek berrehun mila urte dauzka.

aizkora: hacha; **azal:** superficie exterior; **bat batean:** repentidamente; **bila** (bilatu, bilatze): buscar; **froga:** prueba; **ustegabe:** sorpresa.

168 OPIOA

Opioa aintzinakoa da. Orain bost mila urte, Mesopotamian zorionaren sinboloa da. Asia Txikian eta Egipton, lasaigarri

bezala erabiltzen dute minaren kontra. Grekoek ere ezagutzen dute.

Europara XIII. mendean dator. Gaixotasun batzuren, desesperazioaren eta soldaduen nekearen kontra erabiltzen da. XVIII. mendean droga soziala da. Morfina eta heroina opioaren ahizpak dira. Analgesikoak dira. Mina kentzen dute. Gorputza erlaxatzen dute, lasaitzen dute. Indiferentzia eta euforia ematen dute.

Opioak eta beronen deribatuek gauza txar bat daukate. Luzera, menpetasun edo dependentzia gogorra sortzen dute. Gorputzak derrigorrez behar du droga, janaria legez. Horregatik, trafikariek merkatu segurua daukate. Eta hortik datoz prezioen abusuak. Adibidez, heroina Thailandian, Birmanian eta Laosen fabrikatzen da. Han gramo 500 pezetatan saltzen da. European, berriz, gramo hori 18.000 pezetatan erosten da.

derrigorrez: necesariamente, de rigor; **erlaxa** (erlaxatu, erlaxatze): relajar; **gaixotasun:** enfermedad; **lasai** (lasaitu, lasaitze): relajar; **lasaigarri:** relajante, sedante; **legez:** como; **luzera:** a la larga; **neke:** fatiga, cansancio; **trafikari:** traficante; **zorion:** felicidad.

169

TRAFIKO ATOMIKOA

1979.eko irailaren 22an gaude. Estatu Batuetako *Vela* satelite espioiak garraldi bat detektatu du. Ordu bi geroago Estatu Batuetako presidentek abisua hartzen du. Non edo non eztanda nuklear bat gertatu da. Non? Hego Afrikan edo hor nonbait.

Artefaktu nuklearren bat entseiatu dute. Gauzez eta eguraldi lainotsuz egin dute. Satelite espioiak huts egin ote du? Beharbada bai, beharbada ez. Ez dakigu.

Hala ere, trafiko atomikoa egia da. Afrikan ere bai. Hego Afrika, Israel, Taiwan, Hego Korea eta beste nazio batzu soka nuklearrean sartu dira. Horren froga asko daude.

Pariseko *Libération* egunkariaren ustez, Hego Afrika 1949.ean hasi da arma atomikoak egiten. Noren laguntzaz?

Washington eta Londresen laguntzaz. 1976.ean Frantziako konpainia batek kontratu bat firmatzen du, eta Hego Afrikan zentrale atomo-elektriko bat egiten hasten da. Horko errektoreek plutonioa egiten dute. Plutonio horrekin urtean Hiroshimakoa-ren antzeko 25 bonba egin ahal dituzte. Hauxe dago argi: ikaragarria da munduko trafikoa atomikoa.

entseia (entseiatu, entseiatze): ensayar; **espioi**: espía; **eztanda**: explosión; **garraldi**: fagonazo, llamarada; **huts egin**: fallar; **ikaragarri**: terrible, enorme; **laguntza**: ayuda; **lainotsu**: nublado; **nonbait**: en alguna parte; **non edo non**: en alguna parte; **soka**: sogá.

170

EZIN MUSU EMAN

Egipton debeku asko dago. Gauza debekatu bat hauxe da: publikoan musu ematea. Zergatik? Ez dakigu. Musulmana ez ote da musuzalea? Ez, antza. Zergatik orduan? Piramideek ezin diote elkarri musu eman. Piramideak goitik oso zorrotzak dira, eta ezin dute elkar laztandu.

Ez dakigu arrazoaia, baina Egipton musua debekaturik dago kalean. Atzerriko diplomatikoen emazteentzat ere bai. Honelako bat oraintsu detenitu dute. Zergatik? Despedidan, bere senarrari musu eman dio. Egiptiar koronel baten emaztea ere arrestatu du Kairoko poliziak. Zergatik? Portaera inmoralagatik. Orduan koronelak agindu hau ematen die bere menpekoei: «Asalta beldurrik gabe polizitegia, eta libra nire emaztea!».

Poliziak bere arrazoiak jartzen ditu. Baina koronela eta beraren emaztea ez daude konforme, eta inbestigazio bat eskatzen dute. Eskaria ukatu egin diete. Baina eskandalu galanta armatu du.

atzerri: país extranjero; **beldur**: miedo; **debeka** (debekatu, debekatze): prohibir; **debeku**: prohibición; **eskari**: petición; **galant**: hermoso, galante; **goi**: parte alta; **laztan** (laztandu, laztantze): acariciar, abrazar; **menpeko**: súbdito; **musu**: beso; **oraintsu**: recientemente, casi ahora; **portaera**: conducta, comportamiento; **uka** (ukatu, ukatze): negar; **zorrotz**: agudo, afilado.

Negua da. Oihan beltzean bide estu bat. Handik behera berrogei ahuntz datoz. Amiltegi baten ondoan otso haundi bat agertzen da, eta esaten du: «Zuen haragia jan eta zuen odola edan behar dut. Zuetariko bat ere ez da bizirik joango hemendik.»

Ahuntzek negar eta negar egiten dute. «Ez egin negarrik!» esaten die otsoak. «Beste gauza bat egingo dugu. Nik zuek libre utziko zaituztet, eta zuek niri hurrengo ahumeak emango dizkidazue.» Ahuntz gaixoez beldurra daukate, eta baietz esaten dute.

Negua joaten da, eta ahume ederrak hazten dira. Ahuntzek mendira joan behar dute berriro, eta otsoa han. Eguna heltzen da, eta ahuntzak negarrez doaz bidean gora. Azeri bat aurkitzen dute bidean. «Ez egin negarrik!» esaten die azeriak. «Ni izango naiz zuen lagun. Ni ere zuekin joango naiz, eta otsoak ez digu ezer egingo.»

Azeria ahuntzekin eta ahumeekin doa mendira. Han dago otsoa zain. Azeriak hogeita hamar biltzen ditu. Ahuntz bakoitzaren buruan kaiku bat ipintzen du, adarretatik behera eta begi bien artean. Ahuntz bat kaiku barik uzten du, eta hura aurrean jartzen du. Beste ahuntzak atzetik datoz. Otsoagana heldu dira.

—Zu, azeri! Zer ikusten dut ahuntz hoi buru gainean?
—esaten du otsoak.

—Bakoitzak otso buru bat dakar begi bien artean —erantzuten dio azeriak.

—Eta aurreko horrek zergatik ez dakar?

—Basajauna dator han, eta zure burua jarri behar du ahuntz horren buru gainean. Hori esan du berak.

Otsoa harritzen da, beldurtzen da, jauzi egiten du, eta basoan behera bueltaka doa. Erortzen da, lepoa hausten du, eta

han hiltzen da otsoa. Orduan ahuntzak pozik. Eta azeria esne gozoz elikatzen dute heriotza arte.

ahume: cabrito; **ahuntz:** cabra; **amiltegi:** precipicio; **azeri:** zorro, zorra; **basajaun:** señor del bosque, personaje mitológico vasco; **beldur:** miedo; **beldur** (beldurtu, beldurtze): atemorizar; **bizi:** vivo; **elika** (elikatu, elikatze): alimentar; **estu:** estrecho; **gaixo:** infeliz, cuitado; **hauts** (hautsi, hauste): romper; **jauzi egin:** saltar; **kaiku:** cuenco; **lagun:** acompañante; **lepo:** cuello; **oihan:** bosque; **otso** lobo; **zain:** vigilante, esperando.

172

KANIBALISMOA

Munduko zibilizazio askotan ezagutu eta praktikatu da kanibalismoa edo elkar jatea. Kanibalismoan Mexikoko aztekek dira nagusi. Konkista aurreko garaian gaude. Aztekek urtean hogeita mila pertsona sakrifikatzen dituzte. Batez ere haurrak. Peruko inkek, berriz, askoz gutxiago. Eta gero jan egiten dituzte hildakoak.

Zergatik gertatzen ote da kanibalismoa? Gizartearen eboluzioan presio demografikoak asko esan nahi du. Populazioaren gehipena betiko fenomeno izan da, bai historian eta bai prehistorian. Gehitze honek, sarri askotan, ekologia aldatzen du eta naturaren oreka edo ekilibrioa apurtzen du.

Mexikoko indio aztekek asko gehitu dira. Denek jan behar dute. Ehiztariak gero eta gehiago dira. Ehizarako animaliak gutxitu egiten dira. Eskastu egiten dira. Eskasia hori da kanibalismoaren arrazoia. Orduan, kanibalismoari itxura erligioso ematen zaio, eta gizonak elkar jaten hasten dira.

ehiza: caza; **ehiztari:** cazador; **gehipen:** aumento; **gizarte:** sociedad; **gutxi** (gutxitu, gutxitze): disminuir; **itxura:** figura, forma, apariencia.

173 TIMOR IRLAKO GENOZIDIOA

Timor irla bat da. Indonesiako arkipelagoaren azkenean aurkitzen da, ekialderantz. Timortarrek libreak izan nahi dute, eta ez dute gura Indonesiako Errepublikaren parte izan. Horregatik, azken urteotan Indonesiako armadak masakre hutsa egiten ari da irla hortan.

Timor oraintsu arte Portugalen kolonia bat izan da. 1975.ean Indonesiak inbaditzen eta anexionatzen du. Joan eta jan. Inbasioaren ondoren hirutatik bat exekutatuak izan dira, edo gosez hilak. Koloniaren denboran irla hortan 650.000 lagun bizi dira. Bizilagun hoietatik berrehun mila eliminatuak izan dira. Beste ehun mila kontzentrazio zelaietan pilaturik daude. Gainerakoak, beharbada, gosez hilko dira. Lurra erre egin dizkiete, eta kultiboak desegin.

Gurutz Gorriko arduradunen eritziz, Timorko tragedia Biafrakoaren antzekoa da. Momentu hortan zer gertatzen da irla hortan. Ez dakigu. Prentsa agentziek ez dute ezer esaten.

arduradun: encargado; **armada:** ejército; **bizilagun:** habitante; **desegin** (desegite): deshacer; **eritzi:** opinión; **gainerako:** restante, lo demás; **gose:** hambre; **gurutze:** cruz; **huts:** puro, mero; **irla:** isla; **lagun:** individuo; **ondoren:** después; **oraintsu:** casi ahora, ahorita, recientemente; **zelai:** planicie, campo.

174 AURKIKUNDE MIRAGARRIA

Eguzki izpi bat, titanio eta platinoaren hauts partikula txiki bat. Gauza hoiekin amerikar biokimikari batek biziaren oinarria aurkitu du. Eta hori kasualitatez egin du. Beste gauza baten esperimentua egiten hasi da, eta hori aurkitu du.

Bizia misterio handia da. Lurreko bizi guztia hogeai aminoazidoren ganean dago. Zer dira aminoazidoak? Sustantzia edo

gai batzu dira. Azido organiko batzu dira. Hoiiek egiten dute bizia. Hortik dator bizia. Aminoazido hoik, kondizio naturale-tan, orain lau milioi urte inguru sortu dira. Salda baten antzeko zerbait sortu da. Gero salda hortatik proteinak datoz, geroago molekulak eta azkenik zelulak edo bizia.

Orain aminoazido hoik artifizialki sortu ahal izan dira. Horixe egin du Allen Barde biokimikariak. Eta kasualitatez egin du. Hala ere, hortik bizira oraindik bide luzea dago. Baina horixe da oinarria.

aurkikunde: descubrimiento; **bizi:** vida; **izpi:** rayo; **miragarri:** admirable, maravilloso; **oinarri:** base, fundamento; **salda:** caldo.

175 SUGEA ETA ARRAULTZEA

Eguzkia sartu da, eta sugea irteten da. Hego Afrikako desertuetan bizia gauzez hasten da. Suge bat lo egon da eguzki epeletan. Eguzkia joan da, freskatzen hasi da, eta sugea esnatzen da. Janā bilatu behar du. Zer nahi du? Arraultze bat, hegaztien arraultze bat. Suge hau Dasypeltis deitzen da.

Sugea deskribiltzen da, eta ba doa. Mihia ateratzen eta sartzten ari da. Horrela sustantziak eta usainak hartzen ditu. Gero sustantzien analisi kimikoa egiten du. Usnamena, gustamena eta ikusmena: hauekin gidatzen da gure sugea.

Arraultzea topatzen du. Hura bai sugearen poza! Arraultzea oso nutritiboa da sugearentzat. Eta, gainera, arraultzea geldi dago, eta ez daki bere burua defenditzen.

Baina sugeak nola irensten du arraultzea ? Oso osorik irensten du. Ordu erdi tardatzen du, arraultzea urdailean sartzten. Eta azkenez oka egiten du, eta arraultze eskola kanpora botatzen du berriro. Orduan bai ondo! Orduan metabolismoak atsendena behar du. Sugea bere zulora doa berriro. Berriro kiribil-

tzen da, eta loak hartzen du. Suge honen bizimodua horixe da: jan eta lo.

atseden: descanso; **bila** (bilatu, bilatze): buscar; **bizi:** vida; **deskiribil** (deskiribildu, deskiribiltze): desenroscar; **esna** (esnatu, esnatze): despertarse; **gida** (gidatu, gidatze): guiar; **gustamen:** gusto, facultad de gustar; **hegazti:** ave; **ikusmen:** vista, facultad de ver; **irents** (irentsi, irenste): tragar; **kiribil** (kiribildu, kiribiltze): enroscar; **oka egin:** vomitar; **oskol:** cáscara; **poz:** gozo, alegría; **suge:** culebra, serpiente; **topa** (topatu, topatze): encontrar; **urdail:** estómago; **usain:** olor; **usnamen:** olfato, facultad de oler.

176

ITSAS HILA

Entzun duzu inoiz Itsas Hila? Itsas Hila Israel eta Jordania bitartean dago. Laku haundi bat da. Munduko zokogune edo depresiorik haundiena. Luzez 70 kilometro dauzka eta zabalez 12.

Itsaso hontan minerale asko dago: magnesio, sodio, kaltzio, potasio eta abar. Hango ura urdin urdina da. Batzutan zuri zuri jartzen da. Zergatik? Ebpaporazio handian gatz asko gertatzen da kontzentratu, eta orduan ur azala zuri zuri ipintzen da.

Itsaso hontan ez dago arrainik. Arrainak ezin dira bizi gatzaren gatzaz. Horregatik deitzen da itsaso hau Itsas Hila. Ura garratza da, eta goragalea ematen du. Oso astuna da, eta ezin zara hondora joan. Urak berak mantentzen zaitu azalean. Baina ezin da igeri egin. Ur tanta bat sartu ahal zaizu, eta urak erre egiten dizu begia.

arrain: pez; **erre** (erretze): quemar; **garratz:** amargo; **gatz:** sal; **goragale:** náusea; **hondo:** fondo; **manten** (mantendu, mantentze): mantener; **tanta:** gota; **zokogune:** depresión geológica.

Berastegiko apeza ez dago pozik bere herriarekin. Zerbait egitea asmatzen du. Pulpitura igoten da eta esaten du: «Hurrengo igandean etor denok elizara, txiki eta handi. Gauza inportante bat esan behar dizuet. Etor denok!»

Apezak bere arrebarekin plana egiten du. Hurrengo igandean herri guztia biltzen da elizan. Apezak sermoia hasten du.

«Berastegiar maiteak! Azken egunotan mundutik kanpora ibili naiz. Lehenbizi zerura joan naiz. Atea kask-kask jo dut, eta San Pedro etorri zait. “Ba dago hemen berastegiarrik?” galdetzen diot. Eta San Pedrok erantzun: “Alerik ere ez.” Gero purgatoriora joan naiz. Han ere atea kask-kask jo dut, eta galdetzen dut: “Ba dago hemen berastegiarrik?” Eta erantzuten dute: “Gogoratzen zara Berastegiko Martin gizaixoaz? Huraxe bakarrik dago hemen.” Azkenik infernura joan naiz, eta galde egiten dut: “Ba dago hemen berastegiarrik?” Eta “infernu guztia dago berastegiarrez bēterik”, erantzuten dute.»

Berastegiko apezak beste munduko berri eman du, eta haserre gorritan esaten du: «Berastegiarrak! Gaiztoak zarete, eta Jainkoaren pazientzia bukatu duzue. Horregatik zigor izugarria dator zuen gainera.»

Apezak elizako sabaira begiratzen du eta esaten du: «Jauna, bota zerutik sua, eta kiskal su horrekin Berastegiko gaizto guztiak!»

Eta momentu hortan sabaitik iztupa zati bat erortzen da. Iztupak dir-dir egiten du suaren suaz. Jendea izuturik dago. Denek kanpora irten nahi dute, baina ezin.

«Bota gehiago, bota gehiago!» esaten du apezak. «Barka, Jauna! Barka, Jauna! esaten du garrasika elizako jendeak. «Ez barka, Jauna!» oihu egiten du apezak. «Bota sua, bota gehiago!»

«Ez daukat su gehiagorik. Iztupa bukatu da», esaten du sabai gainetik apezaren arrebak.

ale: grano, ejemplar; **berri:** nueva, noticia; **gaizto:** malo, malvado; **garrasi:** grito; **gizaixo:** pobrecito, cuitado; **gogora** (gogoratu, gogoratze): recordar, acordarse; **gorri:** rojo, grande, enorme; **haserre:** enfado, enojo; **iztupa:** estopa; **izu** (izutu, izutze): atemorizar, asustar; **kanpo:** fuera; **kiskal** (kiskaldu, kiskaltze): abrasar; **maite:** querido, amado; **oihu egin:** exclamar; **sabai:** techo; **zigor:** castigo.



178

PETROLIOA

Petrolio aurrkitzea eta ateratzea egitada handia da. Baina handiagoa birfintzea edo iragaztea. Putzutik petrolio gordina ateratzen da. Petrolio gordinak ez du ezertarako balio. Petrolio garbitzea eta gai deribatuak ateratzea, hori da petrolioaren sekretua. Tratamendu honek bi etapa dauzka: birfintzea eta petrokimika.

Lehen etapan petrolio gordina labe handi batetara doa. Hemen 420 gradutako beroa hartzen du. Orduan petrolio baporatzen da, eta bapore forman destilazio dorrera doa. Dorre hau altuak izaten dira. Zertarako? Bapore arinak gora doaz, bapore astunak behean gelditzen dira, eta astuntxoak erdian. Honela goian nafta, kerosenoa eta abar geratzen dira, eta behean asfaltua, galipota eta beste gai astunak.

Prozedimendu hau bigarren etapan gehiago konplikatzen da. Petrokimika da hori. Hemen tratamendu kimikoa egiten da. Hementxe jaiotzen dira deribaturik onenak: gasolinak.

balio izan: valer; **birfin** (birfindu, birfintze): refinar; **dorre:** torre; **egitada:** hazaña; **gordin:** crudo; **iragaz** (iragazi, iragazte): filtrar, colar; **labe:** horno; **putzu:** pozo.

179

DEABRUAREN DOHAINA

Ipar Amerikako Estatu Batuetan gaude, 1829. urtean. Ken-

tucky Estatuan gizon batek putzu bat perforatzen du, eta putzutik petrolioak irteten da. Halabeharrez, petrolioak su hartzen du. Gizonak izututa ihes egiten du, eta herrian garrasika hasten da: «Infernua aurkitu dut. Erruki, Jauna!»

Zer da petrolioak, infernua ala zerua? Petrolio gabe gaurko mundua amaitu da. Petrolioz egiten dira plastikoak, ongarriak, lurrinak, garbigarriak, pinturak, lehergaiak, eta batez ere energia.

Petrolioak aintzinatik ezagutzen da. Denbora hartako gizonak Babelgo dorrea egiten dute, eta hortarako betuna erabiltzen dute. Noe patriarkak untzi haundi bat egiten du, eta hortarako berak ere betuna erabiltzen du. Egiptoko faraoiek ere petrolioak ezagutzen dute. Lurra perforatzen dute, petrolioak ateratzen dute, kainaberazko hodiak eramaten dute, eta argiak egiten dute. Hori egiten dute Egiptoko faraoiek.

Baina petrolioak, energi iturri bezala, gure mendean aurkitzen da. Hogeigarren mendea petrolioaren mendea da.

deabru: diablo; **dohain:** don; **dorre:** torre; **erruki:** misericordia, compasión; **garbigarri:** detergente; **garrasi:** grito; **halabehar:** casualidad, fatalidad; **hodi:** tubo; **izu** (izutu, izutze): asustar, atemorizar; **kainabera:** caña; **lehergai:** explosivo; **lurrin:** perfume; **ongarri:** abono; **putzu:** pozo.

180 BIZKARREZURRA ETA OSASUNA

Bizkarrezurra habe bat da, habe bertebratua. Bertebra asko dauzka. Bizkarrezurra osasunaren teklata bezala da. Ondo jotzen duzu teklata hori, eta gaitz asko ebitatzen dira. Metodo horek aplikazio asko dauzka. Adibidez, jotzen duzu umea bizkarrean, eta eztula kentzen zaio edo lo geratzen da.

Organismo guztia bizkarrezurrean errepresentaturik dago. Bizkarrezurreko puntu bakoitzak gorputzeko organo bat harraipatzen du. Puntua jotzen da, eta erreflexu bat probokatzen da. Erreflexu hori, nerbioen bidez, organoetara doa: bihotzera, ur-

dailera, gibelera eta besteetara. Eta organoak ekilibratzen dira edo hobeto jartzen dira.

Teknika hau ez da atzokoa. Txinoek eta japoniarrek aintzina aintzinatik ezagutzen dute. Haientzat teknika hau funtsezkoa da osasunerako. Horregatik haientzat bizkarrezurra «biziaren zuhaitza» da.

atzo: ayer; **bizi:** vida; **bizkarrezur:** columna vertebral; **fun-tsezko:** esencial, fundamental; **gibel:** hígado; **habe:** columna, poste; **urdail:** estómago; **zuhaitz:** árbol.

181

AFRIKAKO SIMAUR KAKARRALDOAK

Simaur kakarraldoak Afrikako ekologiaren giltza dira. Hainbeste? Bai, jauna!

Kakarraldoak izen itsusia dauka, baina lan handia egiten du. Begira! Afrikako larre eta sabanetan animali talde handiak dabilta. Hauek gorotz edo kaka asko egiten dute. Baina lurrean ez da simaur asko ikusten. Nora joan da? Kakarraldoek berehalaxe lurperatzen dute. Kakarraldoa kakatik bizi da.

Kakarraldoak bi lan handi egiten ditu ekologian. Lehenbizi, simaurra kentzen edo garbitzen du. Bestela, simaurra lur azalean pilatzen da, eta landareak eta belarrak itotzen ditu. Landare eta belar gutxirekin, animaliak ere gutxitzen dira. Hitz batez, ekologia hankaz gora doa.

Bigarren lan handia: kakarraldoak simaurra lurpean sartzen du. Horrela, lurra zulatu, aireztatu eta gainera simaurtu edo abonatu egiten da. Zer nahi duzu gehiago? Kakarraldo barik Afrika tropikala galduta dago.

begira: mira!; **giltza:** clave, llave; **gorotz:** excremento animal; **gutxi** (gutxitu, gutxitze): disminuir; **ito** (itotze): ahogar, sofocar; **kakarraldo:** escarabajo; **larre:** pastizal, dehesa; **lurpe:** bajo tierra; **lurpera** (lurperatu, lurperatze): enterrar; **pila** (pilatu, pilatze): apilar, amontonar; **simaur:** estiércol; **zula** (zulatu, zulatze): agujerear, perforar.

182 ZARATA ETA ANTZUTASUNA

Bulgariar zintzigizonek esperimentu bat egin dute. Eta zer atera dute? Hauxe: zaratak antzutasuna ekartzen du. Animaliak zarata artean antzu bihurtzen dira. Edo gutxienez birsorkuntzan edo erreprodukzioan oker handiak datoz.

Urte betean laurehun animalia zaratapean edukitzen dituzte. Ehun dezibeliotako zaratapean. Gero beren lehengo familian edo taldean sartzen dituzte. Zer gertatzen da?

Antzutasuna ehuneko laurogeian (80%an) gehitzen da, batez ere animalia emeetan. Animalia batzu luzaroago egoten dira zaratapean. Hoiien artean antzutasuna gehiago agertzen da. Denbora luzeago, antzutasun gehiago.

Bestalde, esperimentuko animalia hauen umeez pisu gutxiago daukate jaiotzan. Eta hil ere lehenago egiten dira. Mortalitate gehiago daukate.

Animalientzat, beraz, zarata oso txarra da. Gizonentzat ere bai, dudarik gabe.

antzu: estéril; **antzutasun:** esterilidad; **bestalde:** por otra parte; **bihur** (bihurtu, bihurtze): volver, convertir; **birsorkuntza:** reproducción; **eme:** hembra; **gutxi:** lo menos; **jaiotza:** nacimiento; **oker:** mal, trastorno; **pisu:** peso; **zaratape:** bajo ruido.

183 ENERGIA AUTOEN GURPILETAN

Ingeniari aleman batek Kolonen arraultzea aurkitu du. Zer aurkitu du? Energi problema guztien soluzioa. Nola? Non? Autoen gurpiletan. Soluzio sinplea eta geniala. Egia izango ote da?

Begira! Autoa kaminoan zehar doa. Tarteka, han hemen, zilindroak jartzen dira bide-zoruan. Autoak pasatzen dira, eta zilindro hoik ari dira etengabe. Zilindroei bielak jartzen zaizkie, eta bielei beste gurpil batzu. Horrela mugimendua propagatzen da, eta generadore bat egiten da. Bilbo-Behobia autobidean zenbat energia? Zenbat auto European zehar? Eta nolako abiadura? Zenbat energia dago hor? Ezin dugu kalkulatu ere.

Zilindro hoién eta beste gauza guztien instalapena oso garestia izango da. Hori bai. Azpiestruttura handia. Baina zer? Zentrale nuklear baten instalapena garestiagoa da. Gauza merkerik ez dago. Egingo ote da hori?

abiadura: velocidad; **begira:** mira!; **etengabe:** ininterrumpidamente; **gurpil:** rueda; **instalapen:** instalación; **tarte:** intervalo; **zoru:** suelo, pavimento.

184 AZKORDINAK ETA OZPELAK

Azkordinak eta ozpelak hotzak ekartzen ditu. Hobeto esan, hotz-beroen alternantziak edo hotzetik berora pasatzeak ekartzen ditu. Gehienetan hatzetan, behatzetan eta belarrietan egiten dira. Gorputzaren parte hauk hotz egoten dira. Beraz, odolaren zirkulazioa eskasa izaten da. Gero supituan dator berotasuna, eta orduan egiten dira azkordinak.

Nola prebenituko ditugu azkordinak? Hortarako, oso onak dira gimnasia, kirola eta gorputz ariketak. Zergatik? Odolaren zirkulazioa errezten dute, gorputza tonifikatzen dute. Horrela ez dira agertzen azkordinak. Edo gutxiago behintzat. Eguzki bainuak ere oso onak dira. Odolaren zirkulazioa beti zaindu behar da, neguan batez ere. Hortarako, kanpora zapata estuak, galtzerdi estuak, eskularru justuak!

Azkordinak irten zaizkizu? Erremedio on bat hauxe da: ur hotza eta ur beroa alternatzea. Baina hotz-beroen alternantzia ez da txarra, ba? Bai, txarra da. Baina ez da berdín hotz-bero lehorra eta hotz—bero bustia. Hotz-bero bustia ona da. Batzuk intxaur hostoak egosten dituzte ur bero hortan. Litro bat uretan sei goilarekada hosto. Ur hori askoz hobea da hazkordin eta ozpelentzat.

ariketa: ejercicio; **azkordin:** sabañón de las manos; **behatz:** dedo del pie; **busti:** mojado; **egos** (egosi, egoste): cocer; **errez** (erreztu, errezte): facilitar; **eskularru:** guante; **estu:** prieto; **galtzerdi:** calcetín; **goilarekada:** cucharada; **hatz:** dedo de la mano; **hosto:** hoja; **intxaur:** nuez; **kirola:** deporte; **lehor:** seco; **ozpel:** sabañón de los pies; **supituan:** súbitamente, de improviso; **zain** (zaindu, zaintze): cuidar, vigilar.

Bi gizon herritik urrun egon dira luzaro, bata Amerikan eta bestea Australian. Biak batera heltzen dira herrira. Tabernan daude.

—Zer ikusi duzu munduan, Manu? —galdetzen diote tabernakoek zaharrenari.

—Gauza asko ikusi ditut. Zazpi besodun gizon bat ikusi dut eta aurpegi-bakarra.

—Besterik, Manu?

—Bai horixe! Kanpandorre ginean oilo bat ikusi dut. Hura bai oiloa! Herri guztia hegapean dauka. Eta gu bero bero, txitak bezala.

—Besterik, Manu?

—Ezin dizuet dena esan. Aste bete behar dut hortarako. Baina haundiena hau da. Itsasoa garretan ikusi dut. Horregatik ez naiz lehenago itzuli herrira.

Entzule batzu haserretzen dira, eta esaten dute: «Dena da gezurra. Hau gezurti hutsa da, eta preso sartu behar da.» Beste batzu esaten dute: «Beharbada ez da dena gezurra. Bigarrenari entzun behar diogu.»

—Zer ikusi duzu munduan, Markos? —galdetzen diote bigarrenari.

—Nik ere haundiak ikusi ditut. Alkondara haundi bat ikusi dut. Zazpi maukaduna eta idun-bakarra.

—Norentzat da alkondara hori?

—Lehengo zazpi besodun gizonarentzat.

—Besterik, Markos?

—Hamabi gizatar ikusi ditut. Bakoitzak balanka bat dauka, eta arraultze bat ezin dute mugitu denen artean.

—Norena da arraultze hori?

—Kanpandorre gaineko oiloarena.

—Besterik, Markos?

—Gauza haundiak ikusi ditut. Baina haundiena hau da. Itsas bazterreko arrantzale batzu ikusi ditut. Arrain harrapatuak jaten ari dira. Arrain haiek ez dute surik behar. Itsasotik erreta datoz.

Tabernan herritarrek esaten dute: «Bigarrena ere gezurtia ote da? Ez, ez! Hauxek dira egia biribilak!»

arrantzale: pescador; **balanka:** palanca; **bazter:** orilla; **beso:** brazo; **biribil:** redondo, rotundo; **entzule:** oyente; **gar:** llama; **gezurti:** mentiroso; **gizatzar:** hombrachón; **haserre** (haserretu, haserretze): enfadarse; **hegabe:** espacio bajo las alas; **huts:** puro, mero; **idun:** cuello; **ikaragarri:** terrible, enorme; **itzul** (itzuli, itzultze): volver; **kanpandorre:** torre de campanas, campanario; **mauka:** manga; **mugi** (mugitu, mugitze): mover; **oil:** gallina; **txita:** pollito; **urrun:** lejos; **zazpi besodun:** de siete brazos.

186

HIRU ESTUDIANTEAK

Bilbon hiru estudiante bildu dira. Ez daukate dirurik. Dena gastatu dute.

«Zer egingo dugu?» esaten du batek. «Ba dakit. Zuk ekar ardoa. Zuk haragia. Eta nik ogia ekarriko dut.»

Bakoitza bere bidetik doa. Lehen estudianteak zahagi zahar bat lortzen du. Zahagia urez betetzen du, eta tabernara doa.

«Ni Don Klementzianoren morroia naiz», esaten dio tabernariari. «Ardo hau txarra da, eta nire ugazabak aldatzea gura du.»

Don Klementziano aberatsa da. Tabernariak esaten du: «Eraman beste zahagi hori, eta goraintziak Don Klementzianori.»

Bigarren estudiantea azokara doa. Haragia lortu behar du. Ahari bat ikusten du. Hurbiltzen da, eta tratua egiten du.

«Etor nirekin elizara», esaten dio saltzaileari. Biak doaz, eta elizara heltzen dira. «Nire ugazaba han dago, eta laster hartuko duzu dirua. Egon hemen.»

Gizona korupean gelditzen da, eta estudiantea aitortegira doa. «Jauna!» esaten dio apezari. «Gizon bat dago hor, eta aitortu nahi du. Dirua aipatuko dizu sarritan, baina zu egon lasai. Apur bat burutik dago.»

Gizona ere aitortegira doa, eta apezaren aurrean gelditzen da.

—Jar belauniko! —esaten dio apezak.

—Belauniko? Ni diru bila nator, jauna. Ahariaren dirua.

—Zer ahari? Esan «ni bekatari», eta dirua gero.

—Nik dirua behar dut. Elizan ere lapurrak?

Apeza orduan haserretzen da, eta gizona makilaka ateratzen du elizatik. Bien bitartean, estudianteak ihes egiten du ahariarekin.

Hirugarren estudianteak hiru ogi hartzen ditu. Ogi saltzaileari esaten dio: «Etor nirekin ugazabaren etxera. Medikuaen morroia naiz ni.»

Medikuaren etxera doaz. Estudiantea gora igoten da, eta medikuari esaten dio: «Hor atarian gizon bat dago, eta labatiba bat hartu nahi du.»

Ba doa estudiantea, eta ogi saltzailea igoten da. «Erantz, mesedez, prakak», esaten dio medikuak. «Prakak erantz? Ez horixe! Nik dirua behar dut», erantzuten dio ogi saltzaileak.

Medikuak eta beraren semeak ostikoka botatzen dute gizona kanpora. Eta hiru estudianteek bazkari ederra egiten dute zubi baten azpian.

ahari: carnero; **aipa** (aipatu, aipatze): mencionar; **aitor** (aitortu, aitortze): confesar; **aitortegi:** confesonario; **atari:** portal; **azoka:** plaza, mercado; **bekatari:** pecador; **belauniko:** de rodillas; **burutik egon:** estar chiflado; **goraintziak:** saludos, recuerdos; **haserre** (haserretu, haserretze): enfadarse; **korupe:** bajo el coro; **lasai:** tranquilo; **morroi:** criado; **ostiko:** patada; **zahagi:** odre, pellejo de vino.

187 ANTROPOLOGO LIBERTARIA

Pierre Clastres antropologo libertaria da. Aspaldian hil da. Berak ez du marxisten modura ulertzen basatien bizitza.

Marxisten eritziz, herri primitiboak oso pobreak dira. Beren existentzia gehiena jatekoaren bila egiten dute. Gizona orain milioi bat urte hasi da munduan bizitzen. Gutxienez 980.000 urtetan miseria osoan bizi izan da.

Clastres jaunak, ordea, beste gauza bat esaten du. Herri primitiboak ugaritasunean bizi dira. Beren premiak lanordu gutxiz betetzen dituzte. Basati gutxik lan egiten dute egunean lau ordutatik gora. Hortik kanpora ez dute ezer produzitzen. Gainera, ez dute ezer pilatzen. Ahal dute, baina ez dute gura. Ondo bizi dira.

Zer egiten dute basatiek eguneko beste orduetan? Kantatu, dantzatu, teologia egin edo jolastu. Hau da Clastres jaunaren teoria. Beraz, basati guztiak gizarte maila berekoak dira. Haien artean ez dago egitura bertikalik, ez dago piramide burokratikorik. Zergatik hori? Ugaritasunean bizi dira. Horixe da arrazoia.

basati: salvaje; **bereko:** igual, mismo; **egitura:** estructura; **eritzi:** opinión; **gizarte:** sociedad; **gutxien:** lo menos; **jolas** (jolas-tu, jolaste): jugar, divertirse; **lanordu:** hora de trabajo; **libertari:** libertario; **pila** (pilatu, pilatze): apilar, amontonar; **premia:** necesidad, apremio; **ugaritasun:** abundancia.

188 ESTATUA ETA HERRI PRIMITIBOAK

Ezagutzen dugu Pierre Clastres antropologoaren teoria. Orain hau galdetzen dugu: nola sortu da Estatua?

Marxistentzat, ekonomiatik dator gizonen arteko banakuntza. Aberastasunak esplotazioa sortzen du. Hortarako, aginpi-dea behar da, eta horrela dator Estatua. Gehiago edukitzeak gehiago agintzea ekartzen du.

Clastres antropologoarentzat, ostera, banakuntza hori ez dator ekonomiatik. Politikatik dator. Ekonomiak ez du sortzen Estatua. Politikak sortzen du. Politikak agintariak jartzen ditu alde batean eta bestean menpekoak.

Clastres jaunaren teorian, herri primitiboek ez dute buruzagirik onartzen. Buruzagiekin lan gehiago egin behar dute. Horrexegatik ez dute liderrik nahi.

Baina ez pentsa! Teoria hontan, basatien bizitza ez da idea la. Haien bizitzak hutsune bat dauka: beste tribuekin beti gerran bizi dira. Estaturik ez dago, eta orduan tradizioari loturik bizi dira. Lotura estua. Ez dago aurrerapenik. Asaben ohiturei loturik bizi dira. Ohitura hoik nekez aldatzen dira. Buruzagiek esplotazioa eta burokrazia ekartzen dute. Baina bai aurreapena ere. Bai historiaren dinamismoa ere.

aberastasun: riqueza; **aginpide:** mando, autoridad; **agintari:** jefe; **asaba:** antepasado; **aurrerapen:** adelanto, progreso; **banakuntza:** división; **buruzagi:** jefe, líder; **hutsune:** espacio vacío, defecto, fallo; **lot** (lotu, lotze): atar; **menpeko:** súbdito; **neke:** fatiga, dificultad. **ohitura:** costumbre; **onar** (onartu, onartze): aceptar, admitir.

189

ZER DA MAFIA?

Mafia hor dago, eta Siziliako folkloreak zatia da ia. Mafia elkarte sekretu bat da. Aintzina, jauntxo feudalen kontra defenditzen du jendea, eta zergak ebitatzen ditu. Elkarte honen bizkarrezurra eta funtzionamendua hau da: ixilik egon, ez ikus, ez entzun, ez esan.

1860.ean Italiak Siziliako irla hartzen du. Urte hortan indar handiaz agertzen da mafia irla osoan. Siziliarrak haserre dira. Zergatik? Iparraldeko politikariek Siziliako problemen arduririk ez daukate. Haseran mafia elkarte justiziarria da, baina ilegala. Gero politikari kontserbadore batzuk jauntxo lokalekin bat egiten dute. Horrela hasten da tradizioa, eta gaur arte irauten du.

Mafiaren urre aroa mende honen haseran izan da. Elkarte honek orduan ixileko flota bat ere ba dauka. Flota horrekin ganadu ohostua Tunisiara eramaten dute. Gero elkarteko batzu Estatu Batuetara doaz. Munduko bigarren gerrate haundiaren ondoren, mafiak Siziliaren separatismoa bultzatzen du.

ardura: cuidado, interés, preocupación; **aro:** era, época, edad; **bizkarrezur:** columna vertebral; **bultza** (bultzatu, bultzatze): impulsar; **elkarte:** asociación; **gerrate:** temporada de gerra; **hasera:** comienzo; **haserre izan:** estar enojado; **iraun** (iraute): durar; **ixileko:** clandestino; **justiziari:** justiciero; **zerga:** impuesto, contribución.

190

ERREBOLTATIK JAZZ MUSIKARA

Orain zenbait urte, Estatu Batuetan matxinada edo errebolta asko gertatu dira. Errebolta armatuak ere bai.

Beltzen getoak irakiten ari dira. Beltzen sentimendu abertzalea aldatzen da. Aberria ez da Amerika. Afrika da. Munduko bigarren gerratean beltzen deskontentua azaltzen ari da. Gerrara doaz, eta armadan sartzen dira. Eslogana hau da: Askatasunaren alde eta arrazismoaren aurka. Baina beltz gutxi heltzen dira ofizial mailara.

Beltzen lehen errebelio masiboa 1955.ean jazotzen da. Alabamako Montgomery hirian, emakume beltz bat autobusean doa. Beltzek zutik joan behar dute. Hala da araua. Emakumea jezarrita doa. Eserita doa. Emakumeak zutik joan behar du. Horixe agindu dio konduktoreak. Baina harek ezetz erantzun dio. Eta nahastea sortzen da.

Handik laster, beltzen boikot osoa edo erdi osoa hasten da autobus konpainiaren aurka. Konpainiak porrot egiten du.

Errebolta hauek bizitasun eta sentimendu handia ekartzen dute. Minoria beltzaren kultura ukitzen dute. Musika ere hor

dago. Eta, horrela, beltzen jazz musika guztiz markaturik jaitzen da.

aberri: patria; **abertzale:** patriota; **arau:** regla; **armada:** ejército; **askatasun:** libertad; **aurka:** contra; **azal** (azaldu, azaltze): salir a la superficie, manifestarse.; **bizitasun:** vitalidad, vivacidad; **eser** (eseri, esertze): sentarse; **gerrate:** temporada de guerra; **matxinada:** motín, revuelta; **nahaste:** confusión, revoltijo, jaleo; **porrot egin:** hacer quiebra; **uki** (ukitu, ukitze): tocar, afectar; **zenbait:** alguno; **zutik:** de pie.

191 ZOTZEN FILOSOFIA

Zer da bizitza? Erantzun asko datoz batera. Bizitza nahaste hutsa da, ilusio bat, zorionaren bilaketa, kalamitatea, gauza ederra, eta horrelako beste gauza asko. Baina bizitza gauza bat bakarra da. Orduan, zertarako hainbeste definizio? Entzun orain Txinako Yang apezaren eritzia.

Yang apeza edo aita Yang Bartzelonan bizi da. Jatetxe txino batetan lan egiten du. Han irakasten du zotzen filosofia.

Zer da hori? Begira! Zotzekin jana zaporatzen da. Irenstea ez da jatea. Bizitza ere zaporatu behar da. Gainera, aiztoa eta sardeska agresiboak dira. Hor daukazu dortuka. Zergatik bizi da urte asko? Astiro dabil eta oso astiro hartzen du arnasa.

Denok gura dugu luzaro bizi. Zer behar da hortarako? Aire. Aire da janaririk onena. Eta merkea. Bizitza arnasa hartzea da. Haurrak gorputz osoarekin hartzen du arnasa. Zuk nola hartzen duzu? Hori ez da arnasa hartzea. Hori ez da bizitzea.

aizto: cuchillo; **astiro:** despacio, lentamente; **bilaketa:** búsqueda **dortuka:** tortuga; **erantzun:** respuesta; **eritzi:** opinión; **huts:** puro, mero; **irents** (irentsi, irenste): tragar; **jatetxe:** restaurante; **nahaste:** revoltijo, mezcla; **zapura** (zaporatu, zaporatze): saborear; **zotz:** palillo.

192 HERIOTZA ETA EMAZTEA

Peru eta Maria ondo bizi dira. Baina Peruk susmo bat dauka. Emazteak ez du maite. Hori argi jakin nahi du Peruk. Eta, hortarako, bere burua hiltzat ematea pentsatzen du.

Peruk morroiari esaten dio: «Mutil, bihar basora joango gara. Zorro haundi bat eramango dugu. Ni bueltan zorroan etorriko naiz, hilda bezala. Zuk nire emazteari hauxe eta hauxe esan.»

Morroiak baietz esaten du, eta biharamunean biak doaz basora. Eguerdian han dator morroia etxera. Ugazaba gurdian dator, zorro barruan.

«Zer da hori, mutil?» esaten du Mariak.

«Ai andrea! erantzuten dio morroiak. «Ugazaba gaztainondo baten adarretik jausi da, eta bizkarrezurra hautsi du. Zure senarra hilda dago, andrea.»

«Utz orduan hor, beheko ikuiluko egurtegian», esaten du Mariak. Gero sukaldera doa, eta patatak zuritzen segitzen du.

Beztizailleak etortzen dira. Beztitu behar dute gorpua. Morroiak ugazabaren alkondara bat ekartzen du. Maria sartzen da, eta esaten du: «Zer? Alkondara berriaz beztitu nahi duzue defuntua? Hurrengo senarrarentzat ere ona izango da hori. Ken hori, eta ekar beste alkondara bat!»

Morroiak beste alkondara zaharrago bat ekartzen du. Ugazabandreak esaten du: «Ken hori ere. Ona izango da hurrengo senarrarentzat.»

Orduan emakume batek esaten du: «Hor dago hari mataza bat. Bilduko dugu horrekin gorpua? Baietz esaten du Mariak, eta beztizailleek hariz biltzen dute gorpua. Defuntuaren ahai-deak eta lagunak etortzen dira. Orduan ugazabandrea jendearen aurrean negarrez hasten da. «Ai nire Peru maitea! Zeren antza daukazu?» esaten du harek negar-zeinuka. «Butroi bate-na, Maria laztana!» erantzuten dio senarrak.

Peru orduan atautetik jaikitzen da, eta emaztea jotzen has-

ten da. «Hau zureztat, hau hurrengo senarrarentzat, hau zureztat, hau hurrengo senarrarentzat.»

Gero bere soinekoak janzten ditu, eta esaten du: «Biziak ezagutu nahi dituzu? Hortarako, heriotza da biderik onena.»

ahaide: pariente; **ataute:** ataúd; **auzo:** vecino; **bezi** (beztitu, beztitze): amortajar; **beztitzaile:** amortajador; **biharamun:** día siguiente; **bil** (bildu, biltze): envolver; **bizi** vivo; **bizkarrezur:** columna vertebral; **butroi:** butrino, cierto aparejo de pesca; **egurtegi:** depósito de leña, leñera; **gaztainondo:** castaño; **gorpu:** cadáver; **gurdi:** carro; **hari:** hilo; **hauts** (hautsi, hauste): romper; **ikuilu:** cuadra, establo; **jaus** (jausi, jauste): caer; **laztan:** querido, amado; **maite izan:** amar; **mataza:** madeja; **morroi:** criado; **negar-zeinu:** gimoteo, llanto fingido; **soineko:** vestido; **susmo:** sospecha; **zorro:** saco; **zuri** (zuritu, zuritze): blanquear, pelar.

193 PATATAREN ONTASUNAK

Patata Amerikatik etorri da Europara. Konkista garaian espainol soldaduek ekartzen dute. Patata berez hazten da Lima inguruan. Indioek patata asko ereiten dute. Soldadu hoiek ekartzen dute Espainiara. Itsasuntziak Galiziara etortzen dira, eta lehenengo patatak lurralde hortan ereiten dira.

Urte asko pasatzen dira, eta patata geldi geldika zabaltzen hasten da. Lehenbizi fama txarra dauka. Legena ematen omen du. Gero Meyer farmazilari alemanak patataren ontasuna frogatzen du. Orduan asko zabaltzen da. Europa guztian ereiten dute. Pobreen ogia deitzen dute.

Gaur, munduko produkzioaren ehuneko laurogeitamarra (90%a) Europan hartzen da. Patata Hego Amerikakoa da, eta han oso gutxi hartzen da orain. Europako superpopulazioa patatak ekarri du zati haundi batez.

Eta nolakoa da patata? Patata janari oso ona da. Patatak propietate on asko dauzka. Erreuma, diabetea eta artritia sendatzen ditu. Bihotzerrea eta urdaileko eta duodenoko ultzerak patata zumoz tratatzen dira. Jende lodiak ez du patata askorik

jan behar. Gainera, patatak gehienetan frijitu egiten dira, gisatu edo saltsan ipini. Horrek loditzen du gehien. Bestela, patata hutsa edo erdi hutsa oso ona da.

berez: de por sí, espontáneamente; **bihotzerre:** ardor de estómago; **erein** (ereite): sembrar; **friji** (frijitu, frijitze): freír; **froga** (frogatu, frogatze): probar, demostrar; **huts:** puro, mero; **legen:** lepra; **lodi** (loditu, loditze): engordar; **lurralde:** región, país; **ontasun:** bondad; **urdail:** estómago.

194 MUSIKA LUZETIK LABURRERA

Orain hamar bat urte, Robert Fripp da kantuan nagusi. Garai hortan bere famaren gailurrean dago.

Kantari honen ustez, sistema desintegratzen ari da. Hori denok ikusten dugu. Hortarako ez da listoa izan behar. Zer ari da desintegratzen? Musika luzea. Muntaketa handiak, erdi sinfonikoak, amaitu dira. Talde handiak eta konplexuak desfasaturik daude. Hori uste du kantari famatu honek.

Eta bide berria zein izango da? Unitate txikiak, libreak, independenteak eta bizkorrak. Horrela kantuak ere laburragoak dira. Taldeak ere txikiak dira. Horregatik bariazio gehiago daukate. Eta taldeak azkar jaiotzen dira eta azkar hiltzen.

Bizitza ere horixe da, Frippen ustez. Eta musikak ere horixe izan behar du. Mugimendu hau hamar bat urte barru helduko ei da bere gailurrera.

Horrela izango ote da? Euskal Herrian nola izango ote da?

azkar: rápido, pronto; **gailur:** cúspide; **hamar bat:** unos diez; **muntaketa:** montaje.

195 MUNDUKO BOLTSAK DANTZAN

Askok jokatzen dute dirua boltsan. Baina joko hori behe-rantz doa. Balio Boltsen Federakunde Internazionalak batzarre bat egin du igaz Luxemburgon. Hogeita zazpi finantza merka-

tuk parte hartu dute. Zer atera dute? Itxaropen gutxi. Frantzian ez, baina beste nazio guztietan akzionista pribatuak gutxitzen ari dira.

Zer egiten dute orain akzionista pribatuek? Beren dirua beste gauza batzutan sartzen dute. Gauza hoik fidagarriagoak dira haientzat. Adibidez, etxeak, metale preziatuak, arte lanak, eta abar. Akzionista pribatuek ez daukate konfiantzarik errenta aldakorren tituluetan. Konfiantza hori guztiz galdu da, edo gal-tzen ari da. Akzionista pribatu askok ez dute plusbaliorik bilatzen, ez dute boltsan espekulatzten. Dirua inflaziotik zain-tzen dute bakarrik. Baina, hortarako ere, boltsak ez du kon-fiantzarik ematen.

Zergatik? Inflazioa da errudun nagusia. Inflazioak dirua ja-ten du. Akzioek ez dute arriskurik ordaintzen. Eta, askotan, diruaren balioa ere ez dute mantentzen. Munduko boltsak behe-rantz doaz. Konklusio hori atera dute Luxemburgon.

aldakor: variable; **arrisku:** riesgo; **batzarre:** reunión; **erru-dun:** culpable; **federakunde:** federación; **fidagarri:** fiable, dig-no de confianza; **gutxi** (gutxitu, gutxitze): disminuir; **igaz:** el año pasado; **itxaropen:** esperanza; **manten** (mantendu, man-tenetze): mantener; **merkatu:** mercado; **ordain** (ordaindu, ord-aintze): pagar, compensar.

196 ERREUMA MADARIKATUA

Munduko eritasunik garestiena erreuma da. Eritasun kar-dio-baskularrak, minbizia eta abar garestiak dira. Baina erreu-ma garestiagoa da. Erreuma gaixotasunik ugariena da. Eta txarra. Erreumaren erremedio asko agertu dira. 1876.ean aspiri-na miragarria agertzen da. Berrogei ta hamar urte geroago piramidon izeneko pilula. 1941.ean kortikoideak agertzen dira. Baina erreuma aurrera doa.

Erreuma ezin da osatu, ezin da sendatu. Baina bai gutxitu eta prebenitu. Nola? Elikadura egokiaren bidez. Bircher Ben-ner doktorearen dietak erresultatu onak eman ditu. Noizik be-

hin, bi edo hiru astetan egin behar da dieta hori: azukre industrialik ez, koipe eta proteina gutxi, eta fruita eta berdura gordin asko.

Wentd doktore alemanaren dieta ere oso ona da: hiru edo lau astetan animalari proteinarik ez, ez hagari ez arrain, ez arraultze, ez esnerik. Barau terapeutikoa ere oso ona da. Liki-doa bakarrik hartzen da: berdura saldak eta barazki zumoak. Eta horrela bi edo hiru aste. Gogorra da zure erreuma, eta ez zaizu oraindio sendatu? Orduan, hilabete batzuren buruan egin berriro dieta berbera.

barau: ayuno; **barazki:** hortaliza; **berbera:** mismísimo; **buru:** cabo, término; **elikadura:** alimentación; **gaixotasun:** enfermedad; **garesti:** caro; **gordin:** crudo; **koipe:** grasa; **madarikatu:** maldito; **minbizi:** cáncer; **miragarri:** admirable, maravilloso; **noizik behin:** de vez en cuando; **pilula:** píldora; **salda:** caldo; **ugari:** abundante.

197 KROMLECHAK EDO HILEN ESKORTAK

Kromlecha hilobi bat da, harrizkoa eta biribila. Baina haundia. Harri asko dauzka. Artzainen eskorta baten antzekoa da.

Kromlech asko daude Euskal Herrian. Baina ez Euskal Herri guztian. Pirinioetatik Oiartzun aldera. Gero Gipuzkoa guztian ez dago bat ere. Bizkaian ere ia bat ere ez. Bat edo bi daude Araba aldean. Zaramillon. Oiartzun aldetik Zuberoaraino, ordea, laurehun bat kromlech ezagutzen dira. Zergatik da hori? Ez da argitu oraindio. Lehenago ere, antza, euskaldunak ez dira beti bat izan.

Gehienetan, kromlechak goialdean daude, mendi aldean. Goialdean egitea artzainen ohitura da. Ikusi duzu inoiz kromlechik? Harlauzak dira, bertikalki sartuak. Zirkulu bat egiten dute. Lau metrotatik hamar metrotako diametroa daukate. Beraz, nahiko handiak.

Harrizko zirkulu hauk egitea artzainen ohitura da. Ikusi duzu inoiz artzainen eskortarik? Eskortan ardiak sartzen dira. Eskorta ere harrizko ormaz egiten da. Beti ez, baina batzutan biribila da. Kromlechak eskorta baten antza dauka. Noizkoak dira kromlechak? Jesukristoren aurretik bostehun urte inguru-koak. Eta zertarako dira?

Lehen esan dugu. Kromlecha hilobi bat da. Hilobi hortan ehorzten dute artzaina. Baina aurretik errautsi egiten da gorpua. Defuntuaren hezur erreak kromlecharen erdian jartzen dira, bai ontzi batetan, bai harrizko otarre batetan, edo bai lurrean. Beraz, hilak erretzea ekandu zaharra da Euskal Herrian. Artzainen ekandua da. Artzainek erre egiten dituzte hilak.

Kromlech batzutan menhir edo monolitoak ere ba daude. Zer dira monolito hauk? Harri haundi batzu dira, luzeak eta biribilak. Eta zer esan nahi dute harritzar hauek? Ez dakigu. Garai hontan bukatzen da Euskal Herriko prehistoria.

alde: parte, zona; **argi** (argitu, argitze): aclarar; **aurretik:** por delante, antes; **biribil:** redondo; **ehortz** (ehortzi, ehorzte): enterrar; **ekandu:** costumbre; **errauts** (errautsi, errauste): incinerar; **eskorta:** corral sin techo; **harlauza:** losa de piedra; **hilobi:** sepultura; **otarre:** cesto.

198 DOISTUKO SAKRISTAUUA

Mutriku eta Deba bitartean auzune bat dago. Doistu deitzen da. Hango sakristaua txikia baina ardozale handia da. Baraurik berritsua da, eta edanda sermolaria. Sermoiak egiten hasten da, eta jendeak pozik entzuten du.

Doistuko sakristauak beti abarketa beltzak dauzka. Ez du beste oinetakorik janzten. Behin, beste askotan bezala, polito edaten du eta lo gelditzen da. Lo dago haitz baten kontra.

Mutil bat lanean ari da soroan. Laiaketan ari da. «Arraioa!» esaten du. «Hura Doistuko sakristaua da.» Eta berehalaxe pentsamendu bat etortzen zaio burura. Sakristauari abarketa bat

erantziko dio, eta haren ordez abarka bat jantziko dio. Doistuko sakristaua, beraz, han dago, oin batean abarketa eta bestean abarka.

Sakristaua itzartzen da, esnatzen da. Zutitzen da, eta bere oinetara begiraten du. «Arraioa! Nor naiz ni?» Eskuinaldeko oina luzatzen du eta esaten du: «Orain Doistuko sakristaua naiz.» Gero ezkerraldeko oina luzatzen du eta esaten du: «Orain, berriz, ez naiz Doistuko sakristaua.»

Zalantza ezin du kendu, eta pentsatzen du: «Beraren etxera joango naiz. Han aurkitzen dut? Orduan ni beste bat naiz. Ez dut han aurkitzen? Orduan neu naiz Doistuko sakristaua.»

Sakristauaren etxera iristen da, eta atea jotzen du. Inork ez du jaramonik egiten. «Eup! Doistuko sakristaua etxean dago?» Inork ez du erantzuten. Etxean sartzen da, eta esaten du: «Hemen ez dago inor. Orduan neu naiz Doistuko sakristaua.»

abarketa: alpargata; **arraio:** rayo!; **auzune:** barriada, barrio; **baraurik:** en ayunas; **berritsu:** charlatán; **esna** (esnatu, esnatze): despertarse; **haitz:** roca; **iritsi** (iritsi, iriste): llegar; **itzar** (itzarri, itzartze): despertarse; **jaramon:** caso; **laiaketa:** acción de layar; **luza** (luzatu, luzatze): alargar; **oinetako:** calzado; **polito:** bonitamente; **sermolari:** sermonero, predicador; **soro:** campo, heredad; **zalantza:** duda; **zuti** (zutitu, zutitze): ponerse de pie.

199 DINOSAURIOEN HERIOTZA

Dinosaurioak animalia haundiak dira. Haundiak bakarrik ez. Deskomunalak dira. Elefanteak haien ondoan nanoak dira. Dinosaurioak narraztiak dira. Batzu hogeita hamar metro luze eta hamaika metro garai dira. Izugarriak. Animalia hauk orain milioi urte asko hil dira. Zergatik?

Estatu Batuetako zientzizigizon talde batek, Kaliforniako Unibertsitatean, teoria hau zabaldu du. Orain hirurogei milioi urte inguru, meteorito bat erori da lurrera. Erori eta lehertu. Hauts kapa bat sortzen da. Laino bat bezala. Lurra iluntzen da. Eguzki izpiek ezin dute laino hori pasatu. Orduan fotosintesia eteten

da. Eguzkiak bizia ematen die landareei. Horixe da fotosintesia. Laino horrekin fotosintesia eten da.

Garai hartako animalia batzuk planktona, belarra eta landareak jaten dituzte. Hoik guztiok hil egiten dira. Katearen azkeanean dinosaurioak daude. Era batera haragijaleak eta belarjaleak dira. Dinosaurioak ere gosez hiltzen dira.

bizi: vida; **era batera:** al mismo tiempo; **eten** -(etete): interrumpir; **garai:** alto; **gose:** hambre; **ilun** (ilundu, iluntze): oscurecer; **izpi:** rayo; **jale:** comedor, que come; **kate:** cadena; **laino:** niebla; **leher** (lehertu, lehertze): reventar, explotar; **nano:** enano; **narrazi:** reptil.

200

HOMINIDOAK ZUTIK

Hominidoa gizonen aurrekoa da, gizonen lehengaia. Hominidoak tximinoak dira. Hortik dator gizona. Hominido hori, lehenbizi, lau hankaz dabil. Gero bi hankaz ibiltzen hasten da. Zutik jartzen da. Hau ere aintzina gertatu da. Orain milioi urte asko. Zergatik zutitu da?

Hau da arrazoi bat. Begira! Tximinoa zuhaitzean dabil. Lau zangoz dabil. Ingurua ondo ikusten du zuhaitzetik. Lagunak ikusten ditu. Etsaiak ere ikusten ditu. Gainera, zuhaitzean, adar hotsa eta hosto hotsa ateratzen du. Horrela ondo orientatzen da.

Gero lurrean ibiltzen hasten da. Zuhaitzetik lurrera jaisten da. Orduan datoz problemak. Zer gertatzen da? Zer jazotzen da? Alde batetik tximinoak ezin du lagunik ez areriorik ongi ikusi. Beste aldetik ez du zaratarik ere ateratzen. Edo askoz gutxiago. Orduan zer egin behar du? Zutik ibili. Horrela lagunak eta etsaiak ikusi ahal izango ditu. Haseran gaizki dabil. Baina ez dauka beste erremediorik. Eta astiro astiro, milioi urte askotan, guztiz zutitzen da.

arerio: enemigo; **astiro:** despacio, lentamente; **hanka:** pierna; **hasera:** comienzo, principio; **hosto:** hoja; **hots:** ruido; **jaits** (jaitsi, jaiste): bajar; **lehengai:** materia prima; **tximino:** mono; **zango:** pierna; **zuhaitz:** árbol; **zuti** (zutitu, zutitze): erguirse, ponerse de pie; **zutik:** erectamente, de pie.

Thailandian elefantea da animaliarik inportanteena. Thailandiarrek oso maite dute elefantea. Animalia honek lan handiak egiten ditu lurralde hartan. Baina, hortarako, elefanteak ikasi egin behar du. Eta eskolan sartzen dute.

Elefankumea bost urterekin hasten da eskolara. Lehen bost urteetan amarekin bizi da oihanean. Bost urterekin eskolan sartzen dute elefantetxoak. Lehen hilabeteetan kumezaindegian edukitzen dute. Enbor huts baten barruan egoten da. Han bere maisuen eta monitorean ahotsa ezagutzen ikasten du.

Gero, progresiboki eta bost urtetan zehar, gauza asko ikasten ditu: belauniko jartzen, gauzak lurretik jasotzen, merkantziak arrastatzen eta egur egiten. Pertsonak eramaten ere bai. Gero haurrak tronpaz hartzen ikasten du. Eta emeki emeki bizkarrera jasotzen. Bai eta jolasten eta saltoak egiten ere.

Azkenik, ikasketa teorikoak eta praktikoak batera egiten ditu. Gero oihanera eramaten dute elefantea, eta aire librean makinaren zarata entzuten du. Horrela ez da ikaratzen, eta teknologian sartzen da. Ikasketa hauk hamar urterekin amaitzen ditu.

ahots: ruido vocal, voz; **belauniko:** de rodillas; **egur egin:** hacer leña, leñar; **elefankume:** cría de elefante, elefantito; **emeki:** suavemente, despacito; **enbor:** tronco; **huts:** vacío, hueco; **ikara** (ikaratu, ikaratze): asustar; **ikasketa:** estudio; **jolas** (jolastu, jolaste): jugar, divertirse; **kumezaindegi:** guardería de crías; **lurralde:** país, territorio; **oihan:** bosque.

Elefantea hamar urterekin hasten da lanean Thailandian. Langile bat gehiago bezala. Non lan egiten du? Batez ere industria forestalean. Eta guztiz ondo lan egiten du.

Thailandian hamabi mila elefanteak lan egiten dute zuhaitz industrian. Bakoitzak hiru gizonen lana egiten du. Horregatik beraiek ere abantaila sozial guztiak dauzkate. Beste lagunen antzera, urtero oporraldiak dauzkate. Martxotik maiatzera baxora joaten dira. Han zer egiten dute? Laguna bilatzen dute,

emaztea bilatzen dute. Opor egunak maitasunean pasatzen dituzte, eta maiatzean berriro lanera.

Elefantea ehun urte inguru bizitzen da. Errendimendurik onena hogeitau bost urtetatik berrogei ta hamar urtetararte ematen du. Hirurogei urterekin erretiratu egiten da. Jubilazioa hartzen du. Berriro joaten da oihanera. Han bizi da libre eta lasai heriotzararte.

abantaila: ventaja; **antzera:** parecidamente, a semejanza; **lagun:** compañero; **langile:** trabajador, obrero; **oihan:** bosque; **opor:** vacación; **oporraldi:** tiempo de vacación; **urtero:** anualmente, todos los años.

203

TXINOEN HIZKUNTZA HARRIGARRIA

Gengis-Khan Mongoliako enperadorea da. Eta Txina menperatzen du. Baina Gengis-Khan enperadoreak txinoen hizkuntza errespetatzen du. Eta bultzatzen du. Hizkuntzan batasun politikoaren indarra ikusten du.

Txinera edo txinatarren hizkuntza harrigarria da. Alfabetuak sei edo zazpi mila urte dauzka. Oso alfabetu berezia da. Zeinuak edo sinboloak dauzka. Ez dira letrak. Irudiak edo marrazkiak dira. Irudi hauk milaka kontatzen dira.

Gaur hiztegi zabal batek 50.000 zeinu biltzen ditu. Hauetatik ehuneko hirurogei ta hamabost (75%) arkaikoak edo dialektalak dira. Hiztegi on batek 14.000 sinbolo biltzen ditu. Hoik guztiok jakitea asko jakitea da. Oinarrizko hiztegiak hiru edo lau mila sinbolo dauzka.

Tipografo talde batek, 1976.ean, zera esan du: «Zortzi mila zeinu larregi da. Hiztegi ofiziala sinpletu egin behar da. Hiru mila ta berrehun zeinu nahiko dira.»

Txinan ere hizkuntza egiten ari dira.

batasun: unidad; **bultza** (bultzatu, bultzatze): impulsar; **hizkuntza:** lenguaje; **hiztegi:** diccionario, vocabulario; **irudi:** figura; **larregi:** demasiado; **marrazki:** dibujo; **menpera** (menperatu, menperatze): someter; **oinarri:** base, fundamento; **zabal:** ancho, extenso; **zeinu:** signo.

Emakume bat bakarrik bizi da. Gurasoek zerbait utzi diote, eta huraxe jaten du. Ez du inoiz lanik egiten. Ez du lurrik aitzurtzen, ez du hazirik ereiten, ez du haririk iruten, ez du arroparik garbitzen, ez du hautsik kentzen, ez du egurrik ekartzten eta ez du surik pizten. Ura iturrian edaten du, eta gosea auzunean kentzen du.

Baina gurasoen dirua amaitu da. Auzoek zerbait ematen diote, eta horrela bizi da. Baina auzoak ere aspertzen dira, eta emakume alferrak ez du lanik egin gura.

—Eraman ni lurpera bizirik —eskatzten die bere auzoei.

—Ondo dago hori. Bestela, gaizki ibili behar dugu alfer honekin —esaten dute haiek.

Gizonek zerraldo bat egiten dute, eta alferrarengana doaz.

—Sar hemen, emakumea! —esaten diote alferrari.

—Ez! Ni ez naiz sartuko. Zuek sar ni! —erantzuten die harek.

Emakume alferra zerraldoan sartzen dute, eta kanposantura doaz.

—Nor hil da? —galdetzen du bidean andre batek.

—Inor ere ez.

—Inor ere ez? Zer daramazue, ba, zerraldoan?

—Iñazi Alfer daramagu bizirik.

—Bizirik kanposantura?

—Berak nahi du.

—Ene ama! Ez eraman kanposantura. Eraman etxera. Arto anega batzu emango dizkiot Iñaziri.

—Zu, Iñazi! Andre bat dago hemen, eta arto anega batzu eman gura dizkizu.

--Artoa ehota dago ala ez? —galdetzen du Iñazik.

—Ez, ez dago ehota —erantzuten du andreak.

—Orduan, gorde zeure ganbaran. Nik ez dut eho gura. Aurrera, gizonak! Eraman ni hilobira!

aitzur (aitzurtu, aitzurtze): cavar con azada; **anega**: fanega; **arto**: maíz; **auzo**: vecino; **auzune**: vecindario; **bestela**: de otro modo, si no; **egur**: leña; **eho** (ehotze): moler; **ene ama**: madre mía!; **erein** (ereite): sembrar; **ganbara**: cámara, desván; **guraso**: progenitor; **hari**: hilo; **hazi**: semilla; **hilobi**: sepultura; **irun** (irute): hilar; **iturri**: fuente; **lurpe**: bajo tierra; **zerraldo**: ataúd, féretro.

205 LURRAREN JABEGO PRIBATUA

Euskal Herrian herri lur asko egon da. Horixe izan da lurra-
ren izen normala: herri lurra. Lur pribatu gutxi egon da. Artzai-
nen bizitza da hori. Artzainek larre eskubidea daukate. Ardiak
eta beste abereak larrera eramaten dituzte. Baina lurra denena
da, komunala da.

Eta ez da ezer ereiten? Bai. Adibidez, batek garia ereiten
du. Uztararte, han ez da inor sartzen. Baina, gero, lurra komu-
nala da berriro. Lurra artzain guztiena da.

Beste batek zuhaitz bat landatzen du. Zuhaitza landatzailea-
rena da. Baina lurra ez da harena izango. Lurra herri lurra
izango da beti. Nola etorri da lurraren jabego pribatua?

Uzta bat eta beste bat eta beste bat ereiten hasten dira.
Urtetik urtera errotazioz ereiten da: garia, gero artoa, gero
garagarra, eta abar. Beraz, lurra beti okupaturik dago. Zuzen-
bidearen aldetik lurra ez da pribatua, baina praktikaren aldetik
bai. Nekazaritzak irabazten du azkenean. Artzainak haserre-
tzen dira. Burruka gogorak daude. Baina legeak hori onartzen
du. Eta horrela dator lurraren jabego pribatua.

abere: ganado; **ardi**: oveja; **arto**: maíz; **burruka**: lucha; **erein**
(ereite): sembrar; **eskubide**: derecho; **garagar**: cebada; **gari**:
trigo; **haserre** (haserretu, haserretze): enfadarse; **jabego**: do-
minio, propiedad; **landa** (landatu, landatze): plantar; **landa-
tzaile**: plantador; **larre**: pastizal, dehesa, prado; **lege**: ley;
nekazaritza: agricultura; **onar**: (onartu, onartze): admitir,
acceptar; **uzta**: cosecha; **zuzenbide**: derecho.

206 PIRINIOETAKO HERENSUGEA

Herensugea animalia izugarria da. Sugetzar bat, zazpi-buruduna. Pirinio mendien bizkarrean bizi da. Luze luzea da. Mendi gailur batetan dauka burua eta beste batetan buztana. Herensugeak jan eta lo egiten du. Ez du egunero jaten. Hiru hilabete-tarik behin jaten du.

Nola jaten du? Itzartzen da, eta arnasa hartzen du. Arnasaren indarrez artalde osoak irensten ditu. Eta berriro lo. Artzainek ez dakite zer egin.

Behin, artzain guztiak biltzen dira. Mendietako burdina guztia pilatzen dute. Gero baso guztietako egur guztia batzen dute. Egur horrekin ikatz pila izugarria egiten dute. Burdina guztia urtzen dute. Baigorriko haranean, herensugearen aho aldean jartzen dute burdin salda. Baigorriko haranak zingira baten antza dauka.

Herensugea esnatzen da. Arnasa hartzen du, eta oharkabez burdin salda guztia edaten du. Horrela hiltzen da, eta ez da gehiago agertzen. Horregatik dago minerale asko Pirinioetan.

artalde: rebaño de ovejas; **bizkar:** espalda, lomo; **burdina:** hierro; **buztan:** cola, rabo; **egur:** leña; **esna** (esnatu, esnatze): despertarse; **gailur:** cima; **herensuge:** dragón; **ikatz:** carbón; **irents** (irentsi, irenste): tragar, devorar; **itzar** (itzarri, itzaritze): despertarse; **oharkabe:** inadvertencia; **salda:** caldo; **suge-tzar:** culebra enorme; **ur** (urtu, urtze): derretir; **zingira:** pantano.

207 DEABRUEN TRIANGULUA

Bermudak Ozeano Atlantikoko irla batzu dira. Hirurehun eta berrogei ta hamar irla. Hogeitan bakarrik bizi da jendea. Arkipelago honek izen asko dauzka: Bermudetako Triangulua, Deabruen Triangulua, Triangulu Madarikatua, Heriotzaren Triangulua, eta abar. Zergatik? Azken hogeit ta hamar urteetan ehun untzi eta hegazkin hondatu dira hor. Mila lagun hil dira.

Zer misterio dauka alderdi horrek? Zer dago hor? Deabruak, herensugeak, izpiritu gaiztoak? Zer dago benetan? Alde batetik, untzien eta hegazkinen joan-etorri haundia dago hor. Bestetik, itsaso hori berezia da. Korronte bizia dago beti. Ekaitz eta haize haundiak sortzen dira bat batean.

Bestalde, ur meheak eta ur sakonak elkarren ondoan daude. Ur mehetik supituan ur sakonera. Zulo izugarriak, munduko haundienak. Hoik dira hango deabruak. Natura bera da nahiko deabru.

alderdi: paraje; **bat batean:** repentinamente; **bestalde:** por otra parte; **bizi:** vivo; **gaizto:** malo; **herensuge:** dragón; **honda** (hondatu, hondatze): hundir; **joan-etorri:** tráfico; **lagun:** individuo; **madarikatu:** maldito; **mehe:** delgado, poco profundo; **supituan:** súbitamente.

208 PREHISTORIAKO MEDIKUNTZA

Nolakoa da prehistoriako medikuntza? Nola jakingo dugu hori? Zer egingo dugu hortarako? Aintzinako eskeletoak aztertuko ditugu, eta horrela ezagutuko dugu prehistoriako medikuntza.

Hau da harrigarria. Aintzinaoek trepanazioa praktikatzen dute. Burezur perforatuak aurkitu dira. Burezur gehienek zulo bat daukate. Beste batzuk zulo gehiago. Trepanazioa egitea ekandu zabala da prehistoria guztian zehar.

Paris inguruan burezur femeninoak aurkitu dira dolmen neolitikoetan. Kanale bat bekokiaren erditik burezuraren oinera doa. Beraz aurretik atzera. Buruaren erdi erditik doa. Operazio hori pertsona biziari egiten zaio. Zer egiten zaio? Ilea eta larrua erre. Eta hezurra ere bai. Operazio harrigarria!

Zergatik egiten dute hori? Hipotesi desberdinak daude: zeremonia erlijiosoak edo zigortzailea, emakumeen orrazkera, metodo kirurgikoa. Azken hipotesi hau da frogagarriena. Operazio horrekin eritasunak sendatzen dira, gaixotasunak osatzen dira.

Adibidez, erotasuna eta epilepsia. Ilea erretzea Erdi Aroan ere ohitura kirurgiko zabala da. Mediku musulman handien liburuetan agertzen da. Ohitura hori prehistoriatik ote dator? Baina zergatik egiten zaie emakumeei bakarrik? Orduan ere feminismoak bere tokia dauka.

aro: época, edad; **bekoki:** frente; **burezur:** cráneo; **ekandu:** costumbre; **erotasun:** locura; **frogagarri:** probable; **ile:** pelo; **larru:** piel; **medikuntza:** medicina; **orrazkera:** modo de peinarse; **toki:** sitio, lugar; **zabal:** ancho, extendido; **zigortzaile:** punitivo.

209 SAN JOSEREN AURREAN

Peru eta Maria senar-emazteak dira. Mariak gauza txar bat nahi du. Peru itsu eta gor bihurtzea. Zer egin hortarako? Maria San Josegana doa, eta laguntza eskatzen dio.

Peruk usaina hartu du. Emaztearen asmoak igarri ditu. Egun batez Mariaren aurretik elizara doa, eta San Joseren ostean bere burua gordetzen du. Maria elizara iristen da, eta San Joserekin berba egiten hasten da.

—San Jose, gure San Jose! Peru itsu eta gor gelditzea gura dut. Horixe eskatzen dizut. Entzun nire eskaria.

—Hortarako, Maria, eman jaten eta edaten ondo zeure senarrari —erantzuten dio Peruk aldare ostetik.

Ordutik aurrera Mariak ederki tratatzen du bere senarra. Peru pozik dabil: jan eta jan, edan eta edan.

—Maria! —esaten dio senarrak—. Nik gero eta gutxiago ikusten dut. Entzun ere gero eta gutxiago entzuten dut.

—Zer egingo dugu, ba? —erantzuten dio emazteak—. Eduki pazientzi apur bat, nire senar maitea!

Baina Maria pozik dago. Lehen ondo eta orain hobeto tratatzen du bere senarra. Peru jaten eta edaten ari da.

—Maria! —esaten dio Peruk—. Nik ez dut balio ezertarako. Itsu eta gor nago. Ez dut ezer ikusten. Eta ez dut ezer entzuten.

—Ai, Peru! Zer egin behar dugu?

—Eraman ni mendi gain hortara, eta bota leizera.

—Jesus, Peru! Ez esan hori, ez esan hori.

—Bai, Maria! Esan eta egin. Eraman ni mendira, eta bota handik behera.

Ba doaz biak, eta leizera irixten dira.

—Maria, joan gain hartara, har abiada, egin bultz eta bota ni zulora.

—Bai, holaxe egingo dut.

Maria korrika dator. Pozik dator. Peruren ondora heltzen da. Baina honek alde egiten du, eta Maria bera amiltzen da leizean behera.

abiada: impulso, carrerilla; **aldare:** altar; **alde egin:** ladearse, separarse; **amil** (amildu, amiltze): precipitarse; **asmo:** propósito, intención; **aurretik:** por delante, antes; **bultz egin:** empujar; **eskari:** petición; **gain:** cima; **gor:** sordo; **irits** (iritsi, iriste): llegar; **itsu:** ciego; **laguntza:** ayuda; **leize:** sima; **maite:** querido, amado; **oste:** parte posterior, detrás; **usain:** olor.

210 BALEA HARRAPATZEN

Arrantzaleak arrantzan ari dira. Bisigua, legatza, atuna, sardina eta abar harrapatzen ari dira. Talaiariak seinale bat egiten du. Zer gertatzen da? Balea bat ikusi du. Kofradiako kanpaiak dilin-dalan hasten dira. Zer jazotzen da? Balea bat agertu da. Herri guztia kalera doa, portura doa.

Arrantzaleek arrantzari uzten diote, eta portura doaz arin arinka. Herriko gizonak eta mutilak ere portura doaz. Espedizioa prestatzen dute. Herriko txalupa guztiak martxan jartzen dira. Txalupa bakoitzean zortzi gizon doaz. Sei arraunlari, lema-zaina eta patroia. Patroia popan doa. Txalupak itsasora heltzen dira, eta abanikoa egiten dute. Balea erdian hartzen dute. Herria portutik begira dago.

Lehen txalupa hurreratzen da. Besteak zain daude. Arponlariak patrioiaren seinalea hartzen du. Brankan zutik jartzen da, eta arpoia jaurtikitzen du. Arpoia balearen haragian sartzen da. Balea urpera jaisten da. Txalupak ihes egiten du. Balea berriro ur azalean. Beste txalupa batek beste arpoi bat jaurtikitzen dio. Beste batek beste bat. Eta horrela balea hiltzen dute. Gero portura eramaten dute balea hila. Hura bai egun handia herrian!

arponlari: arponero; **arrantza:** pesca; **arrantzale:** pescador; **arraunlari:** remero; **balea:** ballena; **bisigu:** besugo; **branka:** proa; **hurrera** (hurreratu, hurrertze): acercarse; **jaits** (jaitsi, jaiste): descender; **jaurtiki** (jaurtikitze): lanzar, arrojar; **legatz:** merluza; **lemazain:** timonel; **presta** (prestatu, prestatze): preparar; **talaiari:** atalayero; **urpe:** bajo el agua; **zain:** vigilante, esperando; **zutik:** de pie.

AURKIBIDEA

Zenba-kiak	Tituluak	Orrialdeak	Zenba-kiak	Tituluak	Orrialdeak
32	Abertzale izan eta karlista hil.	30	98	Belarren moda berria.	81
104	Adan eta Eba berriak	86	45	Berriatuarra Ameriketara	40
181	Afrikako simaur kakarraldoak	153	151	Bi aharitoak eta otsoa	126
6	Ahoko musua eta osasuna	10	159	Bizikletaren iraultza	135
171	Ahuntzak, otsoa eta azeria	145	180	Bizkarrezurra eta osasuna	152
122	Akerrari Amen!	102	74	Bulego papergabea	63
20	Aleman listoak	21	106	Burokrazia alkoholikoa	88
90	Alostorreko hilketa	74	179	Deabruaren dohaina	151
95	Amerikako lehen bizilagunak	78	207	Deabruen Triangulua	175
153	Antisorgarriak sudurretik	130	111	Deliktuaren gorputza	93
187	Antropologo libertaria	159	25	Diganteak egiazkoak izan dira	25
142	Argaldu nahi duzu?	118	199	Dinosaurioen heriotza	169
8	Arma saltzaileak negarrez	12	100	Diskategietako argi beltza	83
82	Arrano ehiztaria	68	198	Doistuko sakristaua	168
33	Arrantxoagatik hil	31	155	Donostiako egun beltza	131
136	Arratoien barruan bertsolaria	114	185	Egia biribilak	156
135	Arratoien eliza	113	72	Egurra eta biraoa	61
65	Asto beltza enperadore	56	14	Ehuna eta ongarria	16
164	Atarrabio eta deabrua	139	201	Elefantea eskolara	171
158	Atarrabioren itzala	133	202	Elefantea lanean	171
71	Atomoen argazkiak	61	204	Emakume alferra	173
174	Aurkikunde miragarria	147	183	Energia autoen gurpiletan	154
150	Automobila haurrentzat txarra	125	129	Enperadore eroria	108
184	Azkordinak eta ozipelak	155	78	Erleen polena	66
133	Balea eta talaiaria	111	148	Erle miragarriak	124
210	Balea harrapatzen	178	165	Errautsaren ontasunak	140
24	Ba ote dago bizitzarik Jupiterren?	24	190	Erreboltatik jazz musikara	161
73	Ba ote dakizu?	62	144	Erregea eta ikazkina	120
27	Baraua oso ona gorputzarentzat	26	196	Erreuma madarikatua	166
70	Basajaunaren argimutila	60	188	Estatua eta herri primitiboak	159
154	Basaterapia	130	123	Estatu Batuetako justizia	103
29	Begien bainua	28	118	Etxegilerik zaharrena	98
66	Behi baten lapurra	56	170	Ezin musu eman	144
			121	Ezkertiek arazoia daukate	101
			92	Finlandiako fantasiak	76

Zenba-kiak	Tituluak	Orrial-deak	Zenba-kiak	Tituluak	Orrial-deak
3	Galaxien enbaxadorea . . .	8	152	Joan Hartz errege.	127
86	Gazelak hozkailu biziak . .	71	60	Jirafen zorionak eta zoritxarrak	52
134	Gazta-lapurra	112	7	Jupiterren misterioak . . .	11
44	Gezurren erlojua	39	172	Kanibalismoa	146
112	Gilotinatua noiz hiltzen da?	94	30	Kasualitatea ala deabrua? .	29
9	Gioconda eta urdaia	13	77	Kitarra jotzaile handi bat .	65
88	Giza oinatzik zaharrenak . .	73	55	Koipe miragarria	48
49	Gizonak biluzik	43	137	Kolon eta vikingoak	115
57	Gizontzako pilula aurkitu da	49	139	Koloreekin jolasean	116
34	Gizon jaiο eta emakume hil	32	161	Kontuz galeperrarekin! . .	136
140	Globonauten epopeia. . . .	117	17	Kontuz gatzarekin!	19
42	Gorputzak ere arnasa hartzen du.	38	53	Kontuz gauza berriekin! . .	46
68	Gose greba behien alde. . . .	58	87	Kontuz ilargiarekin!	72
28	Hau da zibilizazioa!	27	197	Kromlechak edo hilen eskortak	167
47	Haurrak puntualki mundura.	41	1	Kuku birpiztua	7
36	Haurren egoera negargarria	33	163	Kultura behera	138
126	Haur tximinoak.	105	12	Lamiak ibai eta iturrietan .	15
114	Heldutasunaren neurgailua .	95	22	Lan bila ia hil	23
192	Heriotza eta emaztea	163	37	Lan gabe dibortziorik ez . .	34
64	Herri bat minbizi gabe	55	108	Lapur dohatsuak	89
50	Hilen botuak	44	132	Laster burua ere birlandatuko dugu	110
48	Hilezkorrak ere hil	42	91	Lehen euskal hitz idatziak	76
58	Hipnotismoa interrogatorioetan	50	117	Liztor miragarriak	98
186	Hiru estudianteak.	157	41	Lokatza eta osasuna	37
200	Hominidoak zutik	170	62	Lurralde harrigarriak	54
131	Hortzen katastrofea	109	205	Lurraren jabego pribatua . .	174
10	Ikas erlaxatzen	13	67	Luzaro bizi nahi duzu? . . .	58
110	Ikazkina eta Herioa	91	147	Maitasun dantzan hil.	123
56	Ilargi berria	48	120	Maitatzaile dohakabea . . .	100
101	Ile analisiak	84	52	Mañaniren negarrak	45
18	Independentzia nahi dugu. . . .	20	138	Marihuanaren erligioa	115
89	Indio Tarahumarak.	74	85	Mateo txistu.	71
149	Irakurtzea kaltegarri?.	125	115	Minaren erremedio berria . .	96
61	Irla berria lapikotik.	53	35	Min gabe erditzea txarra omen da.	33
176	Itsas Hila	149	5	Misilak euritakoekin	10
113	Itsasoko termometroa	95	93	Mundu Berriko zibilizazioak	77
160	Itsas soroak	135	195	Munduko boltsak dantzan	165

Zenba- kiak	Tituluak	Orrial- deak	Zenba- kiak	Tituluak	Orrial- deak
102	Musika eta bizitza	84	59	Senar-ematze tentelak . . .	51
103	Musika eta heriotza	85	38	Sendagile miragarria	35
194	Musika luzetik laburrera .	165	11	Sorginen indemnizazioa . . .	14
128	Napoleon andrezealea	107	175	Sugea eta arraultzea	148
39	Negozio berria	36	79	Sugearen ahotik ura	66
43	Nekazaritza Espainian	39	125	Sugegorria ez da hain txarra	104
94	Nola igar eguraldia?	77	105	Sugestioa eta hipnosia	87
21	Nola ken zurrungak?	22	177	Suzko sermoia	150
99	Nola preparatzen dira sendabelarrak?	82	54	Tanzania gizonaren sehaska	47
19	Nondik joaten da Beasainera?	20	130	Tearen fantasiak	109
143	Norvegiarren birpizkundera	119	173	Timor irlako genozidioa	147
162	Oinarrizko koloreak eta begia	137	169	Trafiko atomikoa	143
156	Okilaren sekretu teknikoa .	132	119	Trobalariak eta koblakariak	99
13	Ondo bai, baina Bilbora ez	15	40	Txileko miseria	36
168	Opioa	142	203	Txinoen hizkuntza harrigarria	172
145	Osasunaren konputagailua	122	146	Txirritxorien leizea	122
2	Ovni- detektorea	7	81	Txori kantuen grabaketa	68
193	Patataren ontasunak	164	141	Vulkanoren seme-alabak	118
178	Petrolioia	151	51	Uraren misterioak	45
23	Petrolioia hotelera	23	84	Uraren sekretu handia	70
107	Pintore handia gartzelan	89	69	Usainen erakusketa	59
124	Pirinioetako gizona	104	167	Ustegabe harrigarria	142
206	Pirinioetako herensugea	175	31	Zaharra izatea tragedia ote da?	29
15	Pix egin eta alarma jo	17	157	Zaramarekin zer egin?	133
75	Postariak eta txakurrak	63	182	Zarata eta antzutasuna	154
127	Prakaman bat, Prakaman bi	106	46	Zaraten kalteak	41
208	Prehistoriako medikuntza	176	4	Zer da bingoa?	9
109	Projektu harrigarria	90	189	Zer da mafia?	160
166	Publizitate galgarria	141	80	Zergatik ez dira telegramak bustitzen?	67
97	Rock musika nazismoaren aurka	80	76	Zergatik gorputza pinta?	64
16	Sainduak dantzan	18	83	Zientziaren mirariak	69
116	Sakristauaren ezkontza	96	63	Zifrak dantzan	54
209	San Joseren aurrean	177	191	Zotzen filosofia	162
26	San Martinen argia	26			
96	San Pedroren kalamitateak	79			



**OINARRIZKO
EUSKARAZKO
ARGITALPENAK**